

**.../..... DEKRETUA,-(e)koa; HONEN BIDEZ, GIZARTE
ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN
ZORROA ARAUTZEN DA**

Zirriborro teknikoa
2012ko otsailaren 15a

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, azken hamarkadetan gizarte-zerbitzuen sare bat ezartzen eta hedatzen lortutako arrakastetan oinarrituta, herritar guztiak gizarte-zerbitzuak izateko duten eskubide subjektiboa bermatzea du helburu nagusi, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bat egituratu behar da, erantzukizun publikokoa, modernoa, aurreratua eta bermatzailea, erabiltzaileen eskubideekiko errespetuan oinarritua eta prestazio eta zerbitzuen sare antolatua, koherente, eraginkor eta efiziente bat egituratzeko moduko kudeaketa- eta koordinazio-tresna batzuekin hornitua.

Eskubide hori erabiltzeko aukera bermatzeko, Legeak oinarritzko hainbat elementu ditu:

- 3. artikuluan, eskubidearen titulartasuna mugatzen du.
- 8. artikuluan, arretarako eta esku-hartzerako ereduaren ezaugarriak aipatzen ditu, eta komunitatea eta arretaren hurbiltasuna oinarri dituen eta sistemaren funtzionamenduaren eta zerbitzu eta prestazioen eskuragarritasunaren antolamenduaren abiapuntu izan behar duen ikuspegia du erreferentzia nagusi.
- 25. artikuluan, zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko baldintzak ezartzen ditu, oro har.
- 19. artikuluan, esku hartzeko oinarritzko prozedura ezartzen du.
- 21. eta 22. artikuluetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa zehazten du, eta, hori garatzeko, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren edukiak eta eguneratzea aurreikusten ditu 23. eta 24. artikuluetan.

Dekretu honek aurreikuspen horiek garatzen ditu, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren, Sistema baliatzeko baldintzen eta irizpideen eta prozedura-xedapenen erregulazioan oinarrituta. Horrela, beraz, Sistemaren eraginkortasunerako oinarritzko eta ezinbesteko elementua da: izan ere, Dekretu honen bidez edukia ematen zaio Legean aldarrikatutako eskubide subjektiboari, eskubide hori mugatu egiten da (ezinbesteko baldintza da eskubide hori eraginkortasunez baliatzeko), eta, aldi berean, Euskadiko administrazio publikoek zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen zuzkidurari dagokionez duten betebeharra mugatzen da.

Helburu horrekin, Dekretua hiru kapitulutan egituratu da, eta lau eranskin ditu amaieran.

I. Kapituluak xedapen orokorreari buruzkoa da, eta, bertan, Zorroaren xedea, edukia, egitura, helburua eta eguneratzea zehaztu, aplikazio-eremua eta eskumen-banaketa mugatu, eta Zorroaren esparruan prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak zer diren, eta, horien barruan, prestazio teknikoak, prestazio teknologikoak eta prestazio osagarriak zer diren zehazten da.

II. Kapituluak Zorroaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko baldintzak eta irizpideak arautzen ditu, eta honako hauek aurreikusten ditu:

- alde batetik, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko eska daitezkeen administrazio-baldintzek eraginpean hartutako alderdiak;
- bestetik, zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko eska daitezkeen premia-baldintzek eraginpean hartutako alderdiak;
- arrisku-egoerak edo mendetasuneko, babesgabetasuneko edo gizarte-bazterkeriako egoera aitortuak eta onartuak balioesteko prozedurak eta tresnak;
- zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin batek egoera eta premia jakin bati erantzuteko duen egokitasun-maila finkatzean esku hartzen duten elementuak.

Baldintza horiek guztiek erreferentziazko profesionalak egindako preskripzio teknikoaren oinarri izan beharko dute, eta preskripzio horretan islatuta agertu beharko dute. Horretarako, erabiltzailearen baimena beharko da, baliozkotasun juridikoko egoeran adierazia.

Aurreikuspen horiek ikuspegi komunitarioan eta zerbitzuen lehentasunean (prestazio ekonomikoen aurretik) oinarritutako arreta-eredu batean kokatuta, eta zerbitzu eta prestaziorik egokien preskripzio teknikoan islatuta daude.

III. Kapituluaren, prozedura-xedapenak bilduta daude. Hiru prozedura mota bereizten dira:

- Zerbitzuak eta prestazioak lortzeko prozedura arrunta; oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (lehen mailako zein bigarren mailako arretarako zerbitzuak) lortzeko aplikatu daitezke, eta erabiltzaileari bere bizilekuaren arabera dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jotzen denean hasten da.
- Zerbitzuak eta prestazioak lortzeko premiazko prozedura. Honako egoera hauetan aplikatu daitezke:
 - prozedura arruntean aurreikusitakoa baino bizkortasun handiagoa eskatzen duen lehentasunezko arreta behar duten egoerak; kasu horretan, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak proposatuta, zerbitzua ematen hasi ahal izango da, prozedura arruntean aurreikusitako jardunak egin aurretik;
 - adingabeen babesgabetasun-egoerak; kasu horretan, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta hori garatzen duen araudian xedatutakoari jarraituko zaio;
 - etxeko indarkeriari eta sexu-erasoei lotutako egoerak; kasu horretan, etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko Akordioan aurreikusitakoari jarraituko zaio.
- Gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeretan jarduteko prozedura; prozedura horren esparruan, Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren bitartez jo ahal izango da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara.

Kapitulu horren azken atalean, halaber, alde batetik lehen mailako arretaren eta bigarren mailakoaren arteko deribazioa (administrazio publikoek arreta maila batetik bestera aldatzea egokitzen hartzen den berriazko kasuetarako deribazio-protokoloak ezarriko dituztela aurreikusita) eta, bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta gizarte-ongizatera bideratutako beste sistema edo politika publiko batzuen arteko deribazioa erraztera eta antolatzen bideratutako xedapenak biltzen ditu.

Dekretuaren amaieran, sei xedapen gehigarri eta azken sei xedapen daude.

Erabiltzailearen parte-hartze ekonomikoa finkatzeko irizpide komunen, arriskuak eta premia-egoerak zehazteko tresna komunen eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta-mailen arteko eta sistema horren eta gizarte-ongizatera bideratutako beste sistema edo politika publiko batzuen arteko deribazio- eta koordinazio-protokoloen erregulazioa aurreikusten dute xedapen gehigarriek. Halaber, lege-aurreikuspenen oinarrituta, zerbitzu esperimentalak antolatzen aukera eta arreta-formula bateratuagoak bultzatzen bideratutako malgutzetuzko irizpide bat biltzen dute.

Azken xedapenen artean, lehena azpimarratu beharra dago, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari buruzkoa.

Xedapen horren arabera, eskubidearen erabateko eraginkortasuna Sistema unibertsalizatzeko epea amaitzen denetik aurrera lortuko da, eta, Dekretu hau indarrean jartzen denetik erabateko eraginkortasuna lortzen den egunera bitarte, zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidearen eraginkortasuna pixkanaka lortuko da, zerbitzuetan eskumena duten euskal administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren baitan adostutako lehentasun-irizpideei jarraiki.

Azkenik, testuak lau eranskin ditu:

Lehen bi eranskinak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitzaren berariazko erregulazioari buruzkoak dira.

I. Eranskina zerbitzuei buruzkoa da eta lehen eta bigarren mailako arretarako zerbitzu guztiak arautzen ditu, fitxa indibidual gisa. Kasu bakoitzean, honako alderdi hauek daude adierazita:

- Izena.
- Eskumena, honako hauek bereizita: udal-eskumena, foru-eskumena eta Autonomia Erkidegoko eskumena.
- Definizioa eta helburua.
- Modalitateak, hala badagokio.
- Eskaintzen dituen prestazioak. Bidezkoa denean, prestazio teknikoak eta teknologikoak, prestazio osagarriak eta beste sistema batzuen prestazioak bereizten dira.
- Arreta-maila, honako hauek bereizita: lehen mailako arreta eta bigarren mailako arreta.
- Zerbitzu mota, honako hauek bereizita: orientazio-zerbitzuak eta eskuratzeko zerbitzuak.
- Etxez etxeko zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak, eguneko arretarako zerbitzuak, gaueko arretarako zerbitzuak eta babesteko eta esku hartzeko zerbitzuak.
- Hartzaileak, egoera eta adina adierazita.
- Eskuratzeko baldintzak, honako hauek adierazita: administrazio-baldintzak eta premia-baldintzak.
- Erabiltzailearen parte-hartze ekonomikoa, zerbitzua doakoa den ala baterako ordaintetari lotuta dagoen adierazita.

II. Eranskina prestazio ekonomikoari buruzkoa da, eta prestazio guztiak arautzen ditu fitxa indibidual gisa. Honako alderdi hauek daude adierazita:

- Izena.
- Eskumena, honako hauek bereizita: udal-eskumena, foru-eskumena eta Autonomia Erkidegoko eskumena.
- Definizioa eta helburuak.
- Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.
- Zenbatekoa.
- Hartzaileak, egoera eta adina adierazita.
- Eskuratzeko baldintzak, honako hauek adierazita: administrazio-baldintzak eta premia-baldintzak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen esparruan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak bermatutako zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen zuzkidura-esparrua denez gero, III. Eranskinen elkarrekotasunen taula bat dago. Taula horrek garbi zehazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko datozen bat Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zerbitzu eta

prestazio ekonomikoekin, edota Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzuek eta prestazio ekonomikok ematen duten horiek lortzeko aukera.

Azkenik, IV. Eranskinean Zorroaren zerbitzuen bitartez antolatzen diren prestazio teknikoaren definizioak daude bilduta.

Horri jarraiki, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Jaurkitzearen Kontseiluak(e)koaren(e)an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Dekretu honen xedea honako hau da: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan araututako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatuz eta Lege horren 23. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian jasotako agindua betez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzea.

2. artikulua.- Zorroaren edukia.

Zorroa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan oinarrituta arautzen da, eta, beraz, horren zerbitzu eta prestazio ekonomiko berak biltzen ditu. Hala ere, prestazio ekonomikoaren kasuan, aurreikusitako talde bakoitzaren barruko prestazioak banakatzen ditu Zorroak:

1. Lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuak:
 - 1.1. Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua.
 - 1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
 - 1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
 - 1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
 - 1.5. Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
 - 1.6. Telelaguntza-zerbitzua.
 - 1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak.
 - 1.8. Gaueko harrera-zerbitzuak.
 - 1.9. Ostatu-zerbitzuak:
 - 1.9.1. Harrera-pisua.
 - 1.9.2. Etxebizitza babestua.
 - 1.9.3. Apartamentu babestuak.
 - 1.9.4. Etxebizitza komunitarioa.
2. Bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuak:
 - 2.1. Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
 - 2.2. Eguneko arretarako zerbitzuak edo zentroak.

- 2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
- 2.2.2. Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa.
- 2.2.3. Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
- 2.3. Gaueko harrera-zentroak.
 - 2.3.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zerbitzua edo zentroa.
 - 2.3.2. Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.
- 2.4. Egoitza-zentroak.
 - 2.4.1. Adinekoentzako egoitza-zentroak.
 - 2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak.
 - 2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak.
 - 2.4.4. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.
 - 2.4.5. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.
 - 2.4.6. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk.
- 2.5. Atsedenerako zerbitzua.
- 2.6. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua.
- 2.7. Bigarren mailako arretarako beste gizarte-zerbitzu batzuk:
 - 2.7.1. Informazio- eta orientazio-zerbitzuak.
 - 2.7.1.1. Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua.
 - 2.7.1.2. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua.
 - 2.7.2. Autonomia babesteko zerbitzuak.
 - 2.7.2.1. Bizitza independentea babesteko zerbitzua.
 - 2.7.2.2. Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzekeo zerbitzua.
 - 2.7.2.3. Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua.
 - 2.7.2.4. Garraio egokituko zerbitzua.
 - 2.7.3. Familian esku hartzeko eta bitartekotza-lanak egiteko zerbitzuak.
 - 2.7.3.1. Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.
 - 2.7.3.2. Familiarentzako elkargunea.
 - 2.7.3.3. Familia-bitartekotzako zerbitzu integrala.
 - 2.7.4. Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua.
 - 2.7.5. Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoiei eta desgaitasuna duten pertsonen laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.
 - 2.7.6. Familia-harrera eta adopzioa sustatzeko eta babesteko zerbitzuak.
 - 2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.
 - 2.7.6.2. Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.
- 3. Prestazio ekonomikoak:
 - 3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzeko edo arintzeko prestazioak:
 - 3.1.1. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak
 - 3.1.2. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa
 - 3.2. Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioak.

- 3.3. Baliabide teknologikoak eskuratzeko prestazioak:
 - 3.3.1. Berreskuratu ezin diren babes-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa.
 - 3.3.2. Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzeak egiteko laguntza ekonomikoa.
- 3.4. Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazioak.
- 3.5. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuen esparruan ezar daitezkeen beste prestazio ekonomiko batzuk.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean adingabeak babesteko aurreikusitako zerbitzuak jasotzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskaintzen dituen zerbitzuetara jo beharko da.

Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari aurreikusitako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eskaintzen dituen zerbitzuetara eta prestazio ekonomikoetara jo beharko da, I. eta II. Eranskinetan aurreikusitako baldintzetan.

3. artikulua.- Zorroaren egitura.

- 1. 2. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako lehen eta bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuak Dekretu honen I. Eranskinean daude zehaztuta eta araututa, honako alderdi hauek adierazita:
 - a) Izena.
 - b) Eskumena, honako hauek bereizita: udal-eskumena, foru-eskumena eta Autonomia Erkidegoko eskumena.
 - c) Definizioa eta helburua.
 - d) Modalitateak, hala badagokio.
 - e) Eskaintzen dituen prestazioak. Dagokionean, honako hauek bereiziko dira:
 - Prestazioa propioak, teknikoak eta teknologikoak.
 - Prestazio osagarriak.
 - Beste sistema batzuen prestazioak.
 - f) Arreta-maila, honako hauek bereizita:
 - Lehen mailako arreta.
 - Bigarren mailako arreta.
 - g) Zerbitzu mota, honako hauek bereizita:
 - Orientazio-zerbitzuak eta eskuratzeko zerbitzuak.
 - Etxez etxeko zerbitzuak.
 - Ostatu-zerbitzuak.
 - Egoitza-zerbitzuak.
 - Eguneko arretarako zerbitzuak.
 - Gaueko arretarako zerbitzuak.
 - Babesteko eta esku hartzeko zerbitzuak.
 - h) Hartzaileak, egoera eta adina adierazita.
 - i) Eskuratzeko baldintzak, honako hauek adierazita: administrazio-baldintzak eta premia-baldintzak.
 - j) Erabiltzailearen parte-hartze ekonomikoa, zerbitzua doakoa den ala baterako ordaintzari lotuta dagoen adierazita.
- 2. 2. artikulua 3. paragrafoan adierazitako prestazio ekonomikoak Dekretu honen II. Eranskinean daude zehaztuta, honako alderdi hauek adierazita:

- a) Izena.
 - b) Eskumena, honako hauek bereizita: udal-eskumena, foru-eskumena eta Autonomia Erkidegoko eskumena.
 - c) Definizioa eta helburuak.
 - d) Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.
 - e) Zenbatekoa.
 - f) Hartzaileak, egoera eta adina adierazita.
 - g) Eskuratzeko baldintzak, honako hauek adierazita: administrazio-baldintzak eta premia-baldintzak.
3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen esparruan hornitzen diren eta artikuluan honen 1 e) paragrafoan adierazita dauden beste sistema batzuen prestazioak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 56.3 artikuluari jarraiki, prestazio horiei dagozkien sistema publikoek finantzatu dituzte, eta, sistema horietan hori aurreikusten bada, erabiltzaileak.

4. artikulua.- Zorroaren helburua.

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren helburua honako hau da: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 2. artikuluan adierazitako eskubide subjektiboari edukia ematea eta eskubide hori mugatzea, eta, horretarako:
 - a) Zerbitzu bakoitza eta, hala badagokio, zerbitzu-modalitateak definitzea, Zorroaren esparruan eskaintzen diren prestazioak zehaztea, prestazio ekonomikoak definitzea eta horien ezaugarri nagusiak finkatzea.
 - b) Zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztien hartzaileak mugatzea eta horiek eskuratzeko baldintzak zehaztea.
2. 1. paragrafoan adierazitako eskubide subjektiboaren mugaketak euskal administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen hornidurari dagokionez duten betebeharra zehazten du; nolana ere, nahitaez hornitu beharreko zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen saretik kanpo, beren jardun-eremuetan herritarren premiei erantzuteko bidezkotzat hartzen dituzten beste zerbitzu eta prestazio ekonomiko batzuk eskaini ahal izango dituzte.
3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zorroan bildutako zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko eskubidea pixkanaka aplikatuko da, erabateko eraginkortasuna lortzen den egunera arte, azken xedapenen arteko lehenean aurreikusitako baldintzetan.

5. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Dekretu hau honako hauei aplikatuko zaie:

- a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatuta, Dekretu honen 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan adierazita eta I. Eranskinean araututa dauden gizarte-zerbitzuei eta, hala badagokio, zerbitzu horiek hornitzeko modalitateei, titulartasun publikokoak direnean nahiz titulartasun pribatu itundukoak, hitzartukoak edo kontratatukoak direnean.

- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatuta, Dekretu honen 2. artikuluko 3. paragrafoan adierazita eta II. Eranskinean araututa dauden prestazio ekonomikoei.

6. artikulua.- Zerbitzuen hornidura eta prestaziorako eskumena.

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 40.3, 41.3 eta 42.4 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, Dekretu honen 2. artikuluan adierazita dauden Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen hornidurak honako eskumen-banaketa honi jarraituko dio:

- a) Eusko Jaurlaritzak bere zuzeneko ekintzaren barnean hartutako honako zerbitzu hauen hornidurarako eskumena izango du:
- Telelaguntza-zerbitzua.
 - Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua.
 - Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua.
 - Familiarentzako elkargunea.
 - Familia-bitartekotzako zerbitzu integrala.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 39.3 artikuluari jarraiki, aurrekoa gorabehera zuzeneko ekintza bat egin ahal izango da etorkizunean, hain zuzen ere beren interes orokorra, izaera eta ezaugarriak, erabiltzaile potentzialen kopurua edo autonomia-erkidegoko prestaziotik lor daitezkeen eskala-ekonomiak direla-eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan modu unitarioan eman behar diren zerbitzuei dagokienez.

- b) Foru Aldundiek bigarren mailako arretarako honako zerbitzu hauek emateko eskumena izango dute:
- Mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua.
 - Eguneko arretarako zerbitzuak edo zentroak:
 - . Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
 - . Arlo okupazionalako zerbitzua edo zentroa.
 - . Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
 - Gaueko harrera-zentroak:
 - . Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zerbitzua edo zentroa.
 - . Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko zerbitzua edo zentroa.
 - Egoitza-zentroak:
 - . Adinekoentzako egoitza-zentroak.
 - . Desgaituentzako egoitza-zentroak.
 - . Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak.
 - . Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-zentroak.
 - . Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

- . Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk.
 - Atsedenerako zerbitzua.
 - Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua.
 - Autonomia babesteko zerbitzuak.
 - . Bizitza independentea babesteko zerbitzua.
 - . Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua.
 - . Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua.
 - . Garraio egokituko zerbitzua.
 - Familian esku hartzeko eta bitartekotza-lanak egiteko zerbitzuak.
 - . Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak.
 - . Familiarentzako elkargunea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bitartez lortzeko moduko arretarako zerbitzuaren modalitatean.
 - Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua.
 - Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeei, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsoneri laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.
 - Familia-harrera eta adopzioa sustatzeko eta babesteko zerbitzuak:
 - . Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.
 - . Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua.
- c) Udalek lehen mailako arretarako honako zerbitzu hauek emateko eskumena izango dute:
- Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua.
 - Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
 - Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
 - Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
 - Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.
 - Eguneko arretarako zerbitzuak.
 - Gaueko harrera-zerbitzuak.
 - Ostatu-zerbitzuak:
 - . Harrera-pisua.
 - . Etxebizitza babestua.
 - . Apartamentu babestuak.
 - . Etxebizitza komunitarioa.
2. Aurreko paragrafoan adierazitako gizarte-zerbitzuak emateko, euskal administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, zuzenean (beren baliabideekin) edota ekimen pribatuak lagunduta (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen V. tituluaren aurreikusitako harreman-formulen bidez) antolatu ahal izango dute zerbitzuen prestazioa.

Aurrekoa ez zaie aplikatuko eskariak lehenengoz jasotzean emandako prestazioei eta kasu-koordinazioari zuzenean lotutako prestazioei, esku-hartzearen oinarritzko prozedura modura –bereziki balioespena, diagnostikoa eta orientazioa–. Izan ere, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 60.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, zuzeneko kudeaketa publikokoak izango dira beti prestazio horiek, lehen mailako arretaren eremuan zein bigarren mailako arretaren eremuan.

3. Halaber, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, euskal administrazio publiko eskudunek beren zerbitzuen prestazioaren edo kudeaketaren ardura hartu ahal izango dute beren gain, ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnei jarraiki.

7. artikulua.- Prestazio ekonomikoen hornidura eta kudeaketarako eskumena.

1. Eusko Jaurlaritzak genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren esparruan ematen den eta pertsonen gizarteratzea eta/edo autonomia erraztera eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzera edo arintzera zuzendutako eta 2. artikulua 3.1 paragrafoan aurreikusitako prestazio ekonomikoen barnean hartuta dagoen ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoaren hornidura eta kudeaketarako eskumena izango du.
2. Foru Aldundiek honako prestazio ekonomiko hauen hornidura eta kudeaketarako eskumena izango dute:
 - a) Laguntzaile pertsonal bat kontratatzeke prestazioa, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzkeo Sistemari txertatuta dagoena, eta pertsonen gizarteratzea eta/edo autonomia erraztera eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzera edo arintzera zuzendutako eta Dekretu honen 2. artikulua 3.1 paragrafoan aurreikusitako prestazio ekonomikoen barnean hartuta dagoena.
 - b) Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioa, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzkeo Sistemari txertatuta eta Dekretu honen 2. artikulua 3.2 paragrafoan aurreikusitako prestazioen barnean hartuta dagoena.
 - c) Baliabide teknologikoak eskuratzeko prestazioak, Dekretu honen 2. artikulua 3.3 paragrafoan aurreikusitako prestazioen barnean hartuta daudenak.
 - d) Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazioa, Dekretu honen 2. artikulua 3.4 paragrafoan aurreikusitakoa, zerbitzuak foru-eskumenekoak direnean. Kasu horietan, prestazio hori Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzkeo Sistemari txertatuko da.
3. Udalek zerbitzu pertsonalei lotutako eta Dekretu honen 2. artikulua 3.4 paragrafoan aurreikusitako prestazio ekonomikoaren hornidura eta kudeaketarako eskumena izango dute, betiere zerbitzu horiek udal-eskumenekoak direnean.

8. artikulua.- Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren eguneratzea

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako Katalogoaren aldaketaren ondorioz baino ezin izango da aldatu, Zorroa Katalogoaren garapena baita. Horren ondorioz, Zorroak ezin izango ditu, berez, Katalogoan bildutako zerbitzuak eta/edo prestazio ekonomikoak kendu, ezta zerbitzu eta/edo prestazio ekonomiko berriak txertatu ere.

2. Aurrekoa gorabehera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa bere esparruan eskainitako zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen modalitateak aldatzearen bidez edota zerbitzu edo prestazio bakoitza definitzen eta bereizten duten elementuak (3. artikuluan aipatutakoak) aldatzearen bidez eguneratu ahal izango da, herritarren premia aldakorretarako etengabeko egokitzea bermatzeko eta, halaber, arreta-formuletan ikusitako berrikuntzak txertatzearen bidez etengabe modernizatzeko aukera errazteko.

Zorroa eguneratu aurretik, zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen aplikazioaren eta garapenaren ebaluazio orokorra egin beharko da, zerbitzu eta prestazio horiek gizarte-errealitatean ikusitako aldaketetara behar bezala egokitu diren zehazteko, eta ebaluazio horrek ondorioztatu beharko du komeni dela ordura arte araututako modalitateak aldatzea, hobeto egokitzeko. Ebaluazio hori lau urtean behin egingo da, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluazioaren esparruan.

Ebaluazio horretan, halaber, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki arreta-modalitate alternatiboak eta berritzaileak garatzeko eta, era horretan, modalitate horiek egokiak, bideragarriak eta Zorroan txertatzeko modukoak diren finkatzeko salbuespen gisa gehienez 2 urteko epe baterako baimendu diren zerbitzu esperimentalen ebaluazioa jaso beharko da.

Ebaluazio horren esparruan, prestazioek eta zerbitzuek emakume eta gizonengan duten eragina eta prestazio eta zerbitzu horietan genero-ikuspegiak duen txertatze-maila aztertuko da, berdintasunerako bidean aurrera egingo dela bermatzeko beharrezkoak diren egokitzeak egin daitezzen, hala badagokio. Era berean, beste ikuspegi batzuek (hala nola sexu-aniztasunaren, kulturartekotasunaren, belaunaldiartekotasunaren, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren ikuspegiak) duten eraginari buruzko analisisia bermatu beharko da ebaluazio horretan.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aparte utzi gabe, laurtekoko ebaluazioaren aurretik edozein euskal administrazio publikok errealitate berriekin, sortzen ari diren gizarte-fenomenoekin edo eskariaren hazkunde masiboarekin zerikusia duten premiei erantzuteko Zorroan zerbitzu edo prestazio ekonomikoen modalitate berriren bat txertatzeko beharra ikusten badu, Zorroa eguneratzea proposatu ahal izango die gainerako administrazioei, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren esparruan eta ezohiko izaeraz.
4. Zorroa 2. paragrafoan aurreikusitako ohiko prozeduraren zein 3. paragrafoan aurreikusitako ezohiko prozeduraren bidez eguneratzeak ez du ekarriko, inondik ere, arretaren kalitatea txikiagotzea edota arreta-mailak murriztea, estaldura-murrizketak zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren eskarian izandako beharakada baten zuzeneko ondorioak direnean izan ezik.
5. Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa Eusko Jaurlaritzak eguneratuko du gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bitartez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 44.3 a) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak Zorroaren eguneratzeari dagokionez hartu nahi dituen erabakiek gaiari lotutako betebeharrak dituen administrazio publikoaren –foru-administrazioaren, Autonomia Erkidegokoaren edo tokikoaren– ordezkartzaren aldeko botoa beharko dute.

Halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren parte-hartzea beharko da Zorroa eguneratzeko, kontsultarako eta parte-hartze sozialerako organo gorena baita. Organo horrek, gainera, Dekretuaren proiektuari buruzko txostena egin beharko du nahitaez.

9. artikulua.- Definizioak.

1. Zerbitzuak:

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak teknikoki eta funtzionalki antolatutako lehen edo bigarren mailako arretarako unitateak dira; gizarte-zerbitzuei lotutako erakunde batek kudeatzen ditu, eta izaera erregular eta iraunkorrarekin dihardute. Zerbitzu horien jarduera zentro batek eskaini ahal izango du, eta, ondorio horietarako, unitate organiko eta funtzional gisa eratuta dagoen, kokapen autonomoa eta identifikagarria duen eta gizarte-zerbitzuen prestazio teknikoak eta/edo teknologikoak (artikulu honen 2. eta 3. paragrafoetan –hurrenez hurren– definitzen diren bezala) eskaintzen edo antolatzen dituen higiezin edo higiezin zati oro hartuko da zentrotzat.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio tekniko eta teknologikoez gain, honako hauek bildu ahal izango dituzte zerbitzuek:

- a) prestazio osagarriak, artikulu honen 4. paragrafoan definituak;
- b) beste sistema batzuen berezko prestazioak, beren arau erregulatuazaleetan definituak.

2. Prestazio teknikoak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 15.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, profesionalen taldeek egiten dituzten jarduerak hartzen dira esku-hartze sozialeko prestazio teknikotzat, baldin eta jarduera horiek Lege horren 6. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako definitutako funtsezko helburu bat edo batzuk lortzera bideratuta badaude eta pertsonen, familien eta taldeen premiei erantzuten badiete.

Esku-hartze sozialeko prestazio teknikoak Sistemaren berezko prestazioak dira, eta Zorroaren zerbitzuen esparruan lortzen dira nahitaez.

Honako hauek izango dira gutxienez (IV. Eranskinean definituta dauden bezala):

- a) Informazioa.
- b) Balioespena.
- c) Diagnostikoa.
- d) Orientazioa.
- e) Bitartekotza.
- f) Etxeko arreta.
- g) Arreta pertsonala.
- h) Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.
 - Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea.
 - Arlo okupazionalako esku-hartzea.
 - Hezkuntza-arloko esku-hartzea.

- Arlo psikosozialeko esku-hartzea.
- i) Lagun egite soziala.
- j) Arreta soziojuridikoa.

3. Prestazio teknologikoak

Prestazio teknologikoak erabiltzaileen eta zaintzaileen autonomia eta gizarteratzea erraztera bideratuta daude. Ildo horretan, bizi diren ingurunerako irisgarritasuna errazten diete pertsona horiei, eta, ahal den neurrian, ohiko bizilekuan bizitzen jarraitzea ahalbidetzen diete autonomia-defizita duten pertsoneri.

Prestazio teknologikoak Sistemaren berezko prestazioak dira, eta Zorroaren zerbitzuen esparruan eta 2. artikulua 3.3 paragrafoan aurreikusitako prestazio teknologikoak eskuratzeko prestazio ekonomikoen esparruan lortzen dira nahitaez.

Prestazio horien artean, honako modalitate hauek bereiz daitezke:

- a) Laguntza teknikoak edo babes-produktuak; zehazki, autonomia-defiziten bat duen pertsona batek erabilitako eta defizit horri aurrea hartzera edo defizit hori konpentsatu, arindu eta desagerraraztera zuzendutako produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro hartuko da halakotzat.

Babes-produktuak honako hauek izango dira:

- Berreskuragarriak, onuradun batzuek segidan erabili ahal izateko eta leku batetik bestera garraioarenaz bestelako kosturik gabe lekualdatzeko modukoak direnean.
- Berreskuraezinak, beren ezaugarriak direla-eta eskualdatu ezin direnean eta, beraz, onura eskatzaile bakar bati edo, hala badagokio, aldi berean hainbati dakarkienean.

Babes-produktuak emateko prestazioaren barruan, informazioa eta produktuak erabiltzeko entrenamendua sartuko dira.

- b) Ingurune fisikorako egokitzea; zehazki, etxebizitza erabiltzailearentzat irisgarria izatea eta etxebizitza barrutik egokitzea ahalbidetuko duen aldaketa oro hartuko da halakotzat.
- c) Mugikortasun-arazoak dituzten pertsoneri lehen zein bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuen zentroetara (eta, bereziki, eguneko eta gaueko zerbitzu eta zentroetara) iristeko aukera erraztera zuzendutako garraio egokitua.

4. Prestazio osagarriak

Dekretu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 14.5 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ostatuari, mantenuari, arropa-garbitzari, garbiketari orokorrari eta garraioari lotutako prestazioak hartzen dira prestazio osagarritzat, garraioaren kasuan gizarte-zerbitzuen zentroetara iristeko aukera erraztera zuzendutako garraio egokitua (aurreko 3. puntuko c) idatz-zatian aurreikusitakoa) denean izan ezik.

5. Prestazio ekonomikoak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zorroan bildutako prestazio ekonomikoak une jakin batzuetan edo aldizka pertsoneri nahiz bizikidetz-unitatei ematen zaizkien diru-kopuruak dira, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtsezko helburuak lortzera edo beste sistema eta politika publiko batzuenak ere badiren helburuak lortzera bideratuta daude, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 16.1 artikuluan adierazitakori jarraiki.

II. KAPITULUA.- ZERBITZUAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK LORTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK.

10. artikulua.- Baldintza orokorrak.

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak bete beharko dituzte pertsonak.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko, halaber, honako baldintza hauek bete beharko dituzte pertsonak:
 - a) Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko espezifikoki eskatutako administrazio-baldintzak, Dekretu honen 11. artikuluan adierazitakoak.
 - b) Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko espezifikoki eskatutako premia-baldintzak, Dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak.
3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin bat lortzeko, beharrezkoa izango da zerbitzu edo prestazio ekonomiko hori egokia izatea pertsonaren edo familiaren premiei erantzuteko, eta egokitasun hori justifikatu egin beharko da erreferentziatzko profesionalaren preskripzio teknikoan, 14.3 artikuluan adierazitako irizpideen aplikazioan oinarrituta.

11. artikulua.- Administrazio-baldintzak.

Zerbitzu edo prestazio ekonomiko jakin bat lortzeko, zerbitzu edo prestazio horretarako espezifikoki aurreikusten diren administrazio-baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eskuragarri izateko eskatutako titulartasun-baldintzez gain. Zehazki, honako hauei dagokienez aurreikusten diren administrazio-baldintzak izango dira:

- a) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aldeztutako aurretik erroldatzeko aurreikusitako aldi gehigarriak, Dekretu honen I. Eranskinan zerbitzu jakin batzuei dagokienez zehaztuak, hala badagokio.
- b) Mendetasunaren aitortzea.
- c) Desgaitasunaren kalifikazioa.
- d) Bizikidetz-egoera eta/edo ahaidetasun-maila.

- e) Adina.
- f) Prezio publikoa ordaintzeko konpromisoa.
- g) Baimena, baliozkotasun juridikoarekin adierazia.

12. artikulua.- Premia-baldintzak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko, pertsonak, familiak edo taldeak I. eta II. Eranskinetan hurrenez hurren zerbitzu edo prestazio bakoitzerako zehaztutako premia-baldintzak bete beharko ditu. Zehazki, honako baldintza hauei dagokienez zehaztutako premia-baldintzak izango dira:

- a) Honako egoera hauek izatea:
 - mendetasuna, babesgabetasuna edo bazterkeria jasateko arrisku-egoera;
 - mendetasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoera aitortua;
 - gizarte-zerbitzuek erantzuteko moduko gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera.
- b) Arreta edo babes mota egokia.
- c) Babes edo arreta egokiaren intentsitatea.
- d) Gizarte- eta familia-sareak emandako babesen erabilgarritasuna, hala badagokio.
- e) Bizitokiaren egokitzea pertsonak bertan jarraitzeko edo zerbitzuak behar bezala esku hartzeko, hala badagokio.
- f) Zerbitzua edo prestazioa lortzeko bazterkeriari lotutako ezaugarriarik edo zirkunstantziarik ez izatea.

13. artikulua.- Arriskuaren eta mendetasun, babesgabetasun eta gizarte-bazterkeriako egoeren balioespena.

1. Euskal administrazio publikoek aurreko artikulua a) idatz-zatian zerbitzua edo prestazioa lortzeko baldintza gisa adierazitako arrisku-egoera edo mendetasun, babesgabetasun edo gizarte-bazterkeriako egoera aitortua balioetsi beharko dute tresna teknikoak edo, hala badagokio, horretarako baliozkotutako adierazle eta irizpide teknikoak aplikatzearen bidez.
2. Aurreko paragrafoan adierazitako tresna, adierazle eta irizpide teknikoek honako hauek bereizi beharko dituzte mendetasunaren, babesgabetasunaren eta bazterkeriaren eremuetan:
 - a) Arrisku-egoerak eta arriskurik gabekoak.
 - b) Arrisku-egoerak eta arrisku-maila gainditu duten eta premia-egoera aitortu bihurtu diren egoerak.
3. Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko berdintasuna bermatze aldera, tresna, adierazle eta irizpide tekniko horiek komunak izango dira euskal administrazio publiko guztientzat, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatuko dira.

Mendetasunaren eremuan, nahitaez aplikatu beharko dira Estatuan indarrean dauden balioespen-tresnak, Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren esparruan; nolana ere, Sistema horretan kontuan hartu gabeko mendetasun-arriskuko egoerak Autonomia Erkidegoan ezarritako tresnak, adierazleak edo irizpideak aplikatzearen bidez zehaztu ahal izango dira.

4. Tresna komun horiek Eusko Jaurlaritzak arautuko ditu, erregelamenduzko izaerarekin, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko dituen eskumenak baliatuta, bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan.

14. artikulua.- Zerbitzuaren egokitasuna eta preskripzio teknikoa.

1. Arrisku-egoera baten edo mendetasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoera baten aitorpenak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak egoera horri erantzuteko dituen zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak finkatuko ditu.
2. Aurreko paragrafoan ezarritako moduan finkatutakoen artean lortu ahal izango diren zerbitzu edo prestazio ekonomiko espezifikoa ikusitako premiei erantzuteko egokitasun-mailaren arabera finkatuko dira.
3. Zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak premiei erantzuteko duen egokitasun-maila honako elementu hauen arabera izango da:
 - a) Eskatutako zerbitzu edo prestazio mota zer neurritan dagoen egokituta norberaren eta familiaren egoerara, bizikidetzaren eta harreman-egoerara eta, hala badagokio, etxebizitzaren ezaugarrietara.
 - b) Zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak zer neurritan duen ahalmena beharrezkoa den babes-intentsitatea eskaintzeko.

Zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren egokitasuna finkatzeko, zerbitzu mota batera edo bestera –etxeak, egunekoak, gauekoak, ostatu-zerbitzuak, egoitza-zerbitzuak, esku hartzeak eta babes-zerbitzuak–, edota arreta-maila batera edo bestera –lehen mailakoa eta bigarren mailakoa– bidera dezaketen irizpide komunak aplikatu beharko dira.

Irizpide horiek euskal administrazio publikoen artean adostu beharko dira Euskal Autonomia Erkidego osoan aplikatzeko.

4. Zerbitzuaren edo prestazio ekonomikoaren egokitasuna erreferentziatzeko profesionalaren preskripzio teknikoan jaso beharko da, eta egokitasun hori finkatzeko, eraginpean hartutako pertsonaren edo familiaren baimena eta parte-hartzea beharko da, betiere, ahal den neurrian, adierazten duten lehentasuna kontuan hartuta.
5. Zerbitzu eta/edo prestaziorik egokienak finkatzean, honako irizpide hauek errespetatuko dira:
 - a) Egokia bada, ohiko ingurunean jarraitzeko aukera eman edo erraztuko duten arreta-alternatiba integratzaileagoetara joko da, arreta-eredua zuzentzen duen ikuspegi komunitarioari jarraiki. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008

Legareen 25.1 c) artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, erreferentziatzko profesionalak bere preskripzio teknikoan egoitza-soluzio bat hartzen badu (lehen mailako arretarako ostatu-zerbitzuak zein bigarren mailako arretarako egoitza-zentroak), erabiltzaileak bere ohiko ingurunean jarraitzeko berme handiagoa eman dezakeen arreta-formula bat egokia ez dela justifikatu beharko du.

- b) Zerbitzuak jenerotan emateko aukerari emango zaio lehentasuna, prestazio ekonomikoen gainetik. Erreferentziatzko profesionalak bere preskripzio teknikoan zerbitzua jenerotan emateko aukeraren ordezt zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat emateko soluzioa hartzen badu, hori bezain integratzailea den eta zerbitzuan baino oinarrituta ez dagoen arreta-formula bat egokia ez dela justifikatu beharko du.

III. KAPITULUA.- PROZEDURAZKO XEDAPENAK

15. artikulua.- Araudi aplikagarria

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko administrazio-prozedurak, nolana ere, kapitulu honetan oro har biltzen diren xedapenei eta euskal administrazio publikoek, xedapen orokor eta komun horietara egokituta, beren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko ezartzen dituzten prozedura espezifikoei jarraituko die.

16. artikulua.- Prozeduraren hasiera.

Bi modutan hasi ahal izango da zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura:

- a) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legareen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintzak betetzen dituen eta Zorroaren esparruan estaldura-xede diren kontingentzia edo egoeraren batek eraginpean hartzen duen pertsonak eskatuta. Pertsona horrek zuzenean edota zeharka –haren ordezkariaren bitartez– aurkeztu ahal izango du eskaera.
- b) Ofizioz, administrazio eskudunaren bidez edota agintaritzak judizialak eskatuta, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan:
- Adingabeen babesaren eremuko kasuetan, administrazio eskudunak haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legareen aurreikuspenetara egokituko dira.
 - Babesgabatasun-egoeran dauden helduen kasuan, gizarte-zerbitzuetan eskumena duten administrazioek agintaritzak judizialak eskatuta esku hartu ahal izango dute.

17. artikulua.- Prozedura motak.

Oinarrizko hiru prozedura bereiz daitezke:

- a) Zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura arrunta.
- b) Zerbitzua edo prestazioa lortzeko premiazko prozedura.
- c) Gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeretan jarduteko prozedura.

1. atala.- Zerbitzua edo prestazioa lortzeko prozedura arrunta.

18. artikulua.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bitartez lortzeko aukera.

1. Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (lehen zein bigarren mailako arretarako zerbitzuak) eskuragarri izateko, interesdunek beren bizilekuari dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jo beharko dute.
2. Aurreko paragrafoan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bitartez eskuragarri izateko aurreikusitako aukera ez da beharrezkoa izango gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko zerbitzuak (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluko 3. paragrafoan adierazitakoak eta, kasu bakoitzean, I. Eranskineko fitxetan horrela definitutakoak) lortzeko.

19. artikulua.- Erreferentziako profesional baten balioespena, diagnostikoa eta izendapena.

1. Oinarrizko gizarte-langileak premien lehen balioespena egingo du, balioespen hori Dekretu honen IV. Eranskinean zehazten den baldintzetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema Publikoaren esku-hartzea bidezkoa ote den finkatzeko, eta, bidezkoa bada, premia horiei erantzuteko zerbitzurik eta prestazio ekonomikorik egokienak zein diren finkatzeko.
2. Hasierako balioespen horren ondorioz, honako egoera hauek agertu ahal izango dira:
 - a) Gizarte-langilearen ustez kasuak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzerik behar ez izatea. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango espediente bat irekitzea; nahikoa izango da egindako kontsulta eta, hala badagokio, aurkeztutako premiari erantzuteko arreta-sistematik egokienera bidali izana jasoaraztearekin.
 - b) Gizarte-langilearen ustez planteatutako premiari jarraipenik behar izango ez duen esku-hartze puntual baten bidez erantzun ahal izatea. Kasu horretan, eskaera-orri bat emango dio interesdunari, hark bete eta sina dezan, eta dagokion dokumentazioa erants dezan. Ondoren, bidezko esku-hartzea egingo du eta, amaitu ondoren, amaiera emango dio espedienteari.
 - c) Gizarte-langileak jarraipena behar izango duen esku-hartze baten premia dagoela egiaztatzea. Kasu horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, diagnostiko bat egitea ekarriko duen jardun-prozedura bati emango zaio hasiera.
3. Aurreko paragrafoaren c) idatz-zatian aurreikusitako diagnostikoa egitea erreferentziako profesionalaren ardura izango da.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, erreferentziako profesionala Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte-langilea izango da, esku-hartzearen izaera dela-eta erreferentziako funtzioa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko edo Udalaren Gizarte Zerbitzuetako beste profesional baten esku uztea egokiagoa dela ikusten denean izan ezik.

Beharrezkoa den babesaren intentsitate-maila kontuan hartuta komeni denean, erreferentziako profesionalak bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuetako profesional baten esku utzi ahal izango du kasu baten ardura, eta horrek, handik aurrera, kasu hori koordinatzeko funtzioa eta jatorrizko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan erreferente gisa jardun zuen profesionalari izan duen bilakaeraren berri emateko konpromisoa hartuko du bere gain, profesional hark beste arreta-eremu batzuetan erabiltzailearekin edo familiarekin harremanetan jarraitzen duenean bereziki.

4. Diagnostikoa egiteko, bidezkotzat hartzen dituen tresna teknikoak, adierazleak edo irizpideak aplikatuko ditu, eta, mendetasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoera bat dagoen zehazteko adituen balioespena behar bada, bidezko balioespen-eskaera – eskatzaileak behar bezala betea eta sinatua– eta bidezko dokumentazioa aurkeztuko dio mendetasuna, desgaitasuna, bazterkeria eta babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzu eskudunari. Kasu horietan, beharrezkotzat hartzen badu, ikusitako premiei erantzuteko lehen mailako arretarako baliabiderik egokienak antolatuko ditu aldi baterako.
5. Balioespena eta diagnostikoa egiteko prozedura hori pertsonak, familiak edo, hala badagokio, hura legez ordezkatzan duen pertsonak edo erakundeak baimena eman ondoren eta, ahal den heinean, horren parte-hartzearekin aplikatu beharko da.

20. artikulua.- Arreta pertsonalizatuko plan bat lantzea.

1. Diagnostikoa kontuan hartuta komeni denean, erreferentziako profesionalak arreta pertsonalizatuko plan bat landuko du, ahal den heinean pertsona edo familia erabiltzailearen parte-hartzearekin.
2. Plan hori pertsonarengan oinarrituta egongo da, eta honako elementu hauek bilduko ditu:
 - a) Premiei erantzuteko lehen mailako eta/edo bigarren mailako zerbitzurik eta/edo prestazio ekonomikorik egokienak lortzeko preskripzioa, 13. artikuluan aurreikusitako tresnak, adierazleak edo balioespen-irizpideak eta 14. artikuluan aurreikusitako egokitasun-irizpideak aplikatzearen ondoriozko egoeraren ezaugarriak eta berezitasunak kontuan hartuta.
 - b) Gizarte- eta familia-arloko arreta-sareak hala badagokio bere gain hartzen dituen funtzioen deskribapena.
 - c) Esku-hartzeak behar bezala egokitzeko ardura duen erreferentziako profesionalaren izena.
 - d) Premiak eta arreta pertsonalizatuko plana berrikusteko aurreikusitako eguna, horien egokitze-maila egiaztatzeko.

- e) Hala badagokio, arreta pertsonalizatuko planean aurreikusitako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak emateko eskaera edo eskaerak ebatzi ondoren, erabiltzaileak zerbitzu bakoitzean duen parte-hartze ekonomikoaren zenbatekoa adieraziko da.
- f) Hala badagokio, beste sistema edo politika publiko batzuen zerbitzu eta prestazioetara bidaltzeko eta/edo horiekin koordinatzeko premiak adieraziko dira.

21. artikulua.- Zerbitzu eta prestazio ekonomikoen eskaera.

1. Arreta pertsonalizatuko plana diseinatu ondoren, bertan aurreikusitako zerbitzu eta/edo prestazio ekonomikoen eskaera formalizatu beharko da. Horretarako, zerbitzu eta prestazio bakoitzari dagokion formularioa bete eta sinatu, eta eskatzailearen bizilekuko udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan aurkeztu beharko da.

Aurrekoa ez da aplikatuko ofizioz jarduten den kasuetan.

2. Eskaerarekin batera, euskal administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko xedapen erregulatzaileretan bideratzeko eta ebatzeko aurreikusten duten dokumentazioa aurkeztu beharko da.
3. Eskaera egiaztatzeko eta zuzentzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako administrazio-prozedurari jarraituko zaio.

22. artikulua.- Ebazpena.

1. Eskatutako zerbitzuaren hornidurarako eskumena duen administrazioak (udal-administrazioak, foru-administrazioak edota Autonomia Erkidegokoak) ebazpena eman eta eskatzaileari jakinarazi beharko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean oro har aurreikusitako epeetan. Ebazpena arrazoitu egin beharko da.

Epe horiek ez zaizkie aplikatuko beren izaeragatik berehalako arreta ematera bideratuta dauden zerbitzuei.

Epeak zenbatzean, eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik espedientea etenda egon den aldia ez da kontuan hartuko.

2. Autonomia Erkidegoko administrazioak edo foru-administrazio batek emandako ebazpen baten kasuan, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari ere jakinarazi beharko zaio ebazpenaren edukia eta, emakidaren kasuan, zerbitzua baliatzeko eguna.

23. artikulua.- Atzera egitea.

1. Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduraren edozein unetan, eta ebazpena eman aurretik, eskatzaileak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza duen pertsonak eskaeran atzera egin ahal izango du bere borondatea jasoarazteko aukera ematen duen edozein modutan, aurrez aurre edo bide telematikoz uko egiteko borondatearen berri izan duen funtzionarioak izenpetutako eginbidea barne.

2. Atzera egitea formalizatu ondoren, eskaera artxibatu eta espedienteari amaiera emango zaio, ebazpena eman ondoren.
3. Halaber, eskaeran atzera egin dela ulertuko da eta espedientea artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, honako kasu hauetan:
 - a) Eskaera egin duen pertsonari aurkezpenean egindako akatsak zuzentzeko errekerimendua egiten bazaio, eta horretarako finkatutako epean zuzentzen ez baditu.
 - b) Prestazioa edo zerbitzua lortu nahi duen pertsonak balioespina eta/edo diagnostikoa egiteko beharrezkotzat hartzen diren jardueretako edozeinetan parte hartu nahi ez badu.

24. artikulua.– Uko egitea.

Alderdi batek eskatuta hasitako prozeduran zerbitzu edo prestazio ekonomiko bat emateko ebazpena ematen bada, eskatzaileak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak bere eskubideari uko egin ahal izango dio bere borondatea jasoarazteko aukera ematen duen edozein modutan, aurrez aurre edo bide telematikoz uko egiteko borondatearen berri izan duen funtzionarioak izenpetutako eginbidea barne.

25. artikulua.- Zerbitzua eteteko edo prestazio ekonomikoa bertan behera uzteko arrazoiak.

1. Oro har, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko baterako eskubidea aitortu edota erabiltzailearen izaera eskuratu ondoren, honako arrazoi hauengatik utzi ahal izango da bertan behera eskubide hori:
 - a) Erabiltzailearen heriotza.
 - b) Erabiltzaileak uko egin izana, Dekretu honen 24. artikuluan xedatutakoari jarraiki.
 - c) Emakidari buruzko ebazpenean zerbitzurako finkatutako epea igaro izana.
 - d) Zerbitzua edo prestazioa lortzeko eskatutako baldintza orokorrak edo espezifikokoak gerora bete ez izana.
 - e) Dagokion zerbitzuari edo prestazio ekonomikoari dagokionez espezifikoki aurreikusitako bazterkeria-arrazoiren bat gerora agertu izana.
 - f) Onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri edo Lurralde Historiko batera edota Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora lekualdatu izana.
 - g) Dagokion prezio publikoa ordaindu ez izana.
2. Eskubidea erabiltzeko aukera aldi baterako eten ahal izango da, zerbitzuen erabiltzailei edo prestazio ekonomikoen onuradunei egotz dakizkiekeen arau-hauste oso larriengatiko zehapen-kasuetan (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 94.5 artikuluan aurreikusitakoetan, hain zuzen ere).

26. artikulua.- Administrazio-errekurtsoak eta errekurtso judizialak.

1. Zerbitzu edo prestazio ekonomiko bat eman, ukatu, aldatu edo bertan behera uzten duten ebazpenen aurka bidezkoa den errekurtsoa (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututakoa) jarri ahal izango zaio ebazten duen administrazioari hilabete bateko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.
2. Emateko, ukatzeko, aldatzeko edo bertan behera uzteko prozeduren ebazpenen eta aurreko paragrafoan adierazitako berraztertze errekurtsoaren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari bi hilabeteko epean, jarritako berraztertze errekurtsoaren ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoari jarraiki.

2. atala.- Zerbitzua edo prestazioa premiaz lortzeko prozedura.

27. artikulua.- Zerbitzua edo prestazioa premiaz lortzeko egoerak.

1. Prozedura arruntean baino bizkorrago jardun beharra dakarren lehentasuneko arreta eskatzen duten egoeretan, zerbitzua emango da dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposatuta, betiere prozedura arruntean aurreikusitako jardun guztiak egin ondoren (adituen balioespena barne), prozedura horretan aurreikusitakoari jarraiki espedientea bideratzeko aukera aparte utzi gabe.
2. Adingabeen babesgabetasun-egoeren aurrean, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta hori garatzen duen araudian xedatutakoari jarraituko zaio.
3. Emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean, etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko indarrean dagoen erakundeen arteko Akordioan edo hori ordezkatzeko duen tresna konbentzionalean edo araudian aurreikusitakoari jarraituko zaio.

28. artikulua.- Behin-behinekotasuna.

1. Zerbitzua edo prestazioa premiaz lortzeko prozedura aplikatzen den kasuetan, zerbitzua aldi baterako emango da.
2. Zerbitzua premiaz lortzeko aukera ematen duen ebazpena, edonola ere, lortzeko baldintzen betetzea berrestearen baldintzapean emango da, arriskua edota mendetasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoera finkatzeko adituen balioespena barne. Balioespen horri, nolana ere, lehentasuna emango zaio, eta beste balioespen-eskaera batzuen aurretik egingo da.

Zerbitzua erabiltzen hasi ondoren zerbitzua lortzeko baldintzen bat bete ez dela egiaztatzen bada, eskubidea bertan behera geratuko da eta zerbitzua utzi behar izango da.

3. Aldi baterako emandako zerbitzuaren arretaren kostua behin betiko espedientea bideratu ondoren pertsonari edo familiari arreta eskaintzeko eskudun suertatzen den administrazioak finantzatu du. Baldintzen bat betetzen ez dela egiaztatzen bada eta dagokion zerbitzua utzaraztea bidezkoa bada, emandako arretaren kostuaren finantzaketa hornidura egin duen administrazioaren ardura izango da.

3. atala.- Gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoerarako prozedura.

29. artikulua.- Lortzeko bidea.

1. Gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeretan, Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren bitartez jo ahal izango da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara. Jardunak eta esku-hartzeen denbora zehazteko, Dekretu honen I. Eranskineko 2.6 fitxan aurreikusitakoari jarraituko zaio.
2. Aurrekoaren ondorioetarako, aurreikusita ez dagoen eta gaitasun pertsonalak, bizirauteko baliabideak eta bitartekoak, gizarte- eta familia-arloko harremanak edo sareak eta segurtasuna eraginpean hartzen eta konprometitzen dituen gertakari batek eragindako egoera hartzen da gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoeratzat. Egoera horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen dira, eta berehalako eta ezinbesteko esku-hartze bat behar dute egoerak okerrera egin ez dezan eta/edo kalte handiagorik sor ez dezan.
3. Babesgabetasun Egoeran dauden Haur eta Nerabeentzako Informazio Zerbitzuak edo Etxeko Indarkeriaren edo Sexu Erasoen Biktima izan diren Emakumeentzako Euskal Informazio eta Arreta Zerbitzuak gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera bat ikusten duen kasuetan, Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuari jakinaraziko dio berehala, hark esku hartzeko prozedura abian jar dezan.

4. atala.- Arreta-mailen arteko deribazioa

30. artikulua.- Lehen mailako arretaren eta bigarren mailakoaren arteko deribaziorako protokoloak.

1. Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak baliatuta, deribazio-protokoloak diseinatuko ditu honako kasu hauetarako:
 - a) Lehen mailako arreta emateko eguneko zerbitzu, gaueko zerbitzu edo egoitza-zerbitzu batean zaindutako pertsona baten premien areagotzea dela-eta pertsona hori bigarren mailako arretarako zerbitzu batera lekualdatu behar denean.
 - b) Bigarren mailako arreta emateko zerbitzu batean zaindutako pertsona batengan ikusitako hobekuntza dela-eta pertsona hori lehen mailako arretarako zerbitzu batera lekualdatzea komeni denean.

- c) Gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko egoera baten ondorioz pertsonak edo familiak egoera horri aurre egiteko esleitutako ostatuan normala baino denbora luzeagoan egon behar duenean, 29. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Lekualdaketaren egokitzea ezartzen duten egoeren eta arreta-premien aldaketak egiaztatu egin beharko dira 13. artikuluan aurreikusitako tresnak, adierazleak eta balioespen-irizpideak eta 14. artikuluan aurreikusitako egokitasun-irizpideak aplikatzearen bidez.

2. Arreta maila batean ematea egokiagoa denean beste arreta-mailako eguneko zerbitzuetan, gaueko zerbitzuetan edo egoitza-zerbitzuetan ez jarraitzeko eta, horri lotuta, plazen luzaroko okupazio desegokia saihesteko, aurreko paragrafoan adierazitako zirkunstantziak agertzen direnean lekualdaketa horiek gehienez ere 6 hilabeteko aldi batean egiteko aukera errazten duten irizpideak ezarriko dituzte protokolo horiek.
3. Protokolo horiek, halaber, konpentsazio ekonomikorako formula bat izan beharko dute, arreta bere zerbitzu-sarean eman beharko lukeen administrazioak arreta benetan ematen ari den administrazioaren kostua finantzatzeko duela bermatzera bideratua, hain zuzen ere.

31. artikulua.- Beste sistema publiko batzuekiko deribazio- eta koordinazio-protokoloak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 45.2 b) artikuluan ezarritakoari jarraiki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta gizarte-ongizatea lortzera bideratutako beste sistema edo politika publiko batzuen arteko lankidetzeta eta koordinazioa antolatuzko, jardunen koherentzia eta baliabideen, informazioaren eta jakintzen aprobetxamendu arrazionalagoa eta eraginkorragoa bermatuko duten baterako tresnak eta protokoloak arbitratuko dituzte euskal administrazio publikoek.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehen.*- Erabiltzailearen parte-hartze ekonomikoa finkatzeko irizpide komunen arautzea.**

Dekretu honen I. Eranskinean araututako zerbitzu batzuen kasuan aurreikusitako baterako ordainketa, edonola ere, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan ekonomikoki parte hartzeko irizpide orokorreari jarraiki eta euskal administrazio publikoek irizpide orokor horiei dagokienez ezartzen dituzten prezio publikoei buruzko arauari jarraiki finkatu beharko da.

***Bigarrena.*- Arriskua eta premia-egoerak mugatzeko tresna komunak.**

13. artikuluan arrisku-egoeren eta premia-egoera aitortuen mugaketari dagokionez adierazitako tresnak, adierazleak eta irizpide teknikoak eta komunak Eusko Jaurlaritzak landu eta arautuko ditu gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak baliatuta. Erregulazio hori Dekretu hau indarrean hasi baino lehen jarri beharko da indarrean.

***Hirugarrena.*- Arreta-mailen arteko deribazio- eta koordinazio-protokoloak.**

30. artikuluan arreta-mailen arteko deribazioari eta koordinazioari dagokienez adierazitako protokoloak Eusko Jaurlaritzak landu eta arautuko ditu gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatzeko eskumenak baliatuta. Erregulazio hori Dekretu hau indarrean hasi baino lehen jarri beharko da indarrean.

Laugarrena.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta gizarte-ongizatera bideratutako beste sistema eta politika publiko batzuen arteko deribazio- eta koordinazio-protokoloak.

31. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta gizarte-ongizatera bideratutako beste sistema edo politika publiko batzuen arteko deribazioari eta koordinazioari dagokionez adierazitako protokoloak Eusko Jaurlaritzak landu eta arautuko ditu inplikaturako sailen bidez eta, hala badagokio, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta, urte leko epean, Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Zerbitzu esperimentalak.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraiki, interes orokorra kontuan hartuta eta arreta-modalitate alternatiboen eta berritzaileen garapena ahalbidetzeko xedez, Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal administrazio publikoekin lankidetzan, zerbitzu eta zentro esperimentalak baimendu ahal izango ditu, salbuespen gisa eta bi urteko epe batez gehienez.

Epe hori igaro ondoren, ebaluazio kualitatibo batean oinarrituta arreta-modalitatea alternatiba egokia eta bideragarria dela ikusten bada, bidezko baldintza materialak, baldintza funtzionalak eta langile-baldintzak arautu beharko dira.

Seigarrena.- Malgutzea.

Euskal Administrazio Publikoek, beren kabuz edo elkarren artean adostuta, zerbitzuak lortzeko eta horietan irauteko baldintzak eta horietarako aurreikusitako prestazio teknikoak malgutu ahal izango dituzte, betiere malgutze hori etengabeko arreta eta ingurune komunitarioan integratuago dauden arreta-alternatibetan jarraitzeko aukera erraztera bideratuta badago, eta betiere egokia bada zaindutako pertsonaren premiei eta, ahal den neurrian, lehentasunei erantzuteko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Aplikazio progresiboa.

1. Dekretu honek araututako Zorroan jasotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubideak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako Sistema horren unibertsalizaziorako epea amaitzen den egunetik aurrera izango du erabateko eraginkortasuna.

2. Dekretu hau indarrean jartzen den egunaren eta aurreko paragrafoan aurreikusitako erabateko eraginkortasunaren egunaren artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazioetarako eskubidearen eraginkortasuna pixkanaka eta mailaz maila gauzatuko da, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak adosten dituen irizpideei jarraiki.

Dekretu hau indarrean jartzen den egunaren eta aurreko paragrafoan aurreikusitako erabateko eraginkortasunaren egunaren artean, eskatzaileak eskatutako zerbitzuak eta/edo prestazio ekonomikoak lortzeko duen eskubidea aitortuko dute euskal administrazio publikoek, betiere bidezko baldintzak betetzen badira.

Aurrekoa gorabehera, administrazio-ebazpenetan aitortutako eskubidea kasu bakoitzean dagokion egunetik aurrera izango da eraginkorra, paragrafo honen hasieran adierazitako irizpide komunak kontuan hartuta.

3. 2. paragrafoan aurreikusitakoa eskatzailearentzat autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen azken xedapenen arteko lehenean jasotako egutegia baino onuragarriagoa denean baino ez zaio aplikatuko Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren esparruan aurreikusitako zerbitzuei eta prestazio ekonomikoei.

Bigarrena.- Ordezko erregimena

1. Dekretu honen I. Eranskinean bildutako zerbitzuen ezaugarriei dagokienez, eranskin horretan esanbidez aurreikusi gabekoan zerbitzu bakoitza arautzen duen Autonomia Erkidegoko araudiari jarraituko zaio. Prestazio ekonomikoen ezaugarriei dagokienez, II. Eranskinean aurreikusi gabekoan prestazio horiek arautzen dituzten Autonomia Erkidegoko edo foru-izaerako xedapen arau-emailei jarraituko zaie.
2. Zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukerari dagokionez, Dekretu honetan esanbidez aurreikusi gabekoan euskal administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren beren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko onartzen duten araudiari jarraituko zaio. Edonola ere, araudi hori Zorroan bildutako aurreikuspenetara egokitu beharko da. Halakorik ezean, prozedura-arloan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako arauari eta horiekin bat eginik oro har aplikatu beharreko indarreko lege-xedapenei jarraituko zaie.

Hirugarrena.- Zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen izena.

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak eraginpean hartzen dituzten eta udalek, foru-aldundiek edo Autonomia Erkidegoak onartzen dituzten xedapenen terminologia Dekretu honetan zerbitzu eta prestazio ekonomiko horiek eta, hala badagokio, horien modalitateak aipatzeko erabilitako izenetara egokitu beharko da.
2. Euskal Administrazio publikoek, halaber, indarrean dauden xedapenak aldatu beharko dituzte horietan zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak aipatzeko izenak Dekretu honetan erabilitakoekin bat ez datozenean. Era horretan, hobeto identifikatu ahal izango dira

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eskuragarri izateko eskubidearen erabileraren esparruan.

Laugarrena.- Zerbitzuei eta zentroi buruzko araudiaren indarraldia.

Zorroaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak arautzen ez diren artean, indarrean jarraituko dute gaur egun indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintza materialak, baldintza funtzionalak eta langile-baldintzak, hartzaileei dagokienez izan ezik, Zorroan aurreikusitakora egokituko baitira horiek.

Aurrekoa Zorroan bildutako zerbitzuen izena aurretik indarrean zegoenaren desberdina denean ere aplikatu beharko da. Horrela, beraz:

- a) Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (maiatzaren 31ko 125/2005 Dekretuak eta urriaren 10eko 195/2006 Dekretuak aldatua) Dekretu honetan adinekoentzat zuzendutako ostatu-zerbitzuei eta egoitza-zerbitzu eta -zentroi aplikatuko zaie.
- b) Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua Dekretu honen 2.4.4 fitxan araututako adingabeentzako egoitza-zentroi aplikatuko zaie.
- c) Etxeko eremuan tratu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretua 1.9.1 fitxan aurreikusitako harrerapisuei (indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretara zuzenduta daudenean) eta etxean tratu txarren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroi aplikatuko zaie (pisu eta zentro horiek Dekretu honen 2.4.6 fitxan aurreikusita daude).

Bosgarrena.- Erregelamendu bidezko garapena

Dekretu hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari.

Seigarrena.- Indarrean hastea

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

I. ERANSKINA.- GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN ZERBITZUAK ARAUTZEA

Eranskin honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartutako zerbitzu guztien arautzea dago jasota, fitx-formatuan. Fitxen zenbakikuntza bat dator Dekretu honen 2. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan jasota dagoen zerbitzuen zenbakikuntzarekin, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan jasota dagoen Katalogoaren zenbakikuntzarekin.

1.1. Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Udalarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzua Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dute, eta honako funtzio hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen honako alderdi hauei buruzko informazioa ematea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak: <ul style="list-style-type: none"> . zer premia eta egoerari erantzuten dieten; . nori zuzenduta dauden; . lortzeko baldintzak; . lortzeko prozedurak; . hala badagokio, aplikatutako prezio publikoa; . eskaintzen duten arretaren intentsitatea; . hainbat prestazio eta zerbitzu konbinatzeko aukera; . administrazio arduraduna; . beste edozein informazio baliagarri. • Beren eskubideak eta betebeharrak, premien balioespen bat eta, hala badagokio, diagnostiko bat eta arreta pertsonalizatuko plan bat izateko eskubidea bereziki azpimarratuta. • Eskaeraren bilakaera. - Lehen ebaluazio orokor baten bidez premiak balioestea eta, hala badagokio, Mendetasuna, Desgaitasuna, Bazterkeria eta Babesgabetasuna Balioesteko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuari adituen balioespen bat eskatzea. - Balioespenean oinarrituta jarraipena behar duen esku-hartze bat beharrezkotzat hartzen den kasuetan, pertsonen gizarte-premiei dagokienez duten egoeraren diagnostikoa egitea, honako parametro hauei jarraiki: autonomia/mendetasuna, behesa/babesgabetasuna, gizarteratzea/bazterkeria, onarpena/parte-hartzea. Ahal den heinean, interesdunek eta horien babes-sareek parte hartzea komeni da. - Pertsona edo pertsonak prestazio ekonomikorik edo zerbitzurik egokienera edo, hala badagokio, prestazioen eta zerbitzuen arteko konbinaziorik egokienera bideratzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan pertsona horien premiei erantzuteko eta, bidezkoa izanez gero, beste arreta-sistema batzuen sistemetara bidaltzeko. - Diagnostikoa kontuan hartuta komeni denean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak aplikatzeko moduko arreta pertsonalizatuko plan bat lantzea, erabiltzaileen parte-hartzearekin. - Arreta pertsonalizatuko planaren kudeaketa bere gain hartzea eta, ildo horretan, kasuko erreferentziazko profesionala izatea, inplikaturako beste sistema eta agente batzuekin koordinatzea, arreta pertsonalizatuko planean aurreikusitako jardunak eta esku-hartzeak abian jartzea, eta horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa egitea. - Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko aukera antolatzea bideratutako izapidetze-, kudeaketa- eta koordinazio-funtzio guztiak egitea. ■ Zerbitzuaren helburu nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eskuragarri izateko aukera informazioarekin erraztea eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bidaltzea da. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Premien balioespena/ebaluazioa ■ Diagnostikoa ■ Orientazioa ■ Lagun egite soziala
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Eskuratzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Biztanleria osoa
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Administrazio-baldintzarik gabe, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluari jarraiki.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Diagnostikoari, orientazioari eta lagun egite sozialari lotutako prestazioak balioespenetik esku-hartzeak jarraipena behar duela ondorioztatzen den kasuetan baino ez dira lortuko.
Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa	Doako zerbitzua	

1. 2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxez etxeko laguntza-zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxez etxeko laguntza-zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaerako zerbitzu bat da, eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen erabiltzaileari bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion arreta pertsonalerako eta/edo etxeko arretarako laguntza bat eskaintzea eta, era horretan, isolamendu-egoerak saihestea du xede. ▪ Honako helburu nagusi hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonalari eustea edo autonomia hori hobetzea, autonomiaren nariadurari aurrea hartzea eta autonomiaren galera konpentsatzea, eta zaintza pertsonalerako beharrezkoak diren eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egitean eta/edo elikadurari, arropari, garbiketari eta txukuntasunari lotutako eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egitean laguntzea edo ordezkatzeta (zeregin horiek egiteko eta etxea antolatzeko beharrezkoak diren trebetasunak eskuratzeko entrenamendua barnean hartuta). - Pertsonari bizilekuan bizi-kalitate onargarri batekin ahalik eta denbora gehien jarraitzeko aukera ematea, eta ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzeko aukera atzeratzea edo saihestea. - Erabiltzaileen eta zaintzaileen segurtasun-sentimendua sendotzea. - Erabiltzailearen gizarte- eta familia-arloko babes-sarea osatzen duten zaintzaileei babesa eskaintzea eta arreta-zereginaz partzialki liberatzen laguntzea, garapen pertsonal, profesional eta sozialerako baldintza egokiak izan ditzaten. - Erabiltzailea zaindu ohi duen zaintzailea aldizka ordezkatzeta (hura aldi batean falta denean). - Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea behar dezaketen premia-egoerak detektatzea. 	
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxez etxeko laguntza-zerbitzua bi elementutan egituratuko da: <ul style="list-style-type: none"> - 1. elementua. Etxean emandako arretaren egokitasuna in situ gainbegiratzeko baliabidea; gainbegiratzeko horren maiztasuna eta intentsitatea hainbat faktoreren arabera izango da, eta, bereziki, honako hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • onuradunaren eta/edo bizikidetz-unitatearen egoera; • arreta emateko aukeratutako modua, 2. elementuaren kasuan aurreikusitakoa kontuan hartuta. Udalen oinarriko gizarte-zerbitzuek nahi duten bezala antolatuko dute gainbegiratzeko baliabide hori, Oinarriko Gizarte Zerbitzuaren, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko taldearen edota horretarako itundutako erakundearen bidez. - 2. elementua. Etxean arreta emateko baliabide bat da. Bi modutan antola daiteke: <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzua jenerotan ematearen bidez. • Zerbitzuari lotutako prestazio bat ematearen bidez, erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan eta mugekin. Prestazio horren bidez, etxez etxeko laguntza ematen duten erakundeek edo kualifikazioa eta esperientzia egiaztatua duten profesional autonomoek eskaintako arreta pertsonaleko eta etxeko arretako zerbitzuak eskuratu beharko ditu onuradunak. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa ▪ Jarraipen-balioespena ▪ Etxeko arreta ▪ Arreta pertsonala
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Etxez etxeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak ▪ Mendetasun aitortua duten pertsonak (I., II. eta III. graduak).
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak betetzea. ▪ Mendetasun-arriskua edo mendetasun-egoera aitortuta izatea. ▪ Mendetasun-arriskuan dauden pertsonen kasuan, eskaera egiten den egunean zerbitzua eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta eskaera egin aurreko urtean ere bertan erroldatuta egon izana. ▪ Arreta txandakatzen den kasuetan, zaintzaileari eskatuko zaio 12 hilabete lehenagotik erroldatuta egoteko baldintza.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizilekuan (norberaren bizilekuan zein zaintzaile nagusi gisa diharduen senitarteko baten bizilekuan) edota lehen mailako arretarako ostatu batean bizitzea. ▪ Erabiltzaileari bizitzen jarraitzea eragozten edo zailtzen ez dion egoera batean dagoen eta erabiltzailearentzat berarentzat eta etxez etxeko langileentzat arriskurik ez dakarren bizileku bat izatea. ▪ Eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak eta/edo jarduera instrumentalak egiteko babesa eskatzea. ▪ Beharrezkoa izanez gero, ELZren prestazioarekin batera bizilekuan baldintza egokietan jarraitzeko babes nahikoak izatea. ▪ Osasun-erakundeetako laguntza jarraitua eskatzen duen osasun-egoera bat ez izatea. ▪ Gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat edo buruko gaixotasun edo gaixotasun psikiatriko bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea. ▪ Jokabide-nahasterik ez izatea, edota etxez etxeko langileentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea.

1. 2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua

Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua
--	--

1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.

Izena	Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	
Eskumena	Udalarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzua gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean babesteko harreman-prestazio indibidual, familiako edo taldeko batzuetan datza. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko eta familiako hezkuntza) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) gara daitezke. <p>Esku-hartze horiek honako alderdi hauetara bideratuta egongo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - ohitura, portaera, pertzepzio, sentimendu eta jarrera desegokiak beste egoki batzuekin ordezkatzeko aukera ematera; - autonomiaz moldatzea, gizarteratzea eta familia- eta komunitate-inguruneko bizikidetzaren egokia bultzatuko duten gaitasun pertsonalak, familiakoak edo taldekoak (jarrerak, gaitasunak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) eskuratzeko eta garatzeko aukera ematea. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - hezkuntza-arloko esku-hartzea - arlo psikosozialeko esku-hartzea ■ Jarraipen-balioespena ■ Lagun egite soziala ■ Bitartekotza – Bitartekaritza
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hezkuntza-babesa eta/edo babes psikosoziala behar duten pertsonak, edo babes hori behar duen pertsona bat –edo batzuk– duten familia- edo bizikidetzaren unitateak. Zehazki, honako hauetarako behar izango dute babesa: <ul style="list-style-type: none"> - familia-bizikidetzaren hobetzeko; - kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzeko; - autonomiaz moldatzeko aukera errazteko; - gizarteratzea errazteko. <p>Babesgabetasun larriko egoeran dauden pertsonak, adingabeak zein adindunak, salbuetsita geratuko dira. Izan ere, haietzako arreta 2.7.3.1 fitxan araututako gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuen ardura izango da.</p>
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluko titulartasun-baldintza orokorrak betetzea. ■ Titulartasun-baldintza orokor horiek betetzea ez da eskatuko esku-hartzea adingabeen babesgabetasun-arrisku arin edo ertainera bideratuta dagoenean.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hezkuntza-babesa eta/edo babes psikosoziala behar izatea, honako helburu hauetako batekin: <ul style="list-style-type: none"> - familia-bizikidetzaren hobetzea; - kideen arreta eta zaintzarako trebetasunak hobetzea; - autonomiaz moldatzeko aukera erraztea; - gizarteratzea erraztea.
Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Doako zerbitzua. 	

1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua

Izena	Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua	
Eskumena	Udalarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Honako hauek eskaintzen ditu zerbitzuak: <ul style="list-style-type: none"> - mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalei, zaintzarako eta norberaren zaintzarako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzeko aukera. - zaintzaile nagusiak atsedean hartzeko, errekuaratzeko eta/edo garapen pertsonalerako denbora edota zaintza-funtzioak betetzea eragozten dion premia-egoera bati aurre egiteko denbora izan dezan, atsedenerako zerbitzuak honako hauek eskaintzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden eta zaintzaile ez-profesionalak zaindu ohi dituzten pertsonen etxez etxeko laguntza-zerbitzu bat aldi batean eskuratzeko edota zerbitzu horrek eskaintako intentsitatea aldi batean areagotzeko aukera; • I. gradu mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden eta zaintzaile ez-profesionalak zaindu ohi dituzten pertsonen lehen mailako arretako eguneko zerbitzuak aldi batean eskuratzeko edota lehen mailako arretako ostatu-zerbitzuak eskuratzeko aukera; ▪ Zerbitzuaren helburu nagusiak honako hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> - Zaintzaileek senitartekoei eskaintako zainketa kalitatearen hobekuntza bultzatzea. - Zaintzaile nagusi eta ez-profesionalen bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzea. - Zaindutako pertsonari bere bizilekuan jarraitzeko aukera eskaintzea. - Beste zaintzaile batzuen erantzukidetasuna bultzatzea. - Zaintzaile nagusi eta ez-profesionalari atsedenerako, errekuaratzeko, aisiarako eta, oro har, norberaren zaintzarako eta garapen pertsonalerako denbora bat izateko, zaintza-funtzioak betetzea eragozten dion premia-egoera bati aurre egiteko edota zaintza-zereginen lotutako karga murrizteko aukera ahalbidetzea, gaitz- eta estres-egoerei eta osasun-narriadurei aurrea hartzeko. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zaintzari eta norberaren zaintzari lotutako jakintzak, jarrerak eta trebetasunak eskuratzera bideratutako babes-zerbitzua. ▪ Atsedenerako zerbitzua honako hauen bidez: <ul style="list-style-type: none"> - mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen pertsonari etxez etxeko laguntza-zerbitzua aldi batean jasotzeko aukera ematearen bidez, edota zerbitzu horretan eskaintako intentsitatea aldi batean areagotzearen bidez; - I. gradu mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen pertsona lehen mailako arretako eguneko zerbitzuetan aldi batean egotearen bidez; - I. gradu mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen pertsona lehen mailako arretarako ostatu-zerbitzuetan aldi batean egotearen bidez; ▪ Atsedenerako zerbitzua aldi baterako da. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babes-modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> - Informazioa - Orientazioa - Prestakuntza ▪ Atsedeen-modalitateetan: <ul style="list-style-type: none"> - atsedena eskaintzen duen lehen mailako arretarako zerbitzuaren berezko prestazio teknikoak.
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babes-modalitatearen barruan, mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak. ▪ Atsedeen-modalitatearen barruan, honela dauden pertsonen zaintzaile nagusi eta ez-profesionalak: <ul style="list-style-type: none"> - mendetasun-arriskuan; - mendetasun-egoeran: <ul style="list-style-type: none"> ▪ I. gradu mendetasun-egoeraren kasuan, atsedena eguneko arretako eta etxebizitza komunitarioko zerbitzuetan eskaintzen denean (ikus 1.7 eta 1.9.4 fitxak). ▪ edozein mendetasun-mailatan, atsedena ELZren bitartez eskaintzen denean.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babes-modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak betetzea. - Pertsona zaindua edo zaintzailea eskaera aurkezten den udalerrian erroldatuta egotea. ▪ Atsedeen-modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> - Dekretu honetan atsedena eskaintzeko etxez etxeko laguntza-zerbitzurako, lehen mailako arretako eguneko zerbitzurako edota lehen mailako arretako ostatu-

1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua

		<p>zerbitzurako ezartzen diren titulartasun-baldintzak betetzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsona zaindua zein zaintzailea eskaera aurkezten den egunean eskaera aurkezten den udalerrian erroldatuta egotea. - Zaintzailearen eta arreta jasotzen duen pertsonaren arteko bizikidetzaren egiaztatzea; salbuespen gisa, bizikidetzaren baldintza hori ez da bete behar izango zainketez ohiko prestazio eraginkorra Udalaren gizarte-zerbitzuen txosten sozialaren bidez justifikatuta dagoen kasuetan.
	<p><i>Premia-baldintzak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babes-modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesional gisa jardutea (familiako zaintzaileak edo ahaidetasun-harremanik gabekoak, eta zaintzaile nagusiak edo bestelakoak izan daitezke). - Norberaren zaintzarako eta/edo zaintza-zereginak egiteko babesa behar izatea. - Babes-sare informalek eskaintako zaintza eta erantzukidetasuna areagotzeko informazioa, orientazioa, prestakuntza edo beste babes motaren bat behar izatea. ■ Atsedeen-modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dagoen pertsona baten zaintzaile nagusi eta ez-profesional gisa jardutea. - Atsedeen-premia izatea.
<p>Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa</p>		<ul style="list-style-type: none"> ■ Babes-modalitatea doakoa izango da. ■ Atsedeen-modalitatea baterako ordainketari lotuta egongo da.

1.5. Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua

Izena	Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua	
Eskumena	Udalarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzuak komunitatearen parte-hartze antolatua sustatuko du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak lortzeko eta gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko premiei aurrea hartzeko eta erantzuteko. Bereziki, honako hauen parte-hartzea sustatuko da: <ul style="list-style-type: none"> - zerbitzuen eta zentroen erabiltzaileena eta, hala badagokio, senitartekoena; - beste gizarte-zerbitzu batzuen erabiltzaileak izanik edo izan gabe taldeen, sareen edo elkarrekiko laguntzako beste ekimen batzuen bidez premia horici aurrea hartzen eta erantzuten parte hartu nahi duten pertsonena; - herritarrena, oro har, helburu horietara bideratutako boluntarioritza-jardueren bidez (gizarte-boluntarioritza); - toki-eremuan diharduten hirugarren sektoreko erakundeak. ■ Zerbitzuak, parte hartu nahi duten pertsonen informazioa eta orientazioa emateaz gain, honako jarduerak hauek egingo ditu: <ul style="list-style-type: none"> - oro har herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak; - arrisku-egoeran dauden herritarrei zuzendutako prebentzio- eta sustapen-jarduerak; - taldeei eta erakundeetara zuzendutako babes teknikoko jarduerak. ■ Zerbitzuaren esparruan egindako edo sustatutako jardueren eremu geografikoa zerbitzua egiten edo sustatzen den udalerrira izango da, edota jarduerak horien jardun-eremuan sartuta egon beharko du udalerririk horrek. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Prestakuntza
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Biztanleria osoa
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Pertsonen kasuan: ez da baldintzarik eskatzen. ■ Erakundeen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> - Beren figura juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta egotea. - Beren jarduteko lurralde-eremuari dagokion gizarte-zerbitzuen erregistroan inskribatuta egotea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzua edo prestazioa eskuratzeko premia-baldintza pertsonalik edo familiarik gabe
Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa	Doako zerbitzua	

1.6. Telelaguntza-zerbitzua

Izena	Telelaguntza-zerbitzua	
Eskumena	Autonomia Erkidegoarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Telelaguntza-zerbitzuak telealarmako komunikazio-baliabidea integratuko du, telefono-linearen bitartez eta ekipamendu informatiko espezifiko bati esker erabiltzaileei etengabeko arreta-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko aukera emango diena (24 ordu egunean eta urteko egun guztietan) eta, beharrezkoa izanez gero, behar den arreta mota berehala jasotzeko aukera erraztuko duena, autonomia- eta/edo segurtasun-sentimendua indartzen laguntzeko. Sistema horien bidez, arreta-taldearen eta premia-egoeran dagoen pertsonaren arteko harremana aktiba daiteke, bai azken horrek eskatuta, bai zerbitzuak berak eskatuta, baldin eta arrisku-egoera bat gertatzen ari dela pentsatzeko arrazoiak badaude. ■ Telelaguntza-zerbitzua telealarma-zerbitzu batean datza. Eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan ematen da, eta telefono-linearen bidez eta komunikazio-ekipamendu eta ekipamendu informatiko espezifiko bat tarteko, agertutako osasun-larrialdiko, gizarte-larrialdiko edo segurtasun pertsonaleko larrialdiko egoerari bere kabuz edo beste baliabide komunitario batzuk mobilizatuz erantzun egokia emateko espezifikoak prestatuta dauden langileak dituen arreta-zentro batekin berehala harremanetan jartzeko aukera ematen die erabiltzailei. ■ Jardunak antolatzeko, Telelaguntza Zerbitzuak honako hauek eduki beharko ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Instalaturako baliabideen bitartez aktibatuko den eta larrialdietarako sistemaren alertari eragiteko gizarte-premiaren edo larrialdiaren izaera zehaztuko duen harreman-zerbitzu bat. - Pertsona identifikatzeko eta pertsonaren aurrekari soziosanitarioak ezagutzeko aukera emango duen datuak erregistratzeko zerbitzu bat. - Beharrezkoa den kasuetan premia gertatu den tokian bertaratuko den eta pertsonari zuzeneko arreta bermatuko dion arreta pertsonaleko zerbitzu bat. ■ Telelaguntza-zerbitzuak honako helburu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Autonomia mugatua dutelako edo gizartearen isolatuta geratzeko arrisku-egoeran daudelako bizilekuan zein bizilekutik kanpo premiazko arreta eta/edo ohiko zein etengabeko gainbegiratzea behar duten pertsonak ohiko familia- eta gizarte-ingurunean geratzeko eta integratzeko aukera erraztea, egoitza-zerbitzuetara jo beharrik izan ez dezaten. - Laguntza-sareekiko etengabeko harremana eskaintzea, bizi-kalitatea hobetzeko eta bizilekuan autonomia- eta segurtasun-sentimendua indartzeko. - Gizarte-premiako edo larrialdiko egoeretan berehalako esku-hartzea eskaintzea. - Erabiltzaileak zaintzeko ardura bere gain hartzen duen gizarte- eta familia-inguruneari babesa eskaintzea. ■ Telelaguntza-zerbitzuak premia-egoera Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatzen denean esku hartuko du. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Urruneko erantzuna ■ Erantzun presentziala 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baliabide teknologikoen erabilerrari eta ezaugarriei buruzko informazioa ■ Jarraipen-balioespena ■ Orientazioa ■ Arlo psikosozialeko esku-hartzea, hala badagokio (emozioei eustea) ■ Laguntza teknikoak ematea: telelaguntza-sistema erabiltzeko instalazioa ematea
Arreta-maila	Lehen mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzuak	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Mendetasun-arriskuan dauden edo mendetasun aitortua duten adinekoak ■ Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako adineko autonomoak ■ Mendetasun aitortua duten desgaituak. ■ Buruko gaixotasun diagnostikatua eta mendetasun aitortua duten pertsonak. ■ Gizarte-isolamenduko arrisku-egoeran dauden eta dagokien oinarritzko gizarte-zerbitzuaren arabera telelaguntza-zerbitzuak erantzuteko moduko premiak dituzten pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe honako hauen kasuan: <ul style="list-style-type: none"> - mendetasun aitortua duten pertsonak; - gizarte-isolamenduko arriskuan dauden eta oinarritzko gizarte-zerbitzuaren arabera telelaguntza-zerbitzuaren bidez erantzuteko moduko premiak dituzten pertsonak. ■ 65 urte baino gehiago izatea, mendetasun-arriskuan dauden pertsonen kasuan. ■ 75 urte baino gehiago izatea, bakarrik bizi diren pertsonen kasuan.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintzak aplikatuko dira. ■ Hala badagokio, mendetasun aitortua izatea. ■ Hala badagokio, mendetasun-arriskua egiaztatuko duen balioespena izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Interesdunak edo, hala badagokio, interesdunarekin bizi den pertsonak, senitartekoak edo ohiko zaintzaileak telelaguntza-ekipoa behar bezala erabiltzeko gaitasuna izatea. ■ Bizilekuan telefono-linea bat edukitzea, horren ezaugarriek telelaguntza-ekipoaren eta arreta-zentroaren artean elkarreragitea ahalbidetu behar dutela aintzat hartuta.
Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua 	

1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak

Izena	Eguneko arretarako zerbitzuak	
Eskumena	Udalarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Eguneko arretarako zerbitzuen barruan, pertsonen egunean arreta-premiei lotutako intentsitate txikiko babesa eskaintzen duen leku bat izateko aukera ematen dieten zerbitzuak daude. Zerbitzu horien helburuak xede diren kolektiboan arabera dira: <ul style="list-style-type: none"> - I. gradu I. mailako mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei autonomiari eusten eta ohiko ingurunean jarraitzen laguntzea; - Zerbitzua premiaz lortu beharra dakarren bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eguna igarotzeko eta oinarrizko elikadura- eta higierne-premiak betetzeko leku bat eskaintzea. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adinekoentzako eguneko zerbitzua: I. gradu I. mailako mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden eta intentsitate txikiko babesa behar duten adinekoei eguneko arreta eskaintzen dien zerbitzu bat da; era horretan, ohiko ingurunean jarraitzeko eta sozializatzeko aukera ematen die pertsona horiei, eta isolamendu-egoerak konpentsatzen ditu. Zerbitzu horien erabilera aldi baterakoa edo iraunkorra izan daiteke. ■ Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua; honako funtzio hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzua behar duten pertsonen harrera egitea; - Oinarrizko premiei erantzutea, eta, horretarako, erabiltzaileei egunean babesteko, garbitzeko eta jateko leku bat eskaintzea. - Erabiltzaileei dituzten eskubideei eta eskuragarri dituzten gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematea, eta erabiltzaile horiek beren egoera normalizatzeko kudeaketak egitera bideratzea. - Hala badagokio, dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura bidaltzea. <p>Eskakizun-maila txikiko eta premiaz lortu beharreko zerbitzuak dira. Aldi baterako erabilera dute.</p> <p>Modalitate hori gizarte-larrialdiko zerbitzutzat hartuko da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Jantoki sozialek gosari-, bazkari eta/edo afari-zerbitzua eskaintzen dute, eta modalitate espezifiko bat dira bazterkeria-arriskuan edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzuen barruan. Eguneko arretarako edo egoitza-arretarako beste zerbitzu batzuen espazio fisiko berean kokatuta egon daitezke, edota egitura fisiko independenteak izan daitezke. 	
		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldi baterako egonaldien kasuan, aldi baterako egoitza-alternatiba behar izatea bere ohiko bizilekuan zaintza egokia jasotzeko aldi baterako ezintasuna edo zailtasun larria eragiten duten egoerei aurre egiteko. <p>Aldi baterako egonaldia premia soziosanitario batek eragin badu edo osasun-arazo batekin loturik badago, kasu horretan sartzeko ez da eskatuko mendetasuna aitortua izatea baina aldi baterako mendetasun-egoera bat egotea ezinbestekoa izango da eta egoera hori horretarako ezarritako tresnen arabera egiaztatatu beharko da.</p>
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua 	

2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak

Izena	<ul style="list-style-type: none"> Desgaituentzako egoitza-zerbitzuak edo -zentroak 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Bizikidetzaz-zerbitzuak dira eta ohiko bizitokia edo bizitoki iraunkorra eta, hala badagokio, aldi baterako bizitokia eskaintzen zaie desgaituei eta desgaitasun-egoeran daudenei, beren premiak etxebizitza-ingurunean edo ostatu-alternatiba arinagoetan behar bezala bete ezin badituzte intentsitate handiagoko babesak behar dituztelako. Zerbitzu horietan babes-maila zabala eta orokorra (intentsitate ertaina eta handia) eskaini behar da eta, horretarako, profesionalen diziiplina anitzeko talde baten babesa izan beharko dute, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez. Honako helburu hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Autonomia pertsonalari eustea eta, ahal den heinean, garapena sustatu eta narriadura saihestea. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoak den zainketa eta laguntza pertsonala bermatzea. Garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak indartzea. Erabiltzaileei beren bizitza-proiektu pertsonalarekin eta eguneroko bizitzarekin loturiko erabakiak hartzeko eta hautaketak egiteko aukerak eskaintzea. Erabiltzaileei komunitate-ingurunean parte hartzeko eta integratzeko aukerak eskaintzea, baita zerbitzu komunitarioak erabiltzeko ere. Familia- eta gizarte-sareak indartu eta horiei euts diezaieten sustatzea. Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> Laguntza duten etxebizitzak, intentsitate ertainekoak. Egoitza-zentroak, intentsitate handikoak. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa Jarraipen-balioespena Bitartekaritza - Bitartekotza Arreta pertsonala Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea. <ul style="list-style-type: none"> estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, bereziki: <ul style="list-style-type: none"> funtzio kognitiboetako esku-hartzea. trebetasunak garatzea. arlo okupazionaleko esku-hartzea; hezkuntza-arloko esku-hartzea; arlo psikosozialeko esku-hartzea, bereziki: <ul style="list-style-type: none"> emozioei eustera eta arriskuak murriztera bideratutako esku-hartzeak; funtzio psikoafektiboetako esku-hartzea. Lagun-egite soziala
	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ostatu ematea Mantenua Ikuztegia Garbitasuna
	<i>Beste sistema batzuen prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Egoitza-zentroen modalitatean: <ul style="list-style-type: none"> Erizaintzako arreta Arreta medikoa Errehabilitazioa
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Egoitza-zerbitzua	
Hartzaileak	Hartzaileen egoera	<ul style="list-style-type: none"> I. gradu, II. gradu eta III. gradu mendetasuna aitortua duten desgaituak.
	Hartzaileen adina	<ul style="list-style-type: none"> Sartzeko unean 18-64 urte dituztenak. Salbuespen moduan, adin txikikoak ere sartu ahal izango dira, honako kasu hauetan: <ul style="list-style-type: none"> gizarte- eta familia-arloko egoeraren larritasuna kontuan izanik, baita babesgabatasuneko edo babesgabeziako arrisku larriko egoeretan ere, egoera horietara bereziki bideratutako babes-tresnetan ezin denean arreta egokia bermatu; adin txikikoaren premiak kontuan izanik, hori egitea komeni denean. Bi kasuetan, zerbitzu hori —edozein modalitatetan— egokiagoa dela arrazoitu egin beharko da, salbuespenezko erabilera hori bermatzearen.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak aplikatuko dira. Eskara egiten denean, zerbitzua eskaintzen duen Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eskatuko da; lekualdatze-kasuetan, erroldatuta egoteko baldintza sartzeko datari dagokio. Desgaitasun-kalifikazioa izatea. I., II. edo III. gradu mendetasuna aitortua izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten den egoeran egotea. Babes zabala edo orokorra behar izatea (intentsitate ertaina edo handia). Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaturatik kanpoko

2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak

		<p>osasan-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.</p> <ul style="list-style-type: none">▪ Gaixotasun infekzio-kutsakor bat edo buruko gaixotasun bat edo gaixotasun psikiatriko bat izanez gero, behar duen tratamenduari uko ez egitea.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none">▪ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua	

2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak

Izendapena	<ul style="list-style-type: none"> Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentro edo -zerbitzuak 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentro edo -zerbitzuak buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonen arreta eskaintzen dieten zerbitzu soziosanitarioak dira, beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzera bideratutako prestazioen bitartez, beren garapen pertsonala, gizarteratzea eta ingurunearekiko parte-hartzea bultzatzeko eta, oro har, bizi-kalitatea hobetzeko. Beren ohiko ingurunean edo beste arreta-sistema batzuetan bilduta dauden zerbitzuetako berezkoak diren intentsitatea eta laguntza-maila behar ez duten ostatu-alternatibetan beren premiak modu egokian ase ezin dituzten buruko gaixotasuna duten pertsonen eskaintzen diete arreta zentro horiek. Intentsitate ertain edo handiko zerbitzuak dira, profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza izango dutenak, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta integrala eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betez. Aldi baterako egonaldiko, egonaldi luzeko edo egonaldi iraunkorreko zerbitzuak dira. Honako helburu hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Autonomia pertsonalari eustea, eta ahal den neurrian horren garapena bultzatzea eta narriadura saihestea. Garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak indartzea. Erabiltzaileei aukerak eskaintzea ingurune komunitarioan sartzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko, beren ingurune kultura-, gizarte- eta jolas-jardueretan parte hartuz. Bere familia- eta gizarte-sareak mantendu eta indartu daitezzen sustatzea. Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> Bi mota daude: <ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzak laguntzekin, intentsitate ertainekoak. Intentsitate ertaineko zerbitzuek, etengabeko gainbegiratzea behar ez duten, gizarteratze-prozesuan dauden eta, beren gizarteratzera eta laneratzera eta bizitza normalizaturako itzulerara orientatutako ibilbide pertsonalizatuaren barruan, egunean zehar zerbitzutik kanpo eskaintzen diren prestakuntzako eta garapen pertsonaleko jardueretan parte hartzen duten pertsonen eskaintzen diete arreta. Zerbitzu horiek zainzaileak dituzte, bertan erabiltzailearen bat dagoen orduetan. Egoitza-zentroak, intentsitate handikoak. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko etengabeko gainbegiraketa eta/edo laguntza behar duten pertsonen arreta eskaintzen dieten intentsitate handiko zerbitzuak. Zerbitzu horiek zainzaileak dituzte modu iraunkorrean. Bi modalitateak izaera soziosanitariokoak dira. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa Jarraipen-balioespina Bitartekaritza - Bitartekotza Arreta pertsonala Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea arloan okupazionalerako esku-hartzea hezkuntza-arloan esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> emozioei eustera eta arriskuak murriztera bideratutako esku-hartzeak; funtzio psikoafektiboetan esku hartzea. Lagun-egite soziala
	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ostatu ematea Mantenua Ikuztegia Garbitasuna Segurtasuna (zaintza)
	<i>Beste sistema batzuen prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera bideratuak Lan-bitartekotza, egonez gero.
	<i>Osasun Sistema</i>	<ul style="list-style-type: none"> Arreta medikoa, bereziki arreta psikiatrikoa Erizaintzako arreta
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Egoitza-zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Buruko gaixotasun kronikoa diagnostikatuta dutenak edo buruko gaixotasun horren ondorioz I., II. edo III. graduako mendetasuna onartuta dutenak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Eskuratzeko unean 18 eta 64 urte bitartekoak direnak.
		<ul style="list-style-type: none"> Salbuespen gisa, adingabeek ere zerbitzuak eskuratu ahal izango dituzte honako kasu hauetan:

2.4.3. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak

		<ul style="list-style-type: none"> - gizarte- eta familia-egoeraren larritasunak hala gomendatzen dunenean, baita babesgabetasun-egoera larrian ere egoera horietara espezifikoki bideratutako babes-baliabideetan arreta egokia bermatzea ezinezkoa denean; - adingabearen premiek hala gomendatzen dutenean. <p>Bi kasuetan, zerbitzu horren egokitzapen handiagoa, edozein modalitatetan, bere salbuespenezko erabilera bermatzeko arrazoitu egin beharko da.</p>
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak aplikatuko dira. ■ Eskaera aurkezten denean, zerbitzua eskaintzen duen Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea eskatuko da; lekualdatze-kasuetan, erroldatuta egoteko baldintza sartzeko datari dagokio. ■ Honako betekizun hauek bete beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak buruko gaixotasun kronikoaren edo luzaroko buruko nahaste larriaren diagnostikoa egina izatea, honako adierazle hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikoa: nahaste psikotikoak (organikoak ez) eta nortasunaren zenbait nahaste ere sartzen dira. • Gaixotasunaren eta tratamenduaren iraupena: 2 urte baino gehiago. • Desgaitasunaren presentzia: funtzionamendu orokorrean disfuntzio ertaina edo larria. - II. edo III. graduko mendetasun-egoera aitortua izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ■ Babes-intentsitate ertaina edo handia behar izatea. ■ Egoera psikopatologiko egonkortua edukitzea eta krisi psikiatrikoko egoeran ez egotea. ■ Baliabidearen berezko horniduren aukeretatik eta hedaduratik kanpoko buru-osasuneko laguntza espezializatua eta iraunkorra behar ez izatea. ■ Gaixotasun infekzio-kutsakor bat eta/edo buruko gaixotasun bat edo gaixotasun psikiatriko bat izanez gero, behar duen tratamenduari uko ez egitea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua 	

2.4.4. Adingabeentzako egoitza-zentroak

Izendapena	<ul style="list-style-type: none"> Adingabeentzako egoitza-zentroak 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Adingabeen egoitza-harrerara destinatutako bizikidetzazentroak dira, halakotzat hartuz ordeko zaintza-neurri bat, administrazioarena edo epailearena, eta neurri horren xedea da beharizan material, afektibo eta hezkuntzakoak beren familietan (aldi batez behintzat) bete ezin dituzten haurren eta nerabeen erabateko arreta egoitza batean hartzea. Egoitza-harrera normalki aldi baterakoa da, eta horrela, familia biologikora itzultzeko edo familiako harrera edo adopzioa bezalako alternatibetara bideratzen da, betiere, eta adingabearentzat kaltegarria ez bada, egoitza-harreran dagoenean familiako loturei eusteko lan eginez. Oinarrizko helburua da garapen afektibo, psikologiko, intelektual eta sozial egokia ahalbidetuko dion babesgune bat eskaintzea, eta horretarako, bere esparruan, ondoren adierazten diren premiei erantzun egokia eta eraginkorra emateko beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza lortzeko aukera erraztu behar da: osasuna; ongizate emozionala; elikadura; higieena eta norberaren itxura; loa; autonomia eta erantzukizuna; familia; gizarte-sarea; gizarte- eta kultura-arloko nortasuna; prestakuntza; lana; aisia; laguntza komunitarioa; eta premia bereziekiko arreta. 	
Modalitateak	<i>Baliabide-modalitateak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Egoitza-zentroak. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeentzako laguntza intentsiboko programa espezializatua aplikatzen den kasuetan, zentroa eraikin independente batean kokatu behar da eta eskusiboki kolektibo horren arretan jardun behar du. Harrera-pisuak, lehenasunez etxebizitza arruntetan kokatuak. Emantzipaziorako prestatzeko zentroak. Emantzipazio-pisuak, lehenasunez etxebizitza arruntetan kokatuak.
	<i>Programa-modalitateak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdien harrera-programa. Oinarrizko programa orokorra. Emantzipaziorako prestatzeko programa. Emantzipazio-programa. Jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua. Jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua.
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen prestazioak berezko</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa Jarraipen-balioespena Bitartekaritza - Bitartekotza Gizarte- eta hezkuntza-arloa eta arlo psikosozialean esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> hezkuntza-arloko esku-hartzea esku-hartze psikosoziala Lagun-egite soziala: tutoretza-ekintza Arreta pertsonala, adin txikiko haurrei arreta eskaintzen zaienean
	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ostatu ematea Mantenua Ikuztegia (prestazio mugatua, emantzipazio-programetan) Garbitasuna (prestazio mugatua, emantzipazio-programetan)
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Egoitza-zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Aitak, amak edo tutoretza duen pertsonak zirkunstantzia larrien ondorioz bere zaintza-funtzioak aldi baterako bete ezin izateak eragindako premia-egoerak. Babesgabetasun-arrisku larriko egoerak. Babesgabezia-egoerak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adingabeak Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusiko izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urteko edo 18 urtetik gorako gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan, betiere 18 hilabeteko gehieneko aldira.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Egoitza-harrerako neurri administratibo edo judicial baten xede izatea, hala dagokion Foru Aldundiak gazteak eta nerabeak babestearen alorrean tutoretza egikaritzearen esparruan, nola Administrazio horrek zaintza bere gain hartzeko neurri baten esparruan.

2.4.4. Adingabeentzako egoitza-zentroak

	<p><i>Premia-baldintzak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ▪ Bere aita, ama edo tutoreak, zirkunstantzia larrien ondorioz, hura aldi baterako zaindu ezin izatea. ▪ Haurraren edo nerabearen zaintza dagokion Foru Aldundiari esleitu izana erabaki judizial baten bitartez. ▪ Erantzukizun penalaren eremuan ezarritako neurri judizialei lotuta ez egotea, neurri horiek egoitza batean sartzea direnean edo hezkuntza-talde batekiko bizikidetzan neurri bat direnean, azken kasuan salbu, adingabea lehendik babesaren eremuko hezkuntza-talde batean baldin bazegoen adingabeen epaileak emandako epai penala baino lehen.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Doako zerbitzua. 	

2.4.5. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak

Izendapena	<ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentro edo -zerbitzuak. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentro edo -zerbitzuak bizikidetzazentzako dira, bazterkeria-egoeran dauden eta pertsonalki, sozialki eta harremanei dagokienez narriadura larriak dituzten pertsonen ostatu-zerbitzu bat gizarteratzera bideratutako esku-hartzeak egitera zuzendutako intentsitate ertaineko edo handiko laguntzekin eskaintzera destinatutakoak. Beren funtzioak garatzeko profesionalen diziplina anitzeko talde baten laguntza dute, ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala xede duen arreta eskaintzeko beharrezkoak diren profilak betetz. Zerbitzu horiek lortzeko, aldez aurretik baloratu eta bideratu egiten dira. Honako helburu hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaileen autonomia pertsonalari eustea, eta ahal den neurrian horren garapena bultzatzea eta bere narriadura saihestea. Erabiltzaileen garapen pertsonala, gaitasunak, trebetasunak eta esperientziak indartzea. Erabiltzaileei aukerak eskaintzea ingurune komunitarian sartzeko eta parte hartzeko eta zerbitzu komunitarioak erabiltzeko, beren ingurune kultura-, gizarte- eta jolas-jardueretan parte hartuz. Bere familia- eta gizarte-sareak mantendu eta indartu daitezzen sustatzea. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> Egoera kronifikatua eta narriadura pertsonala duten pertsonentzako egoitza-zentroak, eta pertsona horiek iraupen luzeko zerbitzu bat behar dute gizarteratzeko ikuspuntua eta esku-hartze eritimo geldoa konbinatzen dituen ikuspegiarekin. Gizarteratzeko egoitza-zerbitzuak: <ul style="list-style-type: none"> Gizarteratzeko talde-etxebizitzak, egonaldi ertain edo luzekoak, gabezia psikosozialak dituzten eta horiek gizarteratzeko eta bizimodu normalizatuan pixkanaka sartzeko xedez beren gaitasunak eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzera bideratutako intentsitate ertaineko laguntza psikosoziala behar duten pertsonen testuinguru komunitarian bizi ahal izateko aukera ematera zuzendutakoak. Gizarteratzeko egoitza-zentroak, egonaldi ertain edo luzekoak, gabezia psikosozial larriak dituzten pertsonen gizarteratzea eta/edo etxerik ez duten eta intentsitate handiko laguntza psikosoziala behar duten pertsonen etxebizitza egonkor baterako trantsizioa erraztera bideratutakoak, horiek gizarteratzeko eta bizimodu normalizatuan pixkanaka sartzeko xedez beren gaitasunak eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzera bideratutako esku-hartzeen bitartez. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa.
		<ul style="list-style-type: none"> Jarraipen-balioespena
		<ul style="list-style-type: none"> Bitartekaritza - Bitartekotza
		<ul style="list-style-type: none"> Gizarteratzeko egoitza-zerbitzuetan, zentroak nahiz talde-etxebizitzak izan: gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea Arlo okupazionalako esku-hartzea Hezkuntza-arloko esku-hartzea Arlo psikosozialeko esku-hartzea
	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Lagun-egite soziala
		<ul style="list-style-type: none"> Ostatu ematea
<ul style="list-style-type: none"> Mantenua, hala badagokio. 		
<ul style="list-style-type: none"> Ikuztegia, hala badagokio. 		
<i>Beste sistema batzuen prestazioak</i>	<i>Osasun Sistema</i>	<ul style="list-style-type: none"> Intentsitate ertaineko osasun-prestazioak, beren erabiltzaileen artean osasun-arreta behar duten pertsonak hartzen dituzten zentrozen kasuan
	<i>Enplegu-sistema</i>	<ul style="list-style-type: none"> Aurreprestakuntzako eta prestakuntzako prestazioak, laneratzera eta lan-munduratzera eta, hala dagokionean, lan-bitartekotzara bideratutakoak
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Egoitza-zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Bazterkeria-egoeran daudenak
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Eskuratzeko unean 18 eta 64 urte bitartekoak direnak
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak aplikatuko dira. Eskaera aurkezten denean, zerbitzua eskaintzen duen Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea, eta aurreko 6 hilabeteetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eskatuko da. Bazterkeria-egoera ziurtatzen duen balorazioa edukitzea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten dien egoeran egotea. Elkarbizitzarako gutxienezko gizarte- eta harreman-trebetasunak edukitzea Gizarteratzeko eta laneratzeko edo arlo okupazionalako ibilbide bat egiteko

2.4.5. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak

		<p>konpromisoa hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Arazoaz jabetzea eta egoera aldatzeko motibazioa edukitzea. ▪ Laguntza-intentsitate ertaina edo handia behar izatea, eskuratu nahi den zerbitzu-modalitatearen arabera. ▪ Gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik edo hedaduratik kanpoko osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea. ▪ Gaixotasun infekzio-kutsakor bat eta/edo buruko gaixotasun bat edo gaixotasun psikiatriko bat izanez gero, behar duen tratamenduari uko ez egitea. ▪ Jokabide-nahasterik ez izatea, eta zerbitzuaren funtzionamendua edo ohiko bizikidetzaren larriki eragotz dezaketen edo pertsona berarentzat, beste erabiltzaileentzat eta esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeen portaerak ez izatea.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<p>Doako zerbitzua.</p>	

2.4.6. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk 				
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 				
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bizikidetzaz-azaro larriak dituzten emakumeei (bereziki emakumeen osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten etxeko tratu txarren egoerak) eta kausa sozioekonomiko eta pertsonalekin lotutako egoera kritikoa dauden emakumeei kasu batzuetan urgentziatzeko arreta eta biziokia eskaintzen dieten, eta, beste kasu batzuetan, egonaldi laburreko edo ertaineko biziokia eskaintzen dieten zerbitzuak dira. ■ Zerbitzu horiek intentsitate ertaineko eta handiko laguntza eskaintzen dute; laguntza hori honako hau izanik: lehen harrerako esku-hartzeak egunaren 24 orduetan –balioespena, diagnostikoa, orientazioa eta urgentziatzeko biziokia barne–, lehenengo harreraren ondoko esku-hartzeak, biziokia eta arlo psikosozialeko esku-hartzearen nahiz gizarte- eta hezkuntza-arloko eta gizarte-laguntzako esku-hartzearen inguruko laguntza intentsiboak emateko direnak; nolana ere, laguntza horiek emateko teknikari espezializatuen presentzia nahitaezkoa izango da. ■ Honako helburu hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzaz-azaro larriak, eta bereziki etxeko tratu txarren egoerei lotutako premia-egoera larriak erantzutea berehala. - Egoera kritiko horietan egotearen ondorioz, ohiko bizilekuri ez duten edo bizilekua uztera behartuta egon diren emakumei eta horien mende dauden pertsonen (haien ardurapeko seme-alabak –adin txikiak direnak zein ez direnak– edo haien mende dauden helduak) aldi baterako biziokia ematea. - Pertsona horiei beren egoera pertsonalean, ekonomikoan eta familia-egoeran beharrezkotzat edo egokitzen hartzen dituzten aldaketak egiteko, eta horretarako erabakiak hartzeko astia eta babes egokiak, ingurune seguru batean, izateko aukera eskaintzea. - Beren egoerari egokiro aurre egiten laguntzea, eta, horretarako, beharrezkoa den aholkularitza, informazioa eta laguntza eskaintzea eta babes-baliabiderik egokienak eskuratzeko aukera ematea. - Autoestimua eta konfiantza pertsonala ez ezik, biziokia autonomoa garatzen laguntzeko eta gizarteratzeko ibilbidea bideratzeko norberaren gaitasunak edo trebetasunak ere mantentzen, berreskuratzen eta/edo garatzen laguntzea. - Premietara egokitutako lagun-egite eta babes sozial trinkoa ematea. - Segurtasun-sentimendua ahalbidetzea arreta egindako pertsonengan. 				
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Egonaldi laburreko berehalako harrera-zerbitzuak –eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, balia daitezkeenak–, etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeak berehala eta baliabide egokienera bideratu aurretik haien premiak balioesteko behar den denboran hartzen dituztenak. ■ Egonaldi ertaineko harrera-zentroak, honako hauen babes- eta ostatu-eskaerei erantzutea bideratuta daudenak: <ul style="list-style-type: none"> - Etxeko eremuan tratu txarren biktima izan diren eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeak. - Bakarrik dauden, laguntza intentsiboa behar duten eta baliabide pertsonalik eta laguntza soziodinamiko ez duten emakumeak –hardun daudenak edo babesgabetasun-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituztenak–. Laguntza hori gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeetan eta arlo psikosozialeko esku-hartzeetan datza batez ere. 				
Eskaintzen dituen prestazioak	<table border="1"> <tr> <td><i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa. ■ Premien balioespena ■ Diagnostikoa ■ Bitartekaritza - Bitartekotza ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea - arlo psikosozialeko esku-hartzea ■ Lagun-egite soziala ■ Laguntza soziodinamiko ■ Segurtasuna (zaintza), hala badagokio. </td> </tr> <tr> <td><i>Prestazio osagarriak</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ostatu ematea ■ Mantenua, hala badagokio. ■ Ikuztegia, hala badagokio. ■ Guztientzako eremuen garbiketa, hala badagokio. </td> </tr> </table>	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa. ■ Premien balioespena ■ Diagnostikoa ■ Bitartekaritza - Bitartekotza ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea - arlo psikosozialeko esku-hartzea ■ Lagun-egite soziala ■ Laguntza soziodinamiko ■ Segurtasuna (zaintza), hala badagokio. 	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ostatu ematea ■ Mantenua, hala badagokio. ■ Ikuztegia, hala badagokio. ■ Guztientzako eremuen garbiketa, hala badagokio.
<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa. ■ Premien balioespena ■ Diagnostikoa ■ Bitartekaritza - Bitartekotza ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea - arlo psikosozialeko esku-hartzea ■ Lagun-egite soziala ■ Laguntza soziodinamiko ■ Segurtasuna (zaintza), hala badagokio. 				
<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ostatu ematea ■ Mantenua, hala badagokio. ■ Ikuztegia, hala badagokio. ■ Guztientzako eremuen garbiketa, hala badagokio. 				
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta				
Zerbitzu mota	Egoitza-zerbitzua				
Hartzaileak	<table border="1"> <tr> <td><i>Hartzaileen egoera</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ■ Etxean tratu txarren biktima izan diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeak ■ Babesgabetasun-egoeran dauden beste emakume batzuk, bereziki bakarrik eta hardun dauden edo babesgabetasun-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten eta gizartearen nahiz familiaren laguntzarik ez duten emakumeak. ■ Bizikidetzaz-unitateari eusteko, aurreko taldeetan aipatutako hartzaileez gain, emakume horien ardurapean dauden eta normalean haiekin bizi diren pertsonak (adingabeak edo adin nagusikoak diren kontuan izan gabe) ere balia daitezke zerbitzu honetaz. </td> </tr> <tr> <td><i>Hartzaileen adina</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urteko edo hortik gorako emakumeak </td> </tr> </table>	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Etxean tratu txarren biktima izan diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeak ■ Babesgabetasun-egoeran dauden beste emakume batzuk, bereziki bakarrik eta hardun dauden edo babesgabetasun-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten eta gizartearen nahiz familiaren laguntzarik ez duten emakumeak. ■ Bizikidetzaz-unitateari eusteko, aurreko taldeetan aipatutako hartzaileez gain, emakume horien ardurapean dauden eta normalean haiekin bizi diren pertsonak (adingabeak edo adin nagusikoak diren kontuan izan gabe) ere balia daitezke zerbitzu honetaz. 	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urteko edo hortik gorako emakumeak
<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Etxean tratu txarren biktima izan diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeak ■ Babesgabetasun-egoeran dauden beste emakume batzuk, bereziki bakarrik eta hardun dauden edo babesgabetasun-arrisku handiko egoeran dauden seme-alaba adingabeak ardurapean dituzten eta gizartearen nahiz familiaren laguntzarik ez duten emakumeak. ■ Bizikidetzaz-unitateari eusteko, aurreko taldeetan aipatutako hartzaileez gain, emakume horien ardurapean dauden eta normalean haiekin bizi diren pertsonak (adingabeak edo adin nagusikoak diren kontuan izan gabe) ere balia daitezke zerbitzu honetaz. 				
<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urteko edo hortik gorako emakumeak 				

2.4.6. Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuk

<p>Eskuratzeko baldintzak</p>	<p><i>Administrazio-baldintzak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Emantzipatutako emakume adingabeak ▪ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak aplikatuko dira. ▪ Etxean tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako berehalako harrera-zerbitzuaren modalitatean ez da erroldatze-baldintzarik eskatuko. ▪ Egonaldi ertaineko harrera-zentroaren modalitatean eskatuko da eskaera egiten den egunean zerbitzua ematen den Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea, baita eskaera egiten den eguna baino gutxienez 12 hilabete lehenago Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea ere.
	<p><i>Premia-baldintzak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ▪ Segurtasun-baldintzetan bizitzeko etxebizitza alternatiborik ez izatea, edo berehala erabili ezin izatea. ▪ Berehalako harrera-zerbitzuaren modalitatean, urgentziatzko esku-hartze bat behar izatea ▪ Harrera-zentroaren modalitatean, iraupen ertaineko laguntza intentsiboa, integrala eta espezializatua behar izango du.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berehalako harrera-zerbitzuaren modalitatea doakoa izango litzateke. ▪ Egonaldi ertaineko harreraren modalitatea baterako ordainketari lotuta egongo litzateke

2.5. Atsedenerako zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> Atsedenerako zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu honek aldi baterako egonaldiak eskaintzen dizkie bigarren mailako arreta-zerbitzuetan, zehazki egoitza-zentroetan, eguneko zerbitzu edo zentroetan eta gaueko zentroetan, inoren laguntza behar duten pertsoneri, normalean zaintzaile ez-profesionalek zaintzen dituztenei, zaintzaile nagusiak denbora izan dezan atsedean hartzeko, suspertzeko eta/edo garapen pertsonalerako, edo bere zaintza-zereginek betetzea eragozten dioten premiazko egoera bati aurre egiteko. Honako hauek dira zerbitzu horren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> Zaintzaileak bere denbora izatea atsedean hartzeko, suspertzeko, aisiarako eta, orokorrean, autozainketarako eta garapen pertsonalerako, edo, era berean, bere zaintza-eginkizunek betetzea eragozten dioten premiazko egoeraren bati aurre egiteko. Zaintza-lanei lotutako karga txikiagoa izatea zaintzaileak; era horretan gainkargako egoerak eta estres-egoerak eta zaintzailearen osasunean sor litezkeen narriadurak prebenituz. Bi helburuek xede bera dute, hau da, zaintzaileak zaintzen duen pertsonak bere ohiko etxebizitzan jarrai dezala. Atsedean hartzeko zerbitzua aldi baterakoa da. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> Mendetasun-egoeran dagoenak aldi baterako egonaldiak igarotzea egoitza-zentroetan Mendetasun-egoeran dagoenak aldi baterako egonaldiak igarotzea eguneko zerbitzuetan edo zentroetan Mendetasun-egoeran dagoenak aldi baterako egonaldiak igarotzea gaueko zentroetan 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Atsedean hartzeko zerbitzuaren prestazio teknikoak eta egonaldia gauzatuko den egoitza-zentroarenak, eguneko zerbitzuarenak edo zentroarenak edo gaueko zentroarenak, kasuan kasu, berdina dira.
	<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Atsedean hartzeko zerbitzuaren prestazio osagarriak eta egonaldia gauzatuko den egoitza-zentroarenak, eguneko zerbitzuarenak edo zentroarenak edo gaueko zentroarenak, kasuan kasu, berdina dira.
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile nagusiak eta ez-profesionalek.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Zaindutako pertsona nahiz zaintzailea Lurralde Historikoko udalerrietakoren batean erroldatuta egotea eskaera egiten den datan. Kasu bakoitzean atsedean hartzeko egonaldia gauzatzen den bigarren mailako arreta-zerbitzuari dagokionez –egoitza-zentroa, eguneko zerbitzua edo zentroa edo gaueko zentroa– Dekretu honetan ezartzen diren titulartasun-baldintzak betetzea. Arreta egindako pertsonaren mendetasun-egoera egiaztatzea. Zaintzailearen eta arreta egindako pertsonaren arteko bizikidetzaren egiaztatzea; nolana ere, salbuespen gisa, ohiko eta egiazko izaeraz betetzen direla Udaleko Gizarte Zerbitzuen txosten sozialaren bitartez behar bezala egiaztatzen diren kasuetan salbuesita egongo da bizikidetzaren baldintza hori betetzea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren zaintzaile nagusi eta ez-profesional gisa jardutea. Atsedean hartzeko premia izatea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> Baterako ordaintetari lotutako zerbitzua 	

2.6. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena, kudeaketa Eusko Jaurlaritzari esleituz alertako telefono-zerbitzua emateko. 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzua eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan martxan dagoen zerbitzua da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean gertatzen diren eta gizarte-zerbitzuen esku-hartzeren bat beharko luketen urgentziako edo larrialdiko egoerei berehalako arreta emateko eta zerbitzuen arteko esku-hartzeen koordinazioa bermatzeko. Aurrekoaren ondorioetarako, honako hau hartuko da urgentziako edo larrialdiko egoeratzat: kausa naturalak edo eragindakoak direla medio aurrekusi gabeko gertakari batek eragindako egoera, gaitasun pertsonalak, bizirauteko baliabideak eta bitartekoak, gizarteko eta familiako harremanak edo sareak, eta segurtasuna eraginpean hartzen dituen eta estuasunean jartzen dituen, eta horren ondorioz, eraginpeko pertsonak babesgabetasun-egoera larrian geratzen direnez, berehalako eta ezinbesteko esku-hartzea behar dute, egoera hori ez larriagotzeko eta/edo kalte handiagorik ez eragiteko. Honako hauek izan daitezke urgentziako edo larrialdiko egoerak: <ul style="list-style-type: none"> - banakoak, pertsona bati edo familia bati edo bizikidetzaren unitate bati eragiten diotenean; - kolektiboak, familia edo bizikidetzaren unitate batzuei eragiten diotenean; - katastrofeak edo larrialdi handiko egoerak, biztanleriaren zati esanguratsu bati eragiten diotenean, kasu horietan, dauden larrialdi-planen esparruan esku hartu behar denean. Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuaren eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> - esku hartzeko zerbitzu bat sustatzea, behar izanez gero, urgentzia edo larrialdia gertatu den lekura joango dena urgentziak edo larrialdiak kaltetutako pertsona edo pertsonak in situ arreta egiteko; - premia-egoerak atzematea, in situ behar izanez gero, eta premiei buruzko behin-behineko diagnostiko bat egitea, ondoren egiaztatuko dena; - ezinbestekoak diren gizarte-zerbitzuen baliabideak berehala aplikatzea; beharrezkoa izanez gero, eraginpean hartutako pertsonari edo pertsonen osasun-zentrotara, polizia-bulegotara edo bulego judizialetara edo beste bulego batzuetara laguntzea, edota, baita ezinbestekoak diren kudeaketak egitea ere; - beharrezkoa denean, kasua dagozkion zerbitzuetara bideratzea, al bait lasterren. Bere esku-hartzeak antolatzeko, zerbitzuak honako hauek izango ditu: <ul style="list-style-type: none"> - alertako telefono-zerbitzu bat, Telelaguntza Zerbitzuaren instalazioetatik emango dena (1.6 fitxa) eta urgentziako egoera Gizarte Larrialdietako Zerbitzuan jakinarazteaz arduratuko dena. - lehen mailako eta bigarren mailako gizarte-larrialdiko edo gizarte-premiazko zerbitzuen jarduna, horien koordinazioaz Foru Aldundiak arduratuko dira dagozkien Lurralde Historikoetan. Zerbitzu horren esku-hartzea aldi baterakoa da beti, eta al bait lasterren amaituko da: <ul style="list-style-type: none"> - Premiazko esku-hartzea gauzatu ondoren, gizarte-zerbitzuen beste esku-hartzerik behar ez bada, ez da ezer bideratuko, baina gertakariaren berri emango zaio dagozkion oinarrizko gizarte-zerbitzuari jakinaren gainean egon dadin. - Urgentziako esku-hartzea gauzatu ostean, gizarte-zerbitzuek esku-hartzearekin jarraitzea ezinbestekoa baldin bada, kasua dagozkion oinarrizko gizarte-zerbitzura bideratuko da, urgentziako prozedura aplikatuz, lehentasunez esku har dezan eta erabaki dezan; oinarrizko gizarte-zerbitzuaren iritzi lehen edo bigarren mailako arretako beste gizarte-zerbitzu batzuek esku hartu behar badute, zerbitzu horiek ere beren urgentziako prozedurak aplikatu beharko dituzte lehen mailako arreta bermatzeko. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa
		<ul style="list-style-type: none"> Balorazioa
		<ul style="list-style-type: none"> Diagnostikoa
		<ul style="list-style-type: none"> Orientazioa
		<ul style="list-style-type: none"> Lagun-egite soziala
		<ul style="list-style-type: none"> Arlo psikosozialeko esku-hartzea, bereziki emozioei eusteko helburua duenean
<i>Prestazio osagarriak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Garraioa, hala badagokio 	
	<ul style="list-style-type: none"> Mantenua, hala badagokio 	
	<ul style="list-style-type: none"> Urgentziako bizitokia, badagokio 	
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Eskuratze-zerbitzua	
	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gerora sortutako babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak, bereziki: <ul style="list-style-type: none"> - galtze-egoera eta/edo orientazioa galtzearen egoera; - zaintzaileak utzi izanaren edo gerora sortutako absentiaren egoerak; - genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren egoerak. Egoera berezien ondoriozko gizarte-larrialdiko egoeretan dauden pertsonak: zirkulazio-istripua, sutea, uholdea edo bestelako ezbeharrak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ez da erroldatze-baldintzarik eskatuko.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea.

2.6. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua

		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte-zerbitzuen arreta behar duen urgentziatzko egoera bati aurre egitea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua	

2.7.1.1. Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua

Izena	Babesgabetasun-arriskuan edo -egoeran dauden haur eta nerabeentzako informazio-zerbitzua	
Eskumena	Autonomia Erkidegoarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurrei eta nerabeei eskaintako orientazioko, aholkularitzako eta informazioko zerbitzua da, telefono bidez edo modu telematikoa eskaintzen dena. ▪ Zerbitzu anonimo eta isilpekoa da, babesgabetasun-egoerekin lotutako edozein zalantzaren edo arazoren gainean hitz egin nahi duten, informazioa eta/edo aholkularitza eta/edo orientazioa jaso nahi duten haur eta nerabe guztientzat. Egon litezkeen haurren edo nerabeen babesgabetasun-egoerei buruzko informazioa jaso nahi duten eta/edo kasu horietan gauzatu beharreko jardunei buruzko orientazioa behar duten heldu guztiei ere arreta egiten zaie. ▪ Zerbitzu horretan babesgabetasun-arriskua egon litekeela atzematen diren kasuak dagozkion agenteei jakinaraztea biltzen da, agente horiek balioespina egin dezaten. ▪ Zerbitzu hori diziiplina anitzeko talde espezializatu batek ematen du urteko 365 egunetan. ▪ Hona hemen zerbitzuaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Haurrei eta nerabeei entzutea behar dutenean. - Informazio egokia, argia eta erabilgarria ematea. - Kontsulta egin duen pertsona baliabide egokienetara bideratzea pertsona horrek daukan premiari erantzuteko. - Egon litezkeen babesgabetasun-egoerak atzematea. - Haurrei eta nerabeei orientazioa, aholkuak eta laguntza ematea. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa ▪ Orientazioa ▪ Arlo psikosozialeko esku-hartzea: emozioei eustea.
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babesgabetasun-egoerekin lotutako arazoak edo egoerak direla-eta informazioa, orientazioa eta aholkularitza jasotzeko premia duten haurrak eta nerabeak. ▪ Haurren edo nerabeen babesgabetasun-egoeren berri dutela uste duten eta/edo jarduteko moduari buruzko orientazioa behar duten helduak. ▪
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bat ere ez
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bat ere ez
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua	

2.7.1.2. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumei informazioa eta arreta emateko euskal zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumei informazioa eta arreta emateko euskal zerbitzua. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Autonomia Erkidegoarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Telefono bidez edo modu telematikoa urruneko arreta emateko gailua da. ▪ Genero-indarkeriako egoerak pairatzen dituzten eta egoera horien ondorioz biktimizazio- edo kalteberatasun-egoeran dauden emakumei informazioa, orientazioa eta laguntza psikologikoa ematen die. Egoera horiei buruzko edo kasu horietan bidezkoak diren jardunei buruzko informazioa lortu nahi izango luketen pertsona guztiei ere arreta egiten die. ▪ Isilpeko zerbitzua da eta modu anonimoan deitu daiteke bertara. ▪ Egunean 24 orduz egongo da jardunean, urteko 365 egunetan. ▪ Honako hauek dira zerbitzuaren eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> - Deiak hartzea, entzute aktiboa eginez, laguntza emozionala eskainiz eta emakumeak bultzatuz beren autonomia pertsonala lortzera - Emakumeen ingurune hurbilenean dauden baliabideei buruzko informazio osatua ematea: gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, zerbitzu judizialak, polizia-zerbitzuak eta bestelakoak. - Erabiltzaileak esku hartzeko baliabideetan hitzordua eskatzen badu, kasu horiek bideratu egingo dira. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa. ▪ Orientatzea, eta hala badagokio, bideratzea. ▪ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - Arlo psikosozialeko esku-hartzea: entzute aktiboa eta lagun-egitea; emozioei eustea. ▪ Laguntza soziojuridikoa: informazioa
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Biztanleria osoa
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bat ere ez.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bat ere ez.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua	

2.7.2.1. Bizitza independentea babesteko zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bizitza independentea babesteko zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bizitza independentea babesteko zerbitzua tutoretzako eta lagun-egiteko ekintzen multzo antolatu eta koordinatua da, desgaitasunak dituzten pertsonen babesa ematen diena, dagoeneko modu independentean bizi direnei edo modu independentean bizi nahi dutenei (bakarrik nahiz bikotekidearekin) edo desgaitasunen bat duten eta modu autonomoan moldatzeko eta komunitate-ingurunean modu aktiboan parte hartzeko babes-premiak dituzten beste pertsona batzuekin biziz. ■ Bizitza Independentea Babesteko Zerbitzua bi elementuk eratzen dute: <ul style="list-style-type: none"> - Laguntza Pertsonalerako Zerbitzua: laguntza pertsonalerako programa da, mendetasunari arreta eskaintzeko prestazio ekonomikoak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean arautzen direnak, osatzera bideratuta dagoena, mendetasun-egoeran daudenen bizimodua ateratzeko eta komunitatean txertatzeko eta komunitatetik isolatuta edo bananduta bizitzea saihesteko beharrezkoa den laguntza pertsonala kontratatzeko aukera izan dezaten. Kontratazio hori dagokion pertsonak diseinatu eta gauzatu du, Bizitza Independenteko Plan bat aurkeztu ondoren. Plan hori Administrazioak onartuko du zuzenean edo baimendutako erakundeen bitartez. - Bizitza Independenteko Zerbitzua: Daukaten adimen-desgaitasunaren ondoriozko mugak direla-eta bizitza independenteko beren plana zuzenean kudeatu ezin duten pertsonentzat, bizitza independentea babesteko zerbitzua tutoretzako eta lagun-egiteko ekintzen multzo antolatu eta koordinatua da, desgaitasunak dituzten pertsonen babesa ematen diena, dagoeneko modu independentean bizi direnei edo modu independentean bizi nahi dutenei (bakarrik nahiz bikotekidearekin) edo desgaitasunen bat duten eta modu autonomoan moldatzeko eta komunitate-ingurunean modu aktiboan parte hartzeko babes-premiak dituzten beste pertsona batzuekin biziz. ■ Babes-sistemaren prestazioa dinamikoa eta malgua izango da, eta erabiltzailearen premietara egokituko da. ■ Honako hauek dira bizitza independentea babesteko zerbitzuaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailea etxebizitzan molda dadin ahalbidetzea ikaskuntza erabilgarrien bitartez. - Komunitate-ingurunean gizarteratzen laguntzea, familiarekin, lagunekin, kideekin, bizilagunekin eta abarrekin pertsonen arteko harreman-sarea sustatuz. - Erabiltzaileen segurtasun-sentimendua eta autoestimua areagotzea. - Beren etxebizitzan bizitza independentea egiteko gaitasuna duten pertsonak bizitoki-zerbitzu batean edo egoitza-zerbitzu batean sartzeko aukera saihestea; horretarako, behar diren laguntzak emango zaizkie. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntza Pertsonalerako Zerbitzuaren kasuan. <ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean arautzen diren prestazio ekonomikoen laguntza ekonomiko osagarriak. - Jarraipena - Laguntza pertsonala kontratatzeko kudeaketak egiten laguntzea, bereziki beste administrazio batzuetan garatzen diren kudeaketei dagokienez. ■ Bizitza Independenteko Zerbitzuaren kasuan: <ul style="list-style-type: none"> - Informazioa - Jarraipen-balioespena - Bitartekaritza - Bitartekotza - Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> · estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea · Hezkuntza-arloko esku- hartzea · arlo psikosozialeko esku-hartzea - Lagun-egite soziala - Tutoretza
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Mendetasun-arriskuaren egoeran dauden eta desgaitasunak dituzten pertsonak ■ Desgaitasunak dituzten pertsonak, aitortutako I., II. edo III. graduko mendetasuna dutenak
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak aplikatuko dira. ■ Eskatuko da eskaera egiten denean dagokion Lurralde Historikoan erroldatuta egotea. Mendetasuna aitortu ez dioten pertsonen kasuan, eskatuko da Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon izana eskaera-dataren aurreko hamabi hilabeteetan. ■ I., II. edo III. graduko mendetasuna aitortua izatea, edo % 33ko edo

2.7.2.1. Bizitza independentea babesteko zerbitzua

	<p><i>Premia-baldintzak</i></p>	<p>goragoko desgaitasun-kalifikazioa izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ▪ Behar adinako trebetasunak izatea bizitza independentea garatzeko, betiere behar diren laguntzekin. ▪ Laguntzak behar izatea honako helburu hauetakoren bat edo batzuk egiteko: <ul style="list-style-type: none"> - komunitatean duen bizitza eta gizarteratzeko aukera ahalbidetzea, isolatuta bizitzea saihesteko; - etxebizitza, eta/edo komunitatearen, hezkuntzaren edo lanaren ingurunean modu autonomoan molda dadin laguntzea edo ahalbidetzea. ▪ Laguntza ematen denean eta laguntzaz baliatzen den bitartean etxebizitza egokia izatea bere erabilera pertsonalerako, edozein titulupean, prekarioa izan ezik.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua. 	

2.7.2.2. Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua

Izena	Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikoa egokitzeko zerbitzua	
Eskumena	Aldundiarena	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntza Teknikoa Emateko eta Ingurune Fisikoa Egokitzeko Zerbitzuaren helburua eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteari dagokionez autonomia pertsonala eta beren kasa balia daitezzen ahalbidetzea da. Helburu hori izanik: <ul style="list-style-type: none"> - dauden laguntzako produktuei (laguntza teknikoak) buruzko informazioa eta orientazio ematen du, baita irisgarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten ingurune fisikoaren egokitzapenei buruzkoa ere; - eguneroko bizitzako jarduerak egiteko beharrezkoak diren laguntzako produktu (laguntza teknikoak) berreskuragarriak lortzen laguntzen du, mailegu-sistemaren bitartez, bai pertsona bere etxebizitzan dagoenean, bai bizitoki- edo egoitza-zerbitzuren batean dagoenean; - ohiko etxebizitza egokitzeko proposamenak egiten ditu, eta horri esker etxebizitzaren irisgarritasun-maila hobetzea ahalbidetuko da. ■ Aurrekoaren ondorioetarako: <ul style="list-style-type: none"> - Laguntzako produktutzat edo laguntza teknikotzat hartzen da ezintasuna prebenitu, konpentsatu, arindu edo ezabatzea bideratutako produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Laguntzako produktu edo laguntza tekniko berreskuragarriak: hainbat pertsonak bata bestearen ostean erabili ditzaketenak eta leku batetik bestera eraman daitezkeenak garraioa beste kosturik gabe. ▪ Laguntzako produktu edo laguntza tekniko berreskuraezinak: beren ezaugarriak direla-eta besterenezinak direnak, eta, ondorioz, onura eskatzaile bakar bati edo, salbuespen gisa, aldi berean hainbati dakarkienak. - Ingurune fisikora egokitzea honako hau izango da: erabiltzailearen etxebizitzaren irisgarritasuna ahalbidetuko duen aldaketa oro edo etxebizitzaren barne-egokitzapena. 	
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntzako produktuak edo laguntza teknikoak ahalbidetzea ■ Ingurune fisikora egokitzea 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Orientazioa, egokitzen diren laguntzako produktuak eta ingurune fisikoaren egokitzapenak agintzea barne. ■ Laguntzako produktuak edo laguntza teknikoak ahalbidetzea, horiek erabiltzeko entrenamendua barne. ■ Ingurune fisikora egokitzea ■ Laguntzako produktuak edo laguntza teknikoak eskuratzeko eta/edo haren irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren etxebizitzaren egokitzapenak egiteko prestazio ekonomikoak izapidetzea
	<i>Beste sistema batzuen prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hala badagokio, osasun-katalogoan bilduta dauden laguntzako produktuen kostuaren finantziario partziala, laguntza ekonomiko horiek arautzen dituen osasun-araudian aurreikusitakoaren arabera.
	<i>Osasun Sistema</i>	
	<i>Etxebizitza</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hala badagokio, ohiko etxebizitzaren egokitzapenen kostuaren finantziario partziala, laguntza ekonomiko horiek arautzen dituen osasun-araudian aurreikusitakoaren arabera.
Arreta-maila	Bigarren mailako arreta	
Zerbitzu mota	Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ % 33tik gorako desgaitasun-gradua duten pertsonak. ■ Mendetasun ertaineko egoeran (I. gradua), mendetasun-egoera larrian (II. gradua) edo mendetasun handiko egoeran (III. gradua) dauden pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe, honako kasu hauetan izan ezik: <ul style="list-style-type: none"> - Motordun ibilgailuak plataforma jasotzaileen bitartez egokitzeko 3 urtetik gorakoa izan behar da. - Entzumen-protiesietarako, 16 urtetik gorakoa izan behar da.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak betetzea. ■ Eskara egiten denean dagokion Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea, eta aurreko bi urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon izana. ■ Kontzeptu berarengatik azken 6 urteetan ez jaso izana laguntzako produkturik edo laguntza teknikorik, entzumen-protiesiak izan ezik. ■ Ingurunea egokitzeko zerbitzua eskuratu ez izana aurretik, salbu eta bitartean, mugitzeko zailtasunak nabarmen areagotu badira eta egoera berriaren ondorioz egokitzapen berriak egin behar badira. ■ Mendetasun-kalifikazioa izatea, edo desgaitasuna duten pertsonen kasuan, % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-gradua izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Fitxa honetako hartzailei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ■ Eskatutako laguntzako produktua edo laguntza teknikoa behar izatea desgaitasunaren edo mendetasunaren ondorioak arintzeko.

		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Egokitzapenak egin behar izatea ohiko etxebizitzan, etxebizitza irisgarria izan dadin eta egiaztatutako desgaitasunaren edo mendetasunaren ondorioak arintzeko.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Baterako ordaintetari lotutako zerbitzua.	

2.7.2.3. Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua bizitzako eremu batzuetan edo guztietan beren erabakiak hartzeko gaitasunik ez duten eta judizialki ezindutzat hartu diren edo ezintasun-prozesuetan dauden helduentzat da; zerbitzu horren helburua pertsonaren eskubideak babestea ez ezik, eskubideak egiaz baliatzen direla sustatzea eta ahalbidetzea ere izanik. ▪ Zerbitzu hori irabazi asmorik gabeko tutoretza-erakundeek eskaintzen dute, eta erakunde horiek ezinduen mesederako gauzatu behar dituzte beren eginkizunak, ezintasuna ematen duen ebazpen judizialean definitutako mugekin. Zerbitzu horrek subsidiarioki soilik esku hartzen du, hots, dagokion pertsonak bere familia-ingurunean edo hurbileko ingurunean ez duenean tutoretzako eginkizun horiek bere gain har ditzakeen pertsonarik. ▪ Hainbat eginkizun garatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Ezintasuntzat jo aurreko eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezindutzat jo dezaten bultzatzea behar duten pertsonen kasuan. ▪ Pertsonaren balioespena egitea jarduteko gaitasunean, hau da, dagokion eskubideak baliatzeko eta defendatzeko gaitasunean dituen mugak ezartzeko. ▪ Ezindutzat hartzeko prozedurari eta tutoretzako eginkizunak gauzatzeari buruzko informazioa eta aholkuak ematea Kode Zibilaren arabera ezintasun-prozedurari hasiera eman diezaioketen senitartekoei. ▪ Informazioa eta aholkuak ematea heldu bati buruzko tutoretza gauzatzen duten senitartekoei, familia-unitatearen osara dela-eta aurrekusten bada senitarteko horiek hiltzen direnean tutoretza-erakunde batek hartu beharko duela heldu horren tutoretza. - Heldu ezinduentzako eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Tutoretza, hau da, ezindutzat hartutako pertsona ekintza guztietan ordezkatzeko, betiere ezintasun-epaiaren arabera pertsona horrek ezin baditu ekintza horiek bere kabuz egin, bai ekintza horiek esfera pertsonala hartzen badute eraginpean, bai haren ondasunak administratzeko ekintzak badira. ▪ Kuradoretza, hots, dagokion pertsonaren ondasunak administratzea eraginpean hartzen duten ekintzetan ordezkatzeko pertsona, epaiak pertsona bere bizitzaren esfera honetan soilik ezgaitzen duenean. ▪ Zerbitzua bideratzen duten helburuak bi mailatan egituratzen dira: <ul style="list-style-type: none"> - Tutoretzapeko pertsoneri dagokienez, helburuak honako hauek dira: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zaintzea arlo guztietan (osasuna, hezkuntza, lana, etxebizitza, aisia eta astialdia, eta abar) ahalik eta laguntza hoberenak izan ditzan, baita behar dituen baliabide ekonomikoak izan ditzan ere. ▪ Behar diren ekintza, jarduera eta abar guztietan ordezkatzeko eta bere eskubide guztiak baliatzea eskubide horiek defendatzeko (dagokion ebazpen judizialean kasu bakoitzean ezartzen diren muga arabera eta horien barnean) ▪ Bere ondasunen administrazioan laguntzea leialtasun eta gardentasun osoz, agintaritza judizial eskudunak emandako mandatuaren arabera. - Pertsona heldu ezinduen senitartekoak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezinduarekiko legezko erantzukizuna gauzatzen laguntzea. ▪ Lasaitasuna ematea bere senitartekoaren etorkizuneko zaintzari buruz. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa ▪ Balioespena ▪ Orientazioa ▪ Bitartekaritza - Bitartekotza ▪ Arreta soziojuridikoa (tutoretza eta kuradoretza gauzatzea)
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Beren eskubideak defendatzeko eta baliatzeko eta beren erabakiak hartzeko gaitasunik ez izateagatik babesgabetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ 18 urteko edo hortik gorako pertsonak.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Tutoretzako eta kuradoretzako eginkizunak gauzatzeko, ezintasun-epaia beharko da, baita eginkizun horiek bere gain har ditzakeen laguntzako senitartekorik ez duela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. ▪ Balioespena egiteko, informazioa emateko eta aholkularitzako eginkizunak gauzatzeko, eskatuko da ezintasun-prozedura bat abian jarrita egotea edo mota horretako prozedura bat hasia aurreikusita egotea.

2.7.2.3. Pertsona heldu ezinduentzako tutoretza-zerbitzua

	<p><i>Premia-baldintzak</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezindua edo ezintasun-prozesuan dagoen pertsona zerbitzua eskatzen den Lurralde Historikoan errolatuta egotea eskaera egiten denean. ▪ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ▪ Tutoretzako eta kuradoretzako zerbitzuak eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - interesdunak ez izatea bere eskubideak defendatzeko eta baliatzeko eta bere erabakiak hartzeko gaitasunik; - hori ematen duen epai judiziala izatea, baita tutoretza edo kuradoretza zerbitzuari esleitzen diona ere; - tutoretza- edo kuradoretza-eginkizunak bere gain har ditzakeen senitartekorik edo bestelako hurbilekorik ez izatea. ▪ Informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - ezintasun-prozeduraren xede izan daitekeen heldua izatea; - edo Kode Zibilaren arabera, ezintasun-prozedura bati hasiera eman diezaiokeen senitarteko bat izatea.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baterako ordainketari lotutako zerbitzua (ondare-egoera kontuan hartuta).

2.7.2.4. Garraio egokituko zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> Garraio egokituko zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Bere autonomian mugikortasunik ezaren ondoriozko mugak dituzten pertsonentzako atez ateko garraio-zerbitzua, mugikortasunari laguntzeko laguntza teknikoak erabiltzen dituzten pertsonen premietara egokitutako ibilgailuen bitartez ematen dena (gurpil-aulkiak, ohatilak, taka-takak edo bestelakoa) eta pertsona horiek garraio-sare publikoaren bitartez egin ezin izango lituzketen bidaia egitea ahalbidetzen duena. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Garraio egokitua
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Mugikortasunean mugak dituzten eta II. eta III. graduko mendetasun aitortuak dituzten pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintza orokorrak betetzea. Eskaera egiten denean, zerbitzua ematen duen Foru Aldundia kokatuta dagoen Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea. Mendetasun larria (II. gradua) edo mendetasun handia (III. gradua) aitortua izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten den egoeran egotea. Etxebizitzan bertan edo lehen mailako arreta emateko bizi-toki-zerbitzu batean bizitzea Norbere ibilgailua ez izatea. Garraio-sare publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> Baterako ordainketari lotutako zerbitzua. 	

2.7.3.1. Familiarekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak

Izena	<ul style="list-style-type: none"> Familiarekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu hau harreman-prestazioen multzo bat da, familia-unitateei edo bizikidetz-unitateei gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo laguntza psikosoziala ematera bideratuta dagoena, honako helburu hau izanik: <ul style="list-style-type: none"> Ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera desegokien ordeztu ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera egokiagoak izaten laguntzea, baita bizikidetz egokia izateko eta/edo kargura dituzten pertsonak behar bezala zaintzeko beharrezkoak diren gaitasunak (jarrerak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) hartzen edo garatzen laguntzea, eta hala badagokio, gurasoen, senitartekoen eginkizunak eta erantzukizunak nahiz bizikidetz-arlokoak behar bezala gauzatzea eragozten duten alderdiak aldatu egingo dira. Bizikidetz-testuinguruaren nariadura handiagoa izateko aukera prebenitzea; horretarako, portaera desegokiak edo krisi-egoerak geldiarazi egingo dira eta ekin egingo zaie. Eginkizun horiek gauzatzeko, zerbitzuak banako, familiako eta taldeko esku-hartzeak antola ditzake, eta esku-hartze horiek familiako etxebizitzan (etxeko hezkuntza eta familiako hezkuntza) nahiz etxebizitzatik kanpo gara daitezke, arlo psikosozialeko esku-hartzeen bitartez eta/edo, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoaren bitartez, bereziki Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 55.3 b) artikuluan aurreikusitako programen bitartez, hots, familietan esku hartzeko programen bitartez; esate baterako, arazoak dituzten familietan esku-hartze terapeutikoak egiteko zerbitzuak; tratu txarrak, abandonua edo esplotazioa dauden egoeretan –lan-esplotazioa barnean izanik– esku hartzeko zerbitzuak, baita sexu-abusuak daudenean ere esku hartzeko zerbitzuak. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa Balioespena – Jarraipen-balioespena Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza-arloko esku-hartzea arlo psikosozialeko esku-hartzea Lagun-egite soziala Bitartekaritza - Bitartekotza
	<i>Beste sistema batzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Terapia psikologikoa
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> Babesgabetasun-egoera larrian dauden adingabeak. Babesgabetasun-egoera larrian dauden 18 urtetik gorakoak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arlo psikosozialeko esku-hartzea adingabeen babesgabetasun larriko egoeretara bideratzen denean, ez da aurretiazko erroldatzealdirik behar izango. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak aplikatuko dira gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arlo psikosozialeko esku-hartzea helduen babesgabetasun-egoeretara bideratzen denean. Kasu guztietan, zerbitzu hori ematen duen Foru Aldundia dagoen Lurralde Historikoko udalerrri batean egon beharko da erroldatuta zerbitzua eskuratzeko baimena eskatzen denean.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Honako egoera hauekoren batean egotea: <ul style="list-style-type: none"> Babesgabetasun-egoera larrian dagoen adingabe bat edo batzuk biltzen dituen familia- edo bizikidetz-unitate bat izatea eta gizarte- eta hezkuntza-arloko eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea familia-bizikidetz eta guraso-trebetasunak hobetzeko. Babesgabetasun-egoeran dauden heldu batek edo batzuk biltzen dituen familia- edo bizikidetz-unitate bat izatea eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo laguntza psikosoziala behar izatea familia-bizikidetz hobetzeko eta kide kalteberenak zaintzeko eta arreta egiteko eginkizunak eta erantzukizunak hobeto gauzatzeko.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> Doako zerbitzua. 	

2.7.3.2. Familiarentzako elkargunea

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familiarentzako elkargunea 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Autonomia Erkidegoarena: ebazpen judizial bidez eratorritako kasuei arreta egiteko Familiarentzako Elkargunearen kasuan. 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familiarentzako Elkargunea adingabeen eta horien bizitza-unitatea osatu duten pertsonen (aita eta/edo ama, anai-arrebak, eta abar) eta beste senitarteko batzuen (bereziki aitona-amonak) eta tutoreen edo zaintzaileen eta beste ahaide batzuen arteko harremanak bermatzera eta ahalbidetzera zuzendutako aldi baterako zerbitzua da, horien arteko elkargunea ahalbidetuz, erabateko segurtasun- eta ongizate-bermeekin, gune neutral eta egoki batean. ■ Zerbitzu hori egitura independente batean edo beste gizarte-zerbitzu batzuekin partekatutako egitura batean kokatu ahal izango da; nolana ere, kasu guztietan behar diren neurriak hartu beharko dira pribatutasunaren oinarritzko baldintzak bermatzeko elkargunean sartzean. Zerbitzu horrek diziplina anitzeko talde tekniko baten laguntza izan beharko du; talde hori zerbitzuarena soilik izan daiteke edo beste gizarte-zerbitzu batzuekin partekatu ahal izango da. ■ Zerbitzu horrek bisitak egiteko hainbat formula eskaini ditzake: <ul style="list-style-type: none"> - Tutoretzapeko bisitak Familiarentzako Elkargunean, Familiarentzako Elkargunean egingo direnak zerbitzuko langileen presentziarako eta etengabeko gainbegiratzea izanik. - Gainbegiratzetik gabeko bisitak Familiarentzako Elkargunean, Familiarentzako Elkargunean gauzatuko direnak zerbitzuko langileen zuzeneko gainbegiratzetik edo etengabeko presentziarik gabe. - Familiarentzako Elkargunetik kanpo egindako tutoretzako bisitak, puntualki egingo direnak, eta ahal dela, gainbegiratzetik gabeko bisitak egin aurreko egokitzekeo tarteko fasea izango direnak. - Elkartrukeak, Familia Elkargunetik kanpo egindako tutoretzako bisitak, puntualki egingo direnak, eta ahal dela, gainbegiratzetik gabeko bisitak egin aurreko egokitzekeo tarteko fasea izango direnak. - Lagun-egiteak, adingabeari profesionalak lagun egingo diote Familiarentzako Elkargunetik adingabearen aita edo ama, tutorea edo zaintzailea, beste senitarteko batzuk edo beste ahaide batzuk dauden espetxera, ospitalera edo egoitza-establezimendura, betiere horien guztien arteko harremana baimenduta badago eta pertsona horiek ezin badira Familiarentzako Elkargunera bertaratu. Aurrekoa bazter utzi gabe, lagun-egiteak beste gizarte-zerbitzu batzuetako profesionalak ere egin ditzakete, betiere profesional horiek adingabeak zaintzeko eta babesteko eremuan jarduten badute. ■ Honako helburu hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Adingabeen segurtasuna eta ongizatea bermatzea bisita-erregimenak irauten duen bitartean. - Haurren eta/edo nerabeen eta horien aitaren, amaren, amonen, aitonen eta bestelako senitartekoen edo bestelako hurbilekoen arteko harremanak eustea. - Guraso eta seme-alaben arteko harremanak hobetzea. - Hazteko eta/edo harremanetarako trebetasunak eskura daitezkeen ahalbidetzea. - Akordioetara iristea haurren eta nerabeen garapenari eta ongizateari dagokionez. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea. ■ Gainbegiratzea, hala badagokio.
	Prestazio osagarria	<ul style="list-style-type: none"> ■ Segurtasuna (zaintza)
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bisita-eskubidea bermatuta ez daukaten edo segurtasun- eta ongizate-baldintzei dagokienez bermatuta ez daukaten adingabeak. ■ Bisita-eskubideari lotutako helduak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urtetik beherako pertsonak. ■ 18 urtetik gorako pertsonak, bisita-eskubideari lotuta daudenak
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Nahitaezkoa izango da adingabea edo, hala badagokio, zaintza edo tutoretza gauzatzen duen pertsona Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bizi izatea zerbitzua eskuratzeko denean. ■ Ez da aldez aurreko erroldatzealdirik eskatuko. ■ Nahitaezkoa izango da Familiarentzako Elkargunea erabili behar dela agintzen duen ebazpen judiziala, sistema judizial bidez eskuratzeko diren zerbitzuen kasuan;
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten diren egoeretako batean egotea. ■ Ebazpen judizial bidez eskuratzeko Familiarentzako Elkargunearen kasuan honako hau eskatuko da: <ul style="list-style-type: none"> - adingabea bikotearen hausturaren gatazkak eta bisita-erregimena ez betetzearekin lotutako arazo larriak dituzten familiako kide izatea, - edo, bikotearen hausturaren gatazkak izatea eta etxeko tratu txarren egoeretan biktimek urrutzeko eta babesteko neurri bat indarrean edo izapidetzen hasita egotea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua.	

2.7.3.3. Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Autonomia Erkidegoarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da. Prozedura horretan profesional batek edo gehiagok laguntza eta orientazioa jartzen dute gatazkan dauden alderdien eskura, haien familia-gatazka konpontzeko irtenbide onargarriak aurkitzeko elkarrizketa-prozedurari dagokionez. Profesional horiek bitartekaritzan prestakuntza izango dute, inpartzialak izango dira eta ez dute erabakiak hartzeko ahalmenik izango. Esparru horretan, honako hau hartzen da familia-bitartekaritza integralzat: Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Sistemaren gainerako zerbitzuekiko eta gizarte-babesera bideratutako beste sistema publiko batzuekiko jardun koordinatua familia- edo bizikidetzaren unitate bateko kideen arteko gatazkei erantzuteko beharrezkoak diren eremu guztietan. ■ Honako hauek izan daitezke familia-bitartekaritzako zerbitzu integralak arreta egindako gatazkek: <ul style="list-style-type: none"> - Bikotearen hausturaren ondorioz sortutako gatazkek, honako hauekin lotuta daudenak: seme-alaben zaintza eta babespea esleitzea; babespe partekatua esparruan adostu beharreko alderdiak zehaztea; babespea ez duen gurasoarentzako edo beste ahaide batzuentzako bizikidetzaren denborak; mantenu-pentsioak; etxebizitzaren erabileraren esleipena; konpentsaziozko pensioa; eta bitartekaritzaren bitartez landu daitezkeen hezkuntza-nahiz bizikidetzaren jarraibideekin eta seme-alabei arreta egiteko jarraibideekin eta abarrekin lotutako edozein alderdi. - Bikotearen hausturarekin lotuta ez dauden familia-gatazkek, honako hauekin lotuta daudenak: adin nagusiko seme-alabekin izandako bizikidetzaren arazoak; mendetasun-arriskuan edo -egoeran dauden adin nagusikoei senitartekoei arreta egitea eta zaintzea; belaunaldien arteko gatazkek, bizikidetzaren arlokoak izan edo ez; bitartekaritzaren bitartez landu daitezkeen beste familia-egoera batzuk. <p>Familia-bitartekaritzatik kanpo geratzen dira bikotekidearen, seme-alaben edo familia-unitateko edozein kideren gaineko indarkeria edo tratatu txarrak dauden kasuak, edo ez-zilegi penaltzat har daitezkeen beste edozein jardun.</p> ■ Honako hauek dira familia-bitartekaritzako zerbitzuaren helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Gune neutrala eskaintzea, familia-gatazkan protagonista diren pertsonen arteko elkarrizketa ahalbidetuko duena. - Familia-gatazkan sartuta dauden pertsonen ardura ematea beren jardunen ondorioei buruzko kontrola izan dezaten eta gatazkan protagonista diren aldetik konpromiso handiagoa har dezaten, erabakiak hartzeko gaitasuna eta erantzukizuna hirugarren pertsonen esku utzi ordez. - Haustura-prozesuetan adostutako erabakiak hartzen laguntzea eta baterako gurasotasuna sustatzea. - Haustura onartzeko prozesua eta egoera berrira egokitzeko aukera ahalbidetzea. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bitartekaritza – Bitartekaritza espezifikoa
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia- edo bizikidetzaren arazoaren egoeran dauden pertsonak
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-gatazkan sartuta dauden pertsonen artean gutxienez bat Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea. ■ Gatazkan sartuta dauden pertsonen artean ezkontza-lotura edo horren antzeko loturaren bat, edo odol-ahaidetasuneko laugarren mailarainoko familia-lotura bat, adopzioa edo ezkontza-ahaidetasuna izatea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zuzenbide pribatuko arlo jakin batzuei buruzko familia- edo bizikidetzaren gatazka izatea. Arlo horiei dagokienez, indarreko antolamendu juridikoak prestasun librean, edo, hala badagokio, judizialki homologatuak izateko aukera onartu behar die interesdunei. ■ Erabakiak hartzea ahalbidetuko duen eta bide judizialera jo behar izatea saihestuko duen esku-hartze profesionala eskatzea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Doako zerbitzua. 	

2.7.4. Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Honako hau hartzen da arreta goiztiartzat: 0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzenduriko esku-hartzeen multzoa, helburutzat nahasmenduak dauzkaten haurrek beren garapenean agertzen dituzten, edo horiek pairatzeko arriskua duten, premia iragankor edo iraunkorrei al bait lasterren erantzutea duena. Haurraren globaltasuna kontuan hartu behar duten esku-hartze horiek diziplina arteko orientazioko profesionalen talde batek planifikatu behar ditu. ■ Arreta goiztiarrak honako helburu hauei erantzun behar die: <ul style="list-style-type: none"> - Gabeziak edo eskasiak adingabearen osotasun globalean dituen ondorioak murriztea. - Bigarren mailako edo nahaste bati edo arrisku handiko egoera bati lotutako gabeziak edo eskasiak ager daitezten saihestea edo murriztea. - Adingabearen garapena optimizatzea, ahal den neurrian. - Konpentsatzeko, oztupoak ezabatze eta premia espezifikoetara egokitzeko beharrezkoak diren mekanismoak sartzea. - Familiaren eta adingabea bizi den ingurunearen premiak eta eskariak kontuan hartzea eta betetzea. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Orientazioa ■ Jarraipen-balioespena ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: ■ Lagun-egite soziala
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Garapenaren nahasteak dituzten edo nahaste horiek izateko arriskua duten pertsonak
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 6 urteko edo hortik beherako pertsonak.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzua ematen duen Lurralde Historikoko erroldatuta egotea eskaera egiten den egunean. ■ Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak diagnostikatuta izatea garapenaren nahaste fisikoa, psikikoa edo zentzumenezkoa, edo nahaste hori izateko arriskuan egotea, prematuritatea, sortzetiko asalduek, entzefalopatiak, atzerapen psikomotorra edo bestelako kausak direla medio.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Fitxa honetako hartzaileei buruzko atalean zehazten dien egoeran egotea. ■ Arreta goiztiarreko zerbitzuak behar izatea Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) ezarritako balioespen teknikoaren arabera.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua.	

2.7.5. Etxean tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeiei, adinekoei eta desgaitasunen bat duten pertsonen laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak.

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Etxean tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeei, adingabeiei, adinekoei eta desgaitasunen bat duten pertsonen laguntza psikosoziala eta soziojuridikoa emateko zerbitzuak. 		
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 		
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Zerbitzu horiek bere osotasunean ekiten diete gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean, arlo psikosozialeko esku-hartzean eta, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoan dauden premiei, baita aholkularitza soziojuridikoko premiei ere, tratu txarren egoeren eta sexu-askatasunaren aurka egon litezkeen ekintzen ondoriozkoak direnei, edozein izanik ere horiek gertatu diren eremua. ■ Zerbitzu horiek biktimentzat nahiz erasotzaileentzat dira. ■ Honako helburu hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Biktima babestea. - Biktimari, eta hala badagokio, biktimaren kargura dauden pertsonen, tratu txarren edo beren sexu-askatasunaren aurkako ekintzen ondorioz pairatutako kalte traumatikotik errekeratzen laguntzea. - Emozionalki errekeratzen laguntzea, baita autoestimua hobetzen ere, distantzia jarriz eta erasotzaileengandik urruntzeari aurre egiteko nahiz etorkizunean sor litezkeen eraso-saialdiei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak hartuz edo garatuz. - Erasotzaileari tratamendu bat ahalbidetzea, bere portaera erasokorra desagerraraztea edo eustea ahalbidetuko duena. - Erasotzaileari laguntzea tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen sorburu izan diren alderdiei buruzko kontzientzia hartzen eta beharrezkoak diren gaitasunak garatzen bere portaera aldatzeko, etorkizuneko gertaerak saihesteko eta, hala badagokio, familia- edo bizikidetzaren nukleoaren urruntzea errespetatzeko. 		
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak.</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Balioespena – Jarraipen-balioespena ■ Orientazioa ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - hezkuntza-arloko esku-hartzea - arlo psikosozialeko esku-hartzea ■ Lagun-egite soziala ■ Laguntza soziojuridikoa ematea biktimari prozesu aurreko eremuan 	
	<i>Beste sistema batzuen prestazioak</i>	<table border="1"> <tr> <td><i>Osasun Sistema</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ■ Terapi psikologikoa </td> </tr> </table>	<i>Osasun Sistema</i>
<i>Osasun Sistema</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Terapi psikologikoa 		
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 		
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 		
Modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzua, tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima direnentzat. ■ Laguntza psikosoziala emateko zerbitzua erasotzaileentzat, tratu txarreko ekintzen edo sexu-askatasunaren aurkako delituen egileentzat. 		
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima izatea. ■ Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen egile izatea. 	
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adin-mugarik gabe 	
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusitako titulartasun-baldintza orokorrak betetzea, artikuluko horretako 3. paragrafoan aurreikusitako gizarte-premiazko egoeretako bat ez denean izan ezik. ■ Zerbitzua eskuratzen denean zerbitzua eman duen Lurralde Historikoko udalerrietako batean erroldatuta egotea. 	
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktima direnentzako laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzuaren modalitatea eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktimak izatea edo noizbait izana izatea, betiere horien pisuzko zantzuak baldin badaude. - Tratu txarreko ekintzen edo sexu-indarkeriaren aurkako ekintzen biktima den pertsonaren bizikidetzaren unitateko kide izatea, bereziki adingabeak edo heldu ahulak edo biktimak arreta egiten dien mendeak badira. ■ Erasotzaileentzako laguntza psikosoziala emateko zerbitzuaren modalitatea eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen egile izatea. 	
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Doako zerbitzua 		

2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuan txertatuta dago eta bi eginkizun mota ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Eginkizun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> ■ Familia-harrera sustatzea, familia hartzaileak erakartzeko zabalkunde-kanpainen bitartez (gizarte osoari zuzenduta egongo lirateke kanpaina horiek). ■ Familia hartzaileak hautatzea, haurra edo nerabea hartzea eskatu duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantziak balioetsiz, haurraren edo nerabearen premiak betetzea bermatzeko egokiak ote diren eta ezarritako lege-betebeharrak betetzen ote dituzten zehazteko. ■ Familia hartzaileen zerrenda eguneratu bati eustea. ■ Familia-harrerari buruzko informazioa: prozedura, harrera gauzatzea eta harreraren ondorioak edo eragina. - Espezifikoki familia-harreraren bat formalizatu duten familientzat diren eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> ■ Familia hartzaileei laguntzea, beren gain hartzen dituzten eginkizunak gauzatzeari nahiz orientatzeari dagokionez, eta hala badagokio, harreraldia amaitzen denean edo adin-nagusitasuna amaitu ondoren bizikidetzak jarraitzen duenean, laguntzea. ■ Eratutako familia-harrerak aldi behin gainbegiratzea, hartutako haurraren edo nerabearen premietara eta interes handienera egokituz garatzen ari ote diren zehazteko. ■ familia-harrerarekin loturiko gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoak izapidetzea. 	
Eskaintzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Balioespena – Jarraipen-balioespena ■ Bitartekaritza - Bitartekotza ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea. <ul style="list-style-type: none"> - Arlo psikosozialeko esku-hartzea - Hezkuntza-arloko esku-hartzea (familientzako prestakuntza) ■ Lagun-egite soziala ■ Arreta sozial eta juridikoa
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adingabeak, betiere horientzat familia-harrera babes-alternatiba egokituz jotzen bada, administrazio-erabaki edo erabaki judizialen bati erantzuten dionean nahiz arrazoi larriak direla-eta borondatezko zaintza-eskaeraren bati erantzuten dionean. ■ Haur edo neraberen bat hartu nahi duten familia- edo bizikidetz-unitateak, dagozkien egokitzapen-baldintzak betetzen badituzte.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urtetik beherako pertsonak, hartutako pertsonen kasuan. ■ 18 urtetik gorako pertsonak, hartzaileen kasuan.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hautatua izateko eta familia hartzaileen zerrendan egoteko: <ul style="list-style-type: none"> - Hartzailea edo hartzaileak familia-harrera eskatu duen Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eskaera egiteko eta familia-harrera formalizatzeko uneetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea eskaeraren aurreko 12 hilabeteetan. - Familia-harrera eskatzea. ■ Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Familia-harrera formalizatuta egotea
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hautatua izateko eta familia hartzaileen zerrendan egoteko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 73. artikuluan aurreikusitako egokitzapen-irizpideak betetzea: <ul style="list-style-type: none"> - Bizibide egonkorak eta nahikoak izatea. - Haurrari edo nerabeari arreta emateko moduko osasun-egoera fisiko eta psikikoan egotea. - Baldin eta hartzaile izateko eskaera egiten dutenek giza elkarte osatzen dutela egiaztatzen badute, dela ezkontza bidezkoa edo dela egitezkoa, gutxienez urtebete inguruan elkarrekin bizi izana, jarraitasunez bizi ere, eskaera egin aurre-aurreko denboran. - Familia-bizitza egonkorra izatea. - Haurraren edo nerabearen integrazioarako familia- eta gizarte-ingurune egoki batean bizitzea. - Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez egotea haurrarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen jazoerarik. - Jarrera-malgutasuna eta egoera berrietara egokitzeko ahalmena erakustea. - Haurraren edo nerabearen egoerari datxekion zailtasuna ulertzea. - Haurraren edo nerabearen historia pertsonalari eta familia-bizitzari begirunea gordetzea.

2.7.6.1. Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua

		<ul style="list-style-type: none"> - Haurren edo nerabearen eta haren jatorrizko familiaren arteko harremanak onartzea, eta, hala balegokio, baita agintaritza publiko eskudunak ezarritako bisita-erregimena ere. - Prestakuntzan eta zainketa teknikoan elkarlanean aritzeko eta konpromisoa hartzeko jarrera positiboa erakustea. - Familia-unitateko kideek familia-harreraren aldeko jarrera edukitzea. - Familia-harrerarako gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurren edo nerabearen interes handienari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea. ▪ Laguntza- eta jarraipen-zerbitzuak eskuratzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Familia-harrerako egoeran edota familia-harreraren formalizazioaren aurreko edo prestaketarako faseetan dagoen adingabea izatea. - Familia hartzailearen bateko kidea izatea, familia-harrera formalizatu denean nahiz aurreko edo prestaketako faseetan dagoenean. - Zaintza delegatu duen familia biologikoa izatea.
<p>Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Doako zerbitzua. 	

2.7.6.2. Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena 	
Definizioa eta helburua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzuak –haurrak eta nerabeak babesteko lurralde-zerbitzu espezializatuan txertatuta dagoenak– bi eginkizun mota ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Eginkizun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Adopzioa –bereziki, premia bereziak dituzten haurrena– sustatzea, orokorrean biztanleria osoari zuzendutako kanpainen bitartez, informazioa emateko eta familiak erakartzeko kanpainen bitartez, hain zuzen. ▪ Adopzioaren hautagaiak diren familiak aukeratzea, haurra edo nerabea adoptatzeko eskabidea egin duten pertsonen edo familia-unitateen zirkunstantzien balioespenaren bitartez, egokiak ote diren zehazteko xedez. ▪ Familia adoptatzaileen zerranda eguneratuari eustea. - Espezifikoki adopzioa formalizatu duten familiei dagozkien eginkizunak: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia adoptatzaileentzako laguntza, adopzio-prozeduran aholkatzeko. ▪ Aldian behingo gainbegiratzea, haurren edo nerabearen premietara eta interes handienara egokitzen jarraitzen ote duten zehazteko. 	
Antolatzen dituen prestazioak	<i>Gizarte-zerbitzuen berezko prestazioak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa ■ Balioespena – Jarraipen-balioespena ■ Bitartekaritza - Bitartekotza ■ Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> - Arlo psikosozialeko esku-hartzea - Hezkuntza-arloko esku-hartzea (familientzako prestakuntza) ■ Lagun-egite soziala ■ Arreta sozial eta juridikoa
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta. 	
Zerbitzu mota	<ul style="list-style-type: none"> ■ Babesteko eta esku hartzeko zerbitzua 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adingabeak, betiere horientzat adopzioa babes-alternatiba egokitzen jotzen bada. ■ Haur edo nerabearen bat adoptatu nahi duten familia- edo bizikidetzak unitateak, dagozkien egokitasun-baldintzak betetzen badituzte.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urtetik beherako pertsonak, adoptatutako pertsonen kasuan. ■ 18 urtetik gorako pertsonak, adoptatzaileen kasuan.
Eskuratzeko baldintzak	<i>Administrazio-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Adoptatzailea edo adoptatzaileak adopzioa eskatu duen Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eskaera egiteko eta adopzioa formalizatzeko unean. ■ Egokitasun-deklarazioa eskatzea. ■ Adopzio-prozedura hastea.
	<i>Premia-baldintzak</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 73. artikuluan adopziorako aurreikusitako egokitasun-irizpideak betetzea: <ul style="list-style-type: none"> - Bizibide egonkorak eta nahikoak izatea. - Haurrari edo nerabeari arreta emateko moduko osasun-egoera fisikoa eta psikikoa egotea. - Baldin eta adopzioa eskatzen dutenek egiaztatzen badute elkarrekin bat osatzen dutela –ezkontza bidezkoa edo izatezkoa–, gutxienez bi urtean (segidan) elkarrekin bizi izana, eskaera egin aurretik. - Familia-bizitza egonkorra izatea. - Haurren edo nerabearen integrazioarako familia- eta gizarte-ingurune egoki batean bizitzea. - Adopzioa eskatzen duten pertsonen historian ez egotea haurrarentzat edo nerabearentzat arriskutsu izan daitekeen jazoerarik. - Jarrera-malgutasuna eta egoera berrietara egokitzeko ahalmena erakustea. - Haurren edo nerabearen historia pertsonala eta familiakoa errespetatzea eta onartzea. - Lankidetzarako eta konpromisorako jarrera positiboa agertzea. - Familia-unitateko kide guztiak adopzioaren aldeko jarrera izatea. - Adoptatzaileek adoptatutako haur edo nerabearen behar bezalako garapena mugatuko ez duen adina izatea. - Adopzioa egiteko gogoia erakustea, eta, gogo horretan, haurren edo nerabearen interes handienari, haren eskubideen babesari eta eskubide horien garapenaren bermeari lehentasuna ematea.
Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa	Doako zerbitzua.	

II. ERANSKINA.- GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN BILDUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ERREGULAZIOA

Eranskin honek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari txertaturiko prestazio ekonomiko guztien erregulazioa biltzen du fitxa-moduan. Fitxen zenbakikuntza bat dator Dekretu honen 3. artikuluaurren paragrafoan jasotako prestazio-zenbakikuntzarekin eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluaurren 3. paragrafoan jasotako Katalogoko zenbakikuntzarekin; prestazio ekonomiko mota berberaren barnean hainbat modalitate hartu badira, horietako bakoitzerako fitxa indibidual bat zuzendu da, eta dagokion azpizenbakikuntza gauzatu da.

3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzeko edo arintzeko prestazioak

3.1.1. Laguntza Pertsonalerako prestazio ekonomikoak

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Laguntza Pertsonalerako prestazio ekonomikoak. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aldundiarena. 	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Prestazio horren helburua, batetik, mendetasun handiko pertsonen autonomia sustatzea da, eta bestetik, laguntza pertsonala kontratatzen laguntzea, onuradunari hezkuntza jasotzen eta lanera joaten lagunduko diona, baita bere eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak gauzatzean bizitza autonomoagoa izaten lagunduko diona ere. 	
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> ■ Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatuta dago. ■ Aldian behingoa da. ■ Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatutako gainerako prestazio ekonomikoekin bateraezina da ■ Mendetasunari arreta emateko zerbitzu guztiekin bateragarria da, bigarren mailako arretarako egoitza-zentro edota -zerbitzueta edo lehen mailako arretarako ostatu-zerbitzueta (itundutako publikoak edota pribatuak edo itundu gabeko pribatuak) modu iraunkorrean emandako arreta salbuespen bakarra izanik. Ostatu-zerbitzu bateko aldi baterako egonaldiren batekin bateragarri egiten badira, laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa etenda geratuko da aldi baterako, egoitza-egonaldia amaitzen den arte. ■ 	
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa urtean behin finkatuko dute Foru Aldundiek mendetasun-gradu bakoitzerako, eta estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko da gutxieneko erreferentziatzat. ■ Gehieneko zenbateko horiek honako hauei jarraiki minoratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuaren kostua, aurreko idatz-zatian aipaturiko gehieneko zenbateko-mugarekin. - Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan. - Mendetasun-egoerei arreta emateko gizarte-zerbitzu bat edo bestelakoren bat aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe. - Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: <ul style="list-style-type: none"> • baliaezintasun handiko osagarria; • % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria • Hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria. • Hirugarren pertsonen laguntzagatiko sorospena. 	
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta. 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Desgaitasunak dituzten pertsonak, aitortutako III. graduako mendetasuna dutenak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 3 urteko edo hortik gorako pertsonak
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Mendetasuna duen pertsonari aplikatzeko baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-aitorpena edukitzea eta mendetasun handiaren balorazioa jaso izana. - Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintzak betetzea. - Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan errolatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian. - Behar dituen zerbitzuak erabakitzeko, kontrolatzeko eta laguntzaile pertsonalari jarraibideak emateko gaitasuna izatea, honako kasu hauetan izan ezik. <ul style="list-style-type: none"> • onuradunak horretarako adina ez duenean; kasu horretan, guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonari eskatuko zaio gaitasun hori; • onuradunak eginkizun horiek modu autonomoan betetzeko gaitasun intelektuala ez duenean; kasu horretan, erabaki-hartze lagundurako emandako beharrezko laguntzeekin gauzatu ahal izango ditu. - Hezkuntza- edo lan-jarduerak edota eguneroko bizitzarako oinarriko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko laguntza behar izatea. ■ Laguntzaile pertsonal gisa diharduen pertsonari aplikatzeko baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> - Adin nagusikoa izatea. 	

3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzeko edo arintzeko prestazioak

3.1.1. Laguntza Pertsonalerako prestazio ekonomikoak

	<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuak ematen dituen enpresarekin formalizatutako kontratu baten bitartez ematea zerbitzuak, edo bestela, zuzenean laneko edota zerbitzua emateko kontratu baten bitartez. - Estatu-lurraldean legez bizitzea. - Gizarte Segurantzako afiliazio-, alta- eta kotizazio-baldintzak betetzea. - Laguntza pertsonaleko zerbitzuak emateko egokitasun-baldintzak betetzea. - Onuradunaren ezkontidea, eta/edo odol-ahaidetasun, ezkontza-ahaidetasun edo adopzio-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko senitartekoa ez izatea.
--	--

3.1.2. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzeko edo arintzeko prestazioak

3.1.2. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarrek laguntza ekonomikoa

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako ordainketa bakarrek laguntza ekonomikoa 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Autonomia Erkidegoarena. 	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Genero-indarkeriaren biktimak izanik lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzenduta daude eta diru-sarreraren falta aldi baterako arintzeko jomuga dute, denbora-tarte horretan pertsonak bere egoera egonkortzea eta berari nahiz bere kargura dauden pertsonen dagozkien pentsioak edota prestazio ekonomikoak izapidetzea lortzeko. 	
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> ■ Indarkeriaren Biktimak diren Emakumeentzako Ordainketa Bakarrek Laguntza Ekonomikoak honako ezaugarri hauek ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Ordainketa bakarrek da. - Administrazio publikoek edo horien edozein erakunde edo sozietatek nahiz edozein entitate pribatuk helburu horretarako ezarritako beste edozein laguntza jasotzearekin bateraezina da. - Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren kontrako Delituen Biktimentzako Laguntzei eta Sorospenei buruzko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusitako laguntzeekin bateragarria da, eta baita diru-sarreraren maila bermatzeko bestelako prestazioekin ere, betiere kontuan hartuz horiek diru-sarrera gisa zenbatuko direla, premia-baldintzetan eskuratze-baldintza gisa eskatutako errenta-maila finkatzeko. 	
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Langabezia-subsidioaren zenbatekoa izango da haren erreferentea. ■ Oro har, langabezia-subsidioko sei hilabeteren balioak izango da. ■ Modu espezifikoan: <ul style="list-style-type: none"> - Biktimak % 33ko edo hortik gorako graduko desgaitasunen bat ofizialki aitortuta duen kasuan, langabezia-subsidioko 12 hilabeteren balioak izango da laguntzaren zenbatekoa. - Biktimak berekin bizi diren pertsonaren bat bere kargu badu, laguntzaren zenbatekoa langabezia-subsidioko 18 hilabeteren balioak izatera iritsi ahal izango da. - Familia-erantzukizunak izanik, biktima edo bere kargura egonik berarekin bizi diren pertsonetako batek % 33ko edo hortik gorako desgaitasunen bat ofizialki aitortuta badu, laguntzaren zenbatekoa langabezia-subsidioko 24 hilabeteren balioak izatera iritsi ahal izango da. 	
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bigarren mailako arreta. 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ■ 18 urteko edo hortik gorako emakumeak ■ Emantzipatutako emakume adingabeak
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> ■ Indarkeriaren biktima izatea ziurtatzea, honako bitartekoren bat baliatuta: <ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriako gertakariet eragindako kondena-epaia, biktimaren aldeko babes-neurriak hitzartzen duena. - Laguntza eskatu den egunean indarrean dagoen babes-agindua. - Salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostena, salatzailea genero-indarkeriaren biktima delako seinaleak daudela jasotzen duena. ■ Lana lortzeko zailtasun bereziak izatea eta zailtasun horiek Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako Txostenaren bitartez egiaztatuta edukitzea. ■ Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik gorako errentarik ez izatea (hilabeteko zenbaketan), bi aparteko ordainsarien zati proportzionala kontuan izan gabe. ■ Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea. ■ Laguntza hori aurretik jaso ez izana. ■ Onuraduna eta bere kargura dauden pertsonak elkarrekin bizi direla egiaztatzea. 	

3.2. Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioak

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Familia-ingurunekeo Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldundiarena 	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zaintzaile ez-profesionalak mendeko pertsonari emandako arretaren ondoriozko gastuak betetzen laguntzeko helburua du, betiere zaintzailea mendeko pertsonaren familia-ingurunekeo bada, haren zaintzaile nagusi gisa badihardu eta arreta bere kabuz nahiz beste pertsonaren batek lagunduta (hots, beste pertsona hori gainbegiratu) ematen badu. 	
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatuta dago. ▪ Aldian behingoa da. ▪ Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatutako gainerako prestazio ekonomikoekin bateraezina da ▪ Mendetasunari arreta emateko zerbitzu guztiak bateragarria da, bigarren mailako arretarako egoitza-zentro edota -zerbitzuetan edo lehen mailako arretarako ostatu-zerbitzuetan (itundutako publikoak edota pribatuak edo itundu gabeko pribatuak) modu iraunkorrean emandako arreta salbuespen bakarra izanik. Ostatu-zerbitzu bateko aldi baterako egonaldiren batekin bateragarri egiten badira, prestazio ekonomikoa etenda geratuko da aldi baterako, egoitza-egonaldia amaitzen den arte. ▪ Onuradunari emandako arretaren kalitatea bermatzeko, Familia-ingurunekeo Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa honako elementu hauek txertatuz antolatuko da: <ul style="list-style-type: none"> - Etxean emandako arretaren gainbegiratzea, benetako erabilera eta egokitzapena, gainbegiratze-baliabide espezifiko baten bitartez. Baliabide hori ez da erabiliko baldin eta prestazioaren onuraduna ELZren, lehen mailako arretarako eguneko zerbitzuren baten edota bigarren mailako arretarako eguneko zentzoren baten erabiltzailea bada aldi berean. - Zaintzaile nagusiak arretaren karga bere gain hartzeko, eta hala badagokio, bestelako zaintzaileak gainbegiratzeko gauzaturiko prestakuntza eta gaikuntza. 	
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa urtean behin finkatuko dute Foru Aldundiek mendetasun-gradu bakoitzerako, eta estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko da gutxieneko erreferentziatzat. ▪ Zenbateko hori honako hauen arabera minoratuko da: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasun-egoerei arreta emateko gizarte-zerbitzu bat edo bestelakoren bat aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe. - Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: <ul style="list-style-type: none"> • baliaezintasun handiko osagarria; • % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko esleipen ekonomikoaren gehigarria; • Hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatiko gehigarria; • Hirugarren pertsonen laguntzagatiko sorospena. 	
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren mailako arreta. 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I., II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe.
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arreta emandako pertsonari aplikatzeko baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> - Mendetasuna aitortuta edukitzea. - Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko baldintzak betetzea. - Eskiera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea eta bertan errolatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian. - Mendetasun-egoeraren aitopen-eskiera egin baino lehen familia-ingurunean zaintzak jaso izana. - Zaintza egokiak emateko bizigarritasun- eta irisgarritasun-egoera egokietan dagoen etxebizitza bat edukitzea. ▪ Zaintzaileari aplikatzeko baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> - Adin nagusikoa izatea. - Estatu-lurraldean legez bizitzea. - Mendeko pertsonaren etxebizitzan errolatuta egotea. - Gizarte Segurantzako afiliazio-, alta- eta kotizazio-baldintzak betetzea. - Mendetasun-egoera (horren gradua edozein izanik ere) aitortuta ez edukitzea. - Mendeko pertsonaren eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zaintza- eta laguntza-eginkizunak bere kabuz betetzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa edukitzea. - Onuradunari arreta emateko nahikoa dedikazio-denbora izatea. - Zaintzak ohiko etxebizitzan ematea. - Mendeko pertsonari egokitzen zaizkion arreta eta zaintza motak –arreta pertsonalizatuko planean zehaztutakoak– eskaintzea. - Gizarte-zerbitzuek zaintzak ematearen alorrean agindutako laguntza- eta prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko prest egotea. - Gainbegiratze-baliabideak, edo hala badagokio, etxeko laguntza-zerbitzuak edota eguneko zerbitzuak edo zentroak emandako jarraibideak, irizpideak edo gomendioak betetzea. ▪ Baldintza komunak: <ul style="list-style-type: none"> - Mendeko pertsonaren eta zaintzailearen artean ahaidetasun-lotura egotea: ezkontidea, izateko bikotea edota 	

3.2. Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioak

hirugarren mailara arteko odol-ahaidetasunezko, ezkontza-ahaidetasunezko edota adopzioagatikoko ahaideak izatea.

- Bizikidetzalotura egotea.

Mendetasun-egoeran dagoen pertsona landa-ingurune batean bizi bada, landa-ingurune horretan baliabide publiko edo pribatuak urriak badira, (egiaztatutako urritasuna) edota despopulazioa badago, eta zirkunstantzia horiek, geografia-zirkunstantziak edota beste motaren batekoek bestelako laguntza-modalitateak galarazi edo oztopatzen badituzte, ahaidetasun- eta bizikidetzalotura-betebeharrak salbuetsita geratuko dira. Horrelako kasuetan, mendeko pertsonarekin ahaidetasun-loturarik ez duten eta harekin bizi ez diren zaintzaile ez-profesionalek zaindutako mendeko pertsonari ere eman ahal izango zaie prestazioa, betiere udalerriri berean edo alboko udalerrireren batean bizi badira, eta baita aurretiko urtebeteko denbora-tartean bertan bizi ere.

3.3. Baliabide teknologikoak eskuratzeko prestazioak

3.3.1. Berreskuratu ezin diren babes-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berreskuratu ezin diren babes-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa. 	
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldundiarena. 	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Autonomia pertsonaleko mugak dituzten pertsonen laguntzeko produktu berreskuraezinak erostea, eta hala badagokio, instalatzea erraztea, pertsona horiek autonomiaz moldatzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien faboratzeko eta/edo beste pertsonaren batek eguneroko oinarrizko jarduerak gauzatzeko emandako laguntza faboratzeko. ▪ Horretarako, berreskuraezinak izango dira beren ezaugarriak direla medio besterenezinak diren laguntzeko produktuak, eta, hortaz, erabiltzaile bakar batentzat onuragarriak direnak edo, salbuesenez, aldi berean hainbat pertsonarentzat onuragarriak direnak. 	
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ordainketa bakarrekoa da, behar den laguntzeko produktu bakoitzeko. ▪ Eskatzaileak xede berbererako lorturiko bestelako laguntzekin bateragarria da, betiere jasotako laguntzen guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen erositako gailuaren guztizko zenbatekoa. 	
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Foru Aldundiek urtero finkatuko dute laguntzaren gehieneko zenbatekoa laguntzeko produktu bakoitzeko, batez besteko merkatu-prezioei jarraiki. ▪ Gehieneko zenbateko horiek honako hauei jarraiki minoratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Produktuaren benetako kostua. - Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan. 	
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bigarren mailako arreta. 	
Hartzaileak	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I., II. eta III. graduak mendetasun-egoeran dauden pertsonak ▪ % 33ko edo hortik gorako graduak desgaitasunen bat duten pertsonak.
	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adin-mugarik gabe
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ I., II. edo III. graduak mendetasuna aitortuta edukitzea, edo % 33ko edo hortik gorako mendetasun-kalifikazioa izatea. ▪ Eskatutako laguntzeko produktua behar duela aitortuta edukitzea, Laguntzeko eta Ingurunera Egokitzeko Produktuen Zerbitzuen balioespen-txostenaren bitartez eskatua (2.7.2.2 fitxa). ▪ Eskatera aurkezten denean, laguntza ekonomikoa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea. ▪ Mota bereko laguntzeko produkturen bat erosteko laguntzarik ez jaso izana eskaeraren aurreko 6 urteetan, betiere dagokion txosten teknikoaren bitartez behar bezala justifikatutako salbuesenezko kausaren bat ez bazegoen. ▪ Laguntzeko produktuak eskuratzeko ezarritako gehieneko muga baino banako gaitasun ekonomiko txikiagoa izatea, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian banako gaitasun ekonomikoari dagokionez zehaztutako moduan. 	

3.3. Baliabide teknologikoak eskuratzeko prestazioak

3.3.2. Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa					
Izena	<ul style="list-style-type: none"> Ohiko etxebizitzan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa. 				
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> Aldundiarena. 				
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Autonomia pertsonaleko mugak dituzten pertsonen ohiko etxebizitzan eta/edo ibilgailu partikularretan egokitzapenak egitea erraztea, pertsona horien irisgarritasuna hobetzeko, pertsona horiek autonomiaz moldatzeko dituzten aukerak ahalik eta gehien faboratzeko eta beste pertsonaren batek eguneroko oinarrizko jarduerak gauzatzen emandako laguntza faboratzeko. <ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzan egindako egokitzapenen kasuan, ohiko etxebizitza baino ez dute hartuko eraginpean, etxebizitzaren barnean nahiz etxebizitza dagoen eraikineko elementu komunetan. Egokitzapen-obrak egiturazko egokitzapenentarako obrak izan daitezke, edo bestela, laguntzeko produktuak instalatzeko obra osagarriak. Ibilgailuan egindako egokitzapenen kasuan, ibilgailu partikularra baino ez dute hartuko eraginpean, onuradunarena nahiz familiarra. 				
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> Ordainketa bakarrekoa, baimendutako egokitzapen-obra bakoitzeko. Eskatzaileak xede berbererako lorturiko bestelako laguntzekin bateragarria da, betiere jasotako laguntzen guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen egoitzapenaren guztizko kostua. Etxebizitzan egokitzapenen bat egiteko laguntzaren kasuan, desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako etxebizitza gisa kalifikatutako etxebizitzak baliatzearekin (lehen okupazioan) bateraezina da. 				
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> Foru Aldundiek urtero finkatuko dute laguntzaren gehieneko zenbatekoa egokitzapen bakoitzeko, batez besteko merkatu-prezioei jarraiki. Gehieneko zenbateko horiek honako hauei jarraiki minoratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> Egindako egokitzapenaren benetako kostua. Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan. 				
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> Bigarren mailako arreta. 				
Hartzaileak	<table border="1"> <tr> <td><i>Hartzaileen egoera</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> I., II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak. % 33ko edo hortik gorako graduko desgaitasunen bat duten pertsonak. </td> </tr> <tr> <td><i>Hartzaileen adina</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe. </td> </tr> </table>	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> I., II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak. % 33ko edo hortik gorako graduko desgaitasunen bat duten pertsonak. 	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe.
<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> I., II. eta III. graduko mendetasun-egoeran dauden pertsonak. % 33ko edo hortik gorako graduko desgaitasunen bat duten pertsonak. 				
<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> Adin-mugarik gabe. 				
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> I., II. edo III. graduko mendetasuna aitortuta edukitzea, edo % 33ko edo hortik gorako mendetasun-kalifikazioa izatea. Eskatutako egokitzapena behar duela aitortuta edukitzea, Laguntzeko eta Ingurunera Egokitzeko Produktuen Zerbitzuaren balioespen-txostenaren bitartez eskatua (2.7.2.2 fitxa). Indarreko araudian markatutako irisgarritasun-irizpide guztiak betetzen dituen egokitzapen-proiektua aurkeztea, Foru Aldundiak aurretiaz onetsitako ezintasun nabarmeneko kasuetan izan ezik. Eskaera aurkezten denean, laguntza ekonomikoa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean errolatuta egotea. Mota bereko egokitzapenen bat egiteko laguntzarik ez jaso izana eskaeraren aurreko 10 urteetan, betiere dagokion txosten teknikoaren bitartez behar bezala justifikatutako salbuespenezko kausaren bat ez bazegoen. Egokitzapen mota desberdinak eskuratzeko ezarritako gehieneko muga baino banako gaitasun ekonomiko txikiagoa izatea, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian banako gaitasun ekonomikoari dagokionez zehaztutako moduan. 				

3.4. Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazioak

Izena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzuarekin Lotutako Prestazio Ekonomikoa. 				
Eskumena	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldundiarena, aldundiaren eskumeneko zerbitzuekin lotuta badago. ▪ Udalarena, udalaren eskumeneko zerbitzuekin lotuta badago. 				
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-arriskuan edota mendetasun-egoeran dagoen pertsonari arreta emateko gizarte-zerbitzuren bat –pribatua eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatu gabea– hartzen laguntzeko jomuga du, lekurik geratzen ez delako, ezin denean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatutako izaera bereko zerbitzu publiko edo pribatuen bat eskuratu. ▪ Mendetasun-arriskuan dauden pertsonen kasuan, hartzaile horientzako lehen mailako arretarako zerbitzuekin lotuta egon ahal izango du prestazioak: <ul style="list-style-type: none"> - etxez etxeko laguntza-zerbitzua - eguneko arretarako zerbitzuak - ostatu-zerbitzuak. ▪ Mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, prestazioak honako hauekin lotuta egon ahal izango du: <ul style="list-style-type: none"> - hartzaile horientzako lehen mailako arretarako zerbitzuak: <ul style="list-style-type: none"> • etxez etxeko laguntza-zerbitzua, • eguneko arretarako zerbitzua, I. graduko I. mailako mendetasuna duten pertsonak direnean, • ostatu-zerbitzuak, I. graduko mendetasuna duten pertsonak direnean. - hartzaile horientzako bigarren mailako arretarako zerbitzuak: <ul style="list-style-type: none"> • Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzuak edo zentroak. • Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zerbitzua edo zentroa. • Adinekoentzako egoitza-zentroak. • Desgaituentzako egoitza-zentroak. • Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak. 				
Prestazioen ezaugarriak eta horiek jasotzeko baldintzak.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren bati arreta emateko bada, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatuta dago. ▪ Aldian behingoa da. ▪ Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren barruan kokatutako prestazio ekonomikoekin bateraezina da ▪ Etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin eta/edo telelaguntza-zerbitzuarekin bateragarria da, prestazioa lehen edo bigarren mailako eguneko arretarako zerbitzuren edo gaueko arretarako zerbitzuren bat hartzeko den kasuetan. Orobat, prestazioa lehen edo bigarren mailako eguneko arretarako zerbitzuarekin edo gaueko arretarako zerbitzuarekin bateragarria da, prestazioa etxez etxeko laguntza-zerbitzuren bat hartzeko den kasuetan. ▪ Prestazioa pertsonak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatutako tokiren bat lortzen duenean iraingitzen da. ▪ Salbuespenezkoa da, 1.2 fitxan jasotako moduan etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin lotuta dagoenean izan ezik. Ondorioz, Dekretu honen 14.6 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, erreferentziako profesionalak, bere agindu teknikoan, zerbitzuarekin loturiko prestazio ekonomikoren baten emakida aukeratzen duenean, espezieko zerbitzuaren prestazioa aukeratu ordez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan tokirik ez dagoela justifikatu beharko du, eta baita merkatu pribatuan tokia dagoela ere. 				
Zenbatekoa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prestazio ekonomikoaren gehieneko zenbatekoa urtean behin finkatuko dute Administrazio eskudunek. Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat direnean, estatuak ekitaldi bakoitzerako ezarritakoa hartuko dute zenbateko horiek erreferentziatzat. ▪ Gehieneko zenbateko horiek honako hauei jarraiki minoratuko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuaren kostua, aurreko idatz-zatian aipaturiko gehieneko zenbateko-mugarekin. - Eskatzailearen banako gaitasun ekonomikoa, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen finantzaketan duten partaidetza ekonomikorako irizpide orokorrak erregulatzeko araudian horri dagokionez zehaztutako moduan. - Arreta emateko gizarte-zerbitzu bat edo bestelakoren bat aldi berean erabiltzea, telelaguntza-zerbitzuaren kasuan izan ezik; telelaguntza-zerbitzua prestazio ekonomikoarekin batera egin daiteke, horren zenbatekoan eraginik izan gabe. - Antzeko izaera eta helburua duten bestelako prestazioak –gizarte-babeserako erregimen publikoetan ezarritakoak– kobratzea: <ul style="list-style-type: none"> • baliaezintasun handiko osagarria; • % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatik esleipen ekonomikoaren gehigarria • Hirugarren pertsonak kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa behar izateagatik gehigarria. • Hirugarren pertsonen laguntzagatik sorospena. 				
Arreta-maila	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehen mailako arreta, lehen mailako arretarako zerbitzuekin lotuta daudenean. ▪ Bigarren mailako arreta, bigarren mailako arretarako zerbitzuekin lotuta daudenean. 				
Hartzaileak	<table border="1"> <tr> <td><i>Hartzaileen egoera</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-arriskuan dauden edota I., II. edo III. graduako mendetasuna aitortuta duten pertsonak. </td> </tr> <tr> <td><i>Hartzaileen adina</i></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion adin-mugak aplikatuko dira. </td> </tr> </table>	<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-arriskuan dauden edota I., II. edo III. graduako mendetasuna aitortuta duten pertsonak. 	<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion adin-mugak aplikatuko dira.
<i>Hartzaileen egoera</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mendetasun-arriskuan dauden edota I., II. edo III. graduako mendetasuna aitortuta duten pertsonak. 				
<i>Hartzaileen adina</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kasu bakoitzean prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzuari dagozkion adin-mugak aplikatuko dira. 				
Eskuratzeko baldintzak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arriskuaren balioespina eta mendetasunaren aitortpena edukitzea, prestazioa lotuta dagoen zerbitzuaren arabera. ▪ Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3. artikuluan aurreikusita dauden titulartasuneko 				

3.4. Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazioak

baldintzak betetzea.

- Eskaera aurkezten den egunean, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan erroldatuta egoten jarraitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian.
- Eguneko arretako zerbitzuekin edota lehen mailako arretarako ostatu-zerbitzuekin lotutako prestazioak bada, behar bezala egiaztatutako horrelako zerbitzu batean toki pribatua dagoela egiaztatzea, Gizarte Zerbitzuen Mapan horrelako zerbitzuei dagozkien eremu geografikoan. Salbuespen gisa, eremu geografiko horretan lekurik ez badago, bestelako eremu mugakideetan kokaturiko zerbitzuak eskuratzeko esleitu ahal izango da prestazioa.
- Bigarren mailako arretarako eguneko, gaueko edota ostatuko zerbitzu edo zentroekin lotutako prestazioak direnean, behar bezala egiaztatutako zerbitzu edo zentroren batean leku pribatua duela egiaztatzea, prestazioa eskatzen den Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoan. Salbuespen gisa, Lurralde Historiko horretan lekurik ez badago, Euskal Autonomia Erkidegoko beste Lurralde Historikoen batean kokaturiko zerbitzuak eskuratzeko esleitu ahal izango da prestazioa.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin lotutako prestazioa bada, horrelako zerbitzuak emateko behar bezala egiaztatutako erakunde pribatuen batek edo profesional autonomoren batek emandako etxez etxeko laguntza-zerbitzu pribatuen bat kontratatu dela egiaztatzea.
- Prestazioarekin lotutako zerbitzuak eskuratzeko baldintza propioak betetzea.

III. ERANSKINA
GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN BITARTEZ AUTONOMIAREN ALDEKO
ETA MENDE TASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO SISTEMAN TXERTATUTAKO
ZERBITZUAK ESKURATZEKO KORRESPONDENTZIEN TAULA

Ondorengo taulan zehazten da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzu eta prestazio ekonomiko datozen bat Autonomiaren aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoekin, edota Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zer zerbitzuz eta prestazio ekonomikok ematen duten horiek lortzeko aukera. Azken horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen bitartez eskura badaitezke, mendetasun-graduaren eta hartzaileei buruzko aurreikuspenen (Dekretu honen III. tituluan jasotako zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen fitxetan bilduta daude horiek) arabera zehaztuko da zerbitzua.

	AUTONOMIAREN ALDEKO ETA MENDE TASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO SISTEMA	GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA
Zerbitzuak	Mendetasun-egoerak prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak	
	<i>Gaikuntza-zerbitzua eta terapia okupazionala</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Arreta goiztiarra emateko zerbitzua</i>	2.7.4. Arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua.
	<i>Estimulazio kognitiborako terapia</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak. 2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Autonomia funtzionala sustatzeko, mantentzeko eta berreskuratzeko zerbitzua</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak. 2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Buruko gaixotasunen bat edo desgaitasun intelektualen bat duten pertsonentzako gaikuntza psikosozialeko zerbitzua</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Bizitoki berezietan laguntza pertsonaleko eta zaintzen zerbitzuak</i>	2.4.2. Desgaituentzako egoitza-zentroak. 2.7.2.1. Bizitza Independentea Babesteko zerbitzua.
	Telelaguntza-zerbitzua	1.6. Telelaguntza-zerbitzua
	Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	1.2. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
	Eguneko eta gaueko zentroyen zerbitzua	
	<i>Adinekoentzako eguneko zentroa</i>	1.7. Eguneko arretarako zerbitzuak.
	<i>65 urte baino gutxiagokoentzako eguneko zentroa</i>	2.2.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa.
	<i>Arreta espezializatutako eguneko zentroa</i>	
	<i>Gaueko zentroa</i>	2.3.1. Autonomia-mugek eragindako premiei erantzuteko gaueko zerbitzua edo zentroa.
	Egoitza-arreta emateko zerbitzua	
	<i>Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza</i>	1.9. Etxebizitza komunitarioa 2.4.1. Adinekoentzako egoitza-zentroak.
<i>Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko egoitza, dauden desgaitasun moten arabera</i>	2.4.1. Desgaituentzako egoitza-zentroak. 2.4.2. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak.	
Prestazio ekonomikoak	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	3.4. Zerbitzu pertsonalei lotutako prestazioak.
	Familia-ingurune Zaintzarako Prestazio Ekonomikoa	3.2. Gizarte-babes informala eskaintzen duten pertsonak babesteko eta konpentsatzeko prestazioak.
	Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak	3.1. Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta gizarte-larrialdiko egoerak konpontzeko edo arintzeko prestazioak

IV. ERANSKINA

PRESTAZIO TEKNIKOEN DEFINIZIOAK

- 1. Informazioa.** Informazioa prestazio bat da, eta horren bitartez, erabiltzaileek (pertsonek, familiak eta taldeak) gizarteratzea, autonomia eta gizarte-ongizatea erraztu ditzaketen eskubide, zerbitzu eta prestazio ekonomikoak buruz jakin behar duten guztia jasotzen dute, garaiz eta behar bezala jaso ere

Informazio-prestazioa zenbait testuingurutan eman daiteke:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eskainitako Informazio, Balioespen, Diagnostiko eta Orientazio Zerbitzuak erabiltzaileei beharrezko informazioa emango die, ezarritako baldintzak betez gero Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko aukera izan dezaten. Gainera gizarte-ongizatea lortzeko bestelako sistema eta politika publiko antzeko edo osagarrien bidezko zerbitzu eta prestazioei buruzko informazioa eskainiko da.
- Bigarren mailako arretaren barnean hartuta egonik jomugan kolektibo espezifikoak dituzten Informazio eta Orientazio Zerbitzuek, berriz, pertsonari informazioa eskainiko diote zer jardun komeniko litzaizkiokeen jakinarazteko, eta harentzat egokitzen diren gizarte-zerbitzuetara edo bestelako zerbitzuetara bideratzeko.
- Gainerako zerbitzuek emandako informazioa zerbitzu bakoitzari buruzko informazio espezifikoak izango da, baina gainerako zerbitzuei buruz informatzeko aukera baztertu gabe.

- 2. Balioespena.** Balioespen-prestazioak hiru modalitate desberdin ditu, eta bakoitzak bere edukia eta bere testuingurua dauka::

- *Premien balioespena* Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egiten du, lehen mailako arretaren barnean; funtsean, pertsona, familia eta taldeen premien eta gaitasun sozial eta psikosozialen oinarrizko identifikazioa egiten da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak esku hartu behar lukeen ebazteko, eta, esku-hartzea bidezkoa bada, premia horiei erantzuteko zerbitzu eta prestazio ekonomiko egokienak zein izango lirakeen erabakitzeko. Esku-hartzeak jarraipena eskatzen duen bakoitzean, diagnostiko bat egin behar da.
- *Adituen balioespena* Mendetasuna, Desgaitasuna, Bazterkeria eta Babesgabetasuna Balioesteko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuak egiten du, bigarren mailako arretaren barnean. Funtsean, pertsonen kontingentzia espezifiko bati edo batzuei dagokienez —mendetasuna, desgaitasuna, babesgabetasuna eta bazterkeria— zenbaterainoko premia duten neurtzen da, horretarako baliozkotutako tresna teknikoak erabiliz, hala nola baremoak, eskalak edo beste batzuk. Adituen balioespen hori ezinbestekoa da zerbitzu eta prestazio ekonomiko jakin batzuk eskuratzeko, ebatzitako premia-graduaren arabera.
- *Jarraipen-balioespena* lehen edo bigarren mailako arretako zerbitzu espezifiko batek garatutako esku-hartze baten esparruan egiten da betiere. Batetik, zerbitzuaren testuinguruan arreta eman zaien pertsonengan atzemandako aldaketa balioesten da (helburuak zenbateraino bete diren, baliabidea egokia ote den, beste baliabide batzuk behar diren eta abar), eta, bestetik, zerbitzu hori bilakaera horretara zenbateraino egokitzen den zehazten da.

- 3. Diagnostikoa.** Diagnostikoa erabiltzaileen premia eta gaitasunen sakoneko deskribapena eta analisisa edo ebaluazioa da, erabiltzaileak modu autonomoan nola moldatzen eta nola gizarteratzen diren eta/edo zer babesgabetasun-egoerari aurre egin behar dieten aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzeak zer helburu bete behar dituen zehazteko.

Horretarako, premia ageri den testuingurua aztertu behar du diagnostikoak, gutxienez honako hauek aintzat hartuta:

- egoeraren aurrekariak;
- egoera luzatzea ahalbidetzen duten aldagaiak;
- egoeraren iraupena;
- erabiltzailearen babes-sarea;

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak egindako preskripzio teknikoei zenbateraino atxiki zaizkion.

Diagnostikoa egingo da baldin eta gizarte-zerbitzuetako profesionalak beharrezkotzat jotzen badu jarraipenaren premia duen esku-hartzea abian jartzea

Diagnostikoa egin aurretik, gizarte-zerbitzuetako profesionalak erabiltzailearen edo erabiltzailearen familiaren baimena eduki beharko du, edo, hala badagokio, erabiltzailearen ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren baimena. Halaber, ahal den neurrian, erabiltzaileak prozedura horretan parte hartuko du, baita erabiltzailearen babes-sare naturalak ere.

- 4. Orientazioa.** Orientazioa prestazio bat da, eta, horri jarraiki, erabiltzaileek, preskripzio tekniko profesional baten esparruan, hainbat proposamen eta aholku jasotzen dituzte egin beharreko ibilbideen inguruan eta modu autonomian moldatzeko eta gizarteratzeko premietara ondoen egokitzen diren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen inguruan, egindako diagnostikoarekin edo balioespenaren bat etorriz, hurrenez hurren. Orientazioaren barnean arreta pertsonalizatuko plan bat lan daiteke, halaber, baldin eta diagnostikoak horrelakorik eskatzen badu.

Orientazioari jarraiki, erabiltzaileak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren beste zerbitzu eta prestazio ekonomiko batzuetara bideratuko dira, baita, hala badagokio, arreta-arloko beste sistema edo politika publikoetako zerbitzu eta prestazioetara ere.

- 5. Bitartekaritza.** Familia-bitartekaritza borondatezko prozedura da. Prozedura horretan profesional batek edo gehiagok laguntza eta orientazioa jartzen dute gatazkan dauden alderdien eskura, haien familia-gatazka konpontzeko irtenbide onargarriak aurkitzeko elkarriketa-prozedurari dagokionez. Profesional horiek bitartekaritzan prestakuntza izango dute, inpartzialak izango dira eta ez dute erabakiak hartzeko ahalmenik izango.

Bitartekaritza-bitartekotzako prozedurari jarraiki, gizarte-zerbitzuetako profesionalek erabiltzaileari orientazioa ematen diote gizarte-gaitasunak garatzeko eta hurbileko ingurunearekiko (familia, taldea edo komunitatea) elkarrengana hobetzeko egin beharreko urratsen inguruan

- 6. Etxeko arreta.** Etxeko arreta prestazio bat da, eta, horren bitartez, pertsonak laguntza partziala edo osoa jasotzen dute *eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak* egiteko, eta bereziki elikatzearekin, janztearekin eta etxea garbitzearekin zerikusia duten etxeko lanak egiteko, hala badagokio, lan horiek egiteko eta etxea antolatzeke beharrezko trebetasunak eskuratzeko entrenamendua barne.
- 7. Arreta pertsonala.** Arreta pertsonala prestazio bat da, eta, horren bitartez, pertsonak laguntza partziala edo osoa jasotzen dute honako jarduera hauek egiteko, hala badagokio, jarduera horiek egiteko beharrezko trebetasunei dagokien entrenamendua barne:
 - erabiltzailearen zaintza pertsonalerako beharrezkoak diren eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak, eta bereziki, altxatzeko eta etzateko, bere burua garbitzeko, ibiltzeko, jateko edo oinarrizko beste eginkizun batzuetarako beharrezkoak direnak;
 - ingurunearekin lotzeko jarduera instrumentalak, eta bereziki, komunikatzeko (telefonoz hitz egiteko edo gutun bat idazteko) eta familia eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak direnak.

- 8. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku hartzea:**

Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeak prestazio teknikoak dira, eta prozesu luzeago edo laburrago bat ezartzea eskatzen dute. Prozesu horretan zehar, erabiltzaileak hainbat jakintza, jarrera, ohitura edo gaitasun jasotzen dituzte, modu autonomoan moldatzeko edo gizarteratzeko lagungarri.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzeen artean honako hauek biltzen dira: estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea, arlo okupazionalako esku-hartzea, hezkuntza-arloko esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala.

- d) Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartze prestazioaren bitartez, erabiltzaileek laguntza edo estimulazioa jasotzen dute eguneroko bizitzako jarduerak, oinarrizkoak eta instrumentalak, egiteko beharrezkoak diren jarrera eta trebetasun edo gaitasun kognitibo zein jokabidezkoak jasotzeko,

garatzeko, berreskuratzeko edo horiei eusteko, horrela beren autonomiari eutsi ahal izateko Zehazki, errehabilitazioa edo estimulazioa lantzeko esku-hartzeak honako jardura hauek dira: errealiteratzea; eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak garatzeko trebetasunak estimulatzeko ariketa errazak; eta terapia okupazionala.

- e) Arlo okupazionalako esku-hartzea prestazio bat da, eta horren bitartez, erabiltzaileek, gaikuntza-jardueretan parte hartuz, modu autonomoan moldatzeko edo gizarteratzeko baliagarri diren jarrerak, jakintzak eta trebetasunak jasotzen dituzte, lan-eremuan ere aplika daitezkeenak Gaikuntza integraleko jardueren bitartez, lan-eremukoak izaki eremu horretara mugatzen ez diren egokitze-trebetasunak garatu eta hobetu nahi dira, autonomia pertsonalaren garapena eta erabiltzaileak gizarteratzea errazten duten aurrerapenak bilatuz.
- f) Hezkuntza-arloko esku hartzea prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileek, hezkuntza jasotzeko profesional batekin harremanetan jarriz, jarrera eta ohitura desegokiak aldatzen dituzte, eta edozein testuingurutan gizarteratzeko eta modu autonomoan moldatzeko egokiak diren jarrera eta ohiturak jasotzen dituzte. Hezkuntza-arloko esku-hartze prestazioaren barnean hartuko dira, besteak beste, hezkuntza-aisiako jarduerak, kaleko hezkuntza, familiako hezkuntza, etxeko hezkuntza eta krisi-egoeran dauden pertsona eta familientzako orientazioa.

Etxeko hezkuntza prestazio bat da, eta, horren bitartez, pertsonak jakintza, gaitasun eta ohitura egokiak jaso edo garatzen dituzte, batetik, etxean ahalik eta modurik autonomoan bizitzea ahalbidetuko dieten eguneroko bizitzako jarduerak egiteko, eta, bestetik, zaintza informaleko zereginak egiteko. Etxeko hezkuntzaren barnean hainbat jardura bilduko dira. Besteak beste, pertsona eta familia erabiltzaileei informazioa, orientazioa eta prestakuntza ematea, irakatsiz edo egitean lagun-eginez, batetik, etxeko eremuko eguneroko bizitzako jarduerak egitearekin zerikusia duten jakintza, jarrera, gaitasun eta ohitura egokien inguruan (ordutegiak, higieena, elikadura, etxeko ekonomia eta abar), eta, bestetik, zaintza-zereginen inguruan (oheratutako pertsonen mobilizazioa, orientazioa eta abar).

- g) Arlo psikosozialeko esku-hartzearen bitartez erabiltzaileei laguntza eskaini nahi zaie, gizarteratzeko edo modu autonomoan moldatzeko baliagarri diren giza jokabideak eta inguruneke testuinguru eta egoerak aldatzeko eta hobetzeko bidean. Bereziki honako hauek lortu nahi dira:
- erabiltzaileen trebezia, trebetasun eta baliabide pertsonalak optimizatzea pertsona kalteberenei dagokienez bereziki (oinarrizko egokitze-portaerak).
 - babes profesionalaren laguntza-eginkizuna optimizatzea, babes hori eskuragarriago eginez eta hobetuz.
 - Babes naturaleko sare eta sistemak optimizatzea (estresa arintzeko eragina maximizatzeko).

9. Lagun-egite soziala Lagun-egite soziala prestazio bat da, gizarte-zerbitzuetako prestazioetan egiazkoena eta bereizgarriena, eta horren bitartez pertsona profesional kalifikatu batekin harremanetan jartzen da, harekiko elkarreraginak lagundu egiten diola modu autonomoan moldatzen eta gizarteratzen.

Lagun-egite sozialari esker erabiltzaileak bere egoera egiazta dezake, bere autonomia pertsonala eta gizarteratzea mantentzeko edo garatzeko dagokienez —gizarteratzeko lagun-egitea— dituen helburuak azal ditzake; eta prozesuan zehar helburu horiek lortzen lagunduko dion erreferentziatzeko pertsona bat eduki dezake eskura, honako hauen inguruko laguntza eta babesa eskainiko diona:

- instrumentala (informazioa, orientazioa eta bitartekaritza beste sistema batzuetako baliabide eta zerbitzuak eskuratzeko eta babes informaleko —familia, lagunak, komunitatea— eta harremanetarako sareetara iristeko);
- emozionala (kaltea murriztea, eustea, emozioei eustea eta krisi-egoeretan orientatzea, eta abar);
- hezkuntza-arlokoa (gizarteratzeko eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko trebetasunak jasotzea, jarrerak aldatzea eta abar);
- harremanetarako (entzute aktiboa, harreman sozial eta/edo pertsonalak mantentzeko edo ezartzeko trebetasunak jasotzea, harremanak ezartzeko aukerak sortzea).

Lagun-egite soziala neurri handiagoan edo txikiagoan ezarriko da pertsonaren babes-premiaren arabera. Zenbait ibilbide ezar daitezke, erabiltzaileak poliki-poliki lagun-egitearen intentsitatea alda dezan, eta, ahal dela, murriz dezan.

10. Arreta soziojuridikoa. Arreta soziojuridikoa orientazio juridikoaren alorreko prestazio bat da, eta, horren bitartez, erabiltzaileei informazioa eta orientazioa ematen zaie, tresna juridikoen bitartez, mendetasun-, babesgabetasun- edo bazterkeria-egoerei erantzuteko eta egoera horiek konpontzeko, baita beste egoera batzuen (larrialdi-egoerak adibidez) gizarte-ondorioei erantzuteko eta ondorio horiek konpontzeko ere, erabiltzailea gizarteratzeko eta modu autonomoan moldatzeko prozesua errazteko.